

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2014-11-10
ASTELEHENA
473. ZENBAKIA
11. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.EUS
TOKIKOM

Aramaioarren atxikimendua behar du biomasa proiektuak | 11

'Loreak' filma heldu da bailarara, eta harrera ona izan du | 29


Aritz Alustiza 'Geure kolkotik' diskoa aurkezten Zabalotegin, Bergaran | 31



Urrezko Zeledonei harrera egin die Aramaiko Udalak | 6



Debagoiendar ugari Gure Esku Dagoren Zurriolako mosaikoan | 5



Yera Varela eta Nere Arregi, bailarako onenak Boulevardean

Helmugaratutako korrikalarien artean 533 izan dira debagoiendarrak | 22

Yera Varela, beste korrikalari batekin batera, helmugan sartzen.

JOSETXO ARANTZABAL



Paul Rios. | LOKARRI

Paul Rios: "Uste dut ondo doala bake prozesua"

Martxoan emango du bukatutzat bere bidea Lokarrik, eta azken zereginetan dabilta kideak. Eguaztenean, adibidez, hitzaldia egingo du Paul Rios koordinatzaileak Bergaran. Riosek dio bizi dugun unea "ametsa" dela gehienontzat, eta ez dagoela ez aprobetxatzeko "aitzakiarik". | 8

SINADURAK

-  PATXI OLABARRIA | 9
-  MIRARI ALTUBE | 9
-  ANDER ETXEBERRIA | 14
-  IGOR DIARBIDE | 16
-  IÑIGO AGIRIANO | 19
-  OIHAN VEGA | 37
-  AINHOA LARRAÑAGA | 40

ZURE BIGARREN

VARILUX®

LEIAR PROGRESIBOAK

OPARI*

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA
IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

* kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.



J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS

lehena zerbitzu optikoetan



(B)

**Diru (B)eltza,
enplegu (B)eltza**

**“A” gizartea
lortzeko**

eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

 **ZATOZ EKONOMIA
GARDENERA**

www.ekonomiagardena.net



Gipuzkoa
BERRIA

'Bizilagunak': beste kultura bateko familia bat ezagutzeko aukera

- ▶ Caritas, Elkarhezitzen eta Ekin Emakumeak ibili dira eskualdean proiektua bultzatzen
- ▶ Dagoeneko 160 familia inguruk eman dute izena Gipuzkoan proiektuan parte hartzeko

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Gaur da *Bizilagunak* proiektuan izena emateko azken eguna. Orain arte, Gipuzkoan bakarrik, 160 familia inguruk eman dute izena, baina, azken orduan jende asko animatzen denez, 180 inguru espero direla adierazi du SOS Arrazakeriak; eta Euskal Herri osoan 200 familia baino gehiagok parte hartuko dute. *Bizilagunak* etorkinen eta euskaldunen elkarbizitza hobetzeko SOS Arrazakeriak sortutako egitasmoa da, *Gipuzkoa Solidarioa 2014* proiektuaren baitan; izan ere, Debagoienean, Caritas, Elkarhezitzen eta Ekin Emakumeak izan dira, batik bat, proiektu hori kudeatu dutenak.

Horrenbestez, *Bizilagunak* proiektuak familia atzeritarrak eta euskaldunak mahaiaren inguruan bilduko ditu Euskal Herriko hainbat lekutan; baita Arrasaten eta Antzuolan ere. Hilaren 29an izango da, zapatuan, 14:00etan. Hain zuzen ere, ekimen horren helburua da batera existitzen diren errealitateak gerturatzea, eta, horrekin batera, etorkinei buruzko aurreiritziak haustea: eta horretarako, egokiena elkar ezagutzea da.

Hurbiltzea da funtsa

Esan bezala, bi familia elkartzean datza proiektua; bata bertakoa, Euskal Herrikoa, eta bestea etorkina. Haietariko baten etxean batuko dira elkarrekin bazkaltze asmoarekin: horrela, kultura askotariko ohiturak, haien arteko talkak, eguneroko bizi-modua eta bestelako esperientziak

trukatzeko aukera izango dute familiek. Aipatzekoa da bazkari horietan parte hartuko duten familiez gainera, dinamizatzaile lanak egingo dituen pertsona bat ere izango dela; hitzorduaren antolaketan laguntzeko eta, bide batez, bazkariak eta giroaz gozatzeko eurekin batera. Bestetik, azpimarratzekoa da familiaren kontzeptutzat lotura, harremanak, maitasuna eta bizitza orokorrean konpartitzen dutenak hartzen direla.

Esperientzia positiboa

Ez da mota horretako jarduera bat antolatzen den lehen aldia; izan ere, Euskal Herrian hirugarren urtea da *Bizilagunak* proiektuarendako.

Debagoienean kasuan, iaz izan zen halako bazkari bat egin zen lehenengo aldia. Aretxabaletan, aurtengo bazkari "intimoagoak" barik, bazkari handiagoa egin zuten: 30 lagun inguru bildu ziren Murualde elkartean. Iñigo Trueba aretxabaletarra da parte hartu zueneko bat eta oso esperientzia polita eta errepikatzen modukoa dela azaldu du hark. "Ederto pasatu genuen. Jende dezente elkartu ginen, eta umeendako jokoak prestatu genituen. Saharako, Argentinako eta Senegalgo lagunak izan ziren gurekin eta nork bere herrialdeko plater bat eraman zuen. Gero, dena konpartitu genuen", gaineratu du. Izan ere, bazkari soil batean gelditzen ez dela adierazi du Truebak: familia etorkinen lagunak egin ziren eta aurten ere

parte hartzeko asmoa duela azpimarratu du.

Jaialdia

Hori horrela, ez da egitasmo hori bazkari batera mugatuko: azaroaren 29an, Donostiako Victoria Eugenia antzokian amaiera festa ospatuko dute, 17:00etan.

Proiektu horretan parte hartutako familiei, kulturen arteko elkarbizitza bultzatzeagatik errekonozimendua egingo zaie. Gainera, bazkari horietan bideo batzuk grabatuko dira eta proiektatu egingo dituzte bertan. Bide batez, batutako familiak berriro ere elkartzeko eta beste familia batzuk ezagutzeko aitzakia izango da jaialdia.

Inplikazioa

SOS Arrazakeriatik azaldu dutenez, geroago eta jende gehiagok parte hartzen du horrelako egitasmoetan. Iaz, 200 familiak eman zuten izena, Euskal Herri osoan, gehienak gipuzkoarrak, eta aurten marka hori gainditzea espero dute.

Orain arteko esperientzia kontuan izanda, inolako arazo edo liskarrik egon ez dela adierazi dute proiektuan parte hartu dutenek eta antolatzaileek, inoiz ez. Hala ere, oraindik inplikazio autoktonoa bermatu behar dela azaldu dute, familia euskaldunek baino etorkin gehiagok ematen dute-eta izena.

Hori horrela, gaur ere izena eman daitekeenez, gonbita zabaldu nahi izan du SOS Arrazakeriak, azken orduan apuntatu nahi duenarendako.



ANDER LARRAÑAGA

MAITANE IGARTUA | ELKARHEZITZEN-EKO KIDEA

"Jende eta kultura desberdinak ezagutzea aberasgarria da beti"

Maitane Igartuak, Elkarhezitzen-eko kidea izateaz gain, joan den urtean Aretxabaletan egin zen bazkarian parte hartu zuen; horrenbestez, esan daiteke etorkinen eta euskaldunen arteko hurbiltze prozesuan laguntzen duela.

Zer moduzko harremana dugu etorkinekin?

Denetik dago; pertsonaren arabera izaten da, ez da kultura bat bestea baino irekiagoa edo itxiagoa. Pertsona batzuk ohituta daude; samur erlaziozaten dira edota beste kultura batzuk gertuago bizi dituzte. Egia da, askotan, gure bizimoduak ez duela aukerarik ematen jende berria ezagutzeko, kuadrillatik edo lanetik lanpo. Etor-kinekin, hizkuntza dela edo aurreiritziak direla, zailagoa egiten zaigu. Gainera, askotan, ez ditugu espazio berak konpartitzen eta horrek zaildu egiten du kulturen arteko komunikazioa.

Familien jatorriak badu eraginik gerturatze prozesuan?

Batuzendako, etorkinen jatorriak izan dezake eragina. Herrialde bakoitzeko ohiturak, hizkuntzak edota jantziak arrotzak dira askorendako.

Zeintzuk dira aurreiritzi nagusiak?

Etorkinek integrazioarako biderik egiten ez dutela uste dute askok, bertakoekin egoteko ez dutela interesik agertzen; orokorrean, ez da horrela izaten. Bestetik, etorkinek jasotzen dituzten diru laguntzak direla-eta, hor dauden aurreiritzi guztiek ere eragina izaten dute, beste faktore askoren artean.

Zergatik da garrantzitsua elkarbizitza?

Aniztasuna beti positiboa dela iruditzen zait niri. Beste kultura batzuek erakuts diezagukete gauzak egiteko beste modu batzuk, beste ikuspuntu bat. Jende eta kultura desberdinak ezagutzea aberasgarria da beti; besteak ezagutzea eta eurengandik ikastea positiboa da.

ESANAK



"Etorkinen hizkuntza dela edo aurreiritziak direla, zailagoa egiten zaigu eurengana hurbiltzea"

MAITANE IGARTUA | ELKARHEZITZEN



"Beharrezkoa da etorkinenganako hurbiltasuna egotea; gure inguruan bizi dira eta elkarrekin bizi behar dugu"

XABIER JORRIÑ | CARITAS



"Arrasateko biztanleriaren %6 etorkina da, eta askotan ez dugula elkar ezagutzen bistakoa da"

LEIRE ESTEVEZ | EGIN EMAKUMEAK

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1989ko Azaroak 10, 40. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean

MAXI-EROSKI

Deba Garaian

25
urte zuekin!

Zatoz gurekin ospatzera!
Azaroaren 15ean Arrasateko
Eroski hipermerkatuan



Eskerrik asko debagoiendar guztioi!

Arrasateko hipermerkatua



Musakola 11
ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Euskal Herriak ere erabakitzeke bere bidea egin behar duela irudikatu dugu

Aurreikuspenak bikoiztuz 10.000 lagun batu gara; Debagoienetik, 600

KOMUNITATEA GOIENA
GURE ESKU DAGO | DEBAGOIENA

Hasiera baten, 5.000 lagun elkar-tzea espero genuen, baina 10.000 izatea lortu genuen. Guinness errekorra ere hautsi dugu, aterkien bidez egindako mosaikorik handiena eginez. Primerako balo-zioa egiten dugu, dena ondo

irten zen-eta. Poztasun handia antzematen zen jendearen artean, oso hunkigarria izan zen. Lehendabizi, Eskoziako bandera irudikatu, eta, ondoren, Kataluniakoa. Gero orri zuri bat irudikatu genuen, aldarrikatzeko Euskal Herriak oraindik egiteko duela bidea. Amaieran, hauteskontzi

batek bandera guztiak zeharkatu zituen, eta horrekin amaitu genuen mosaikoa.

Oso polita eta hunkigarria

Ekintzak berak ordu eta laurden inguru iraun zuen. Izan ere, 11:00ak aldera hasi ginen Zurriolako hondartzara sartzen, lau sarbideetatik.

Irudi oso politak utzi zituen mosaikoak, ondo egindako lanaren adierazle. Jendea oso pozik zegoen, itzela izan zen.

Debagoienetik ere hainbat herritarrek egin zuten bat. Arrasatetik eta Aretxabaletatik joandakoen artean autobus bat bete genuen, eta beste bat oñatiarrek.

Beste era batzuetara ere jende asko joan zen. Autobusei dago-kienez, aitortu beharra dugu berandu ibili garela antolatzen eta horregatik herritar batzuk ezin izan direla autobusean etorri; lantaldetik barkamena eskatu gura dugu, hurrengo baten saiaturko gara garraioarena hobeto antolatzen.

Debagoienean ere lortu dugu

Debagoienean jarritako helburua zen 600 herritar batzea, eta esan dezakegu helburua lortu genuela. Gainera, ziur gaude beste zenbait debagoiendar ere joan zirela Zurriolara mosaikoan parte hartzeko txartelik ez izan arren.

Bestalde, Behobia-Donostia lasterketa zela-eta hainbat ziren Donostian zeuden kataluniarrak. Askok izan ziren mosaikoan, Kataluniako banderekin; lasterketan ere mosaikoan erabili genituen aterkiak erabiltzeko deia egin genuen. Katalunia bere bidea egiten ari da eta euren iritzia eman ahal izan dute. Orain, Euskal Herriaren ordua da.

Elkarretaratzea atzo Oñatin

Bestalde, Oñatiko Gure Esku Dago lantaldeko kideok elkarretaratzea egin genuen atzo Foruen plazan. Kataluniarendako horren garrantzitsua den eguna aintzat hartuz, *Katalunia urrats bat, erabaki bat. Hauxe da bidea, ara és l' hora* lelopean hainbat oñatiar batu ginen, ikurrina eta estelada ere lagun. Udaletxeko balkoian ere bazen estelada bat jarrita.



Hasieran, Kataluniako eta Eskoziako banderekin egin zen mosaikoa. | GURE ESKU DAGO



Oñatiko Gure Esku Dago atzo egindako elkarretaratzea. | JULEN IRIORDO

Ziburuko lagunak indartsu ikusi ditugu, aurrera egiteko oso gogotsu

KOMUNITATEA GOIENA
ARIZMENDI IKASTOLA | ARRASATE

Manifestazioa 16:30ak aldera hasi zen, txalapartariekin eta joaldunekin. Pankartarako aukeratu zen leloa izan zen *Ikastolak ez hunki*, eta oso hunkigarria izan zen ikustea manifestazio buruan, ordezkarietz gain, Kaskarotenea ikastolako 2-4 urte bitarteko 13 haurrak zihoazela.

Euskal Herri osotik joan zen jendea, eta denon ahotan zebilen auzapeza noraino iritsi den eta ze neurri gogorrek hartu dituen. Kaskarotenea ikastolaren aldeko sekulako elkartasun keinua izan zen zapatukoa. Auzapeza hitz egitera eseri behar da arazoa konpontzeko. Kaskarotenea-

ko zuzendari Laida Mugikarekin egon ginen, eta indartsu ikusi genituen, eta aurrera egiteko gogotsu. Egoera oso kaskarra izan arren, baikor ikusi genituen; 5.000 lagun baino gehiagoren babesa ikustea oso pozgarria izan zen euredako.

Kros solidarioa hilaren 28an

Azaroaren 28an, Aranzadi, Txantxiku eta Arizmendi ikastolek antolatuta kros solidarioa egingo dugu Bergaran, Oñatin, Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Sinbolikoa izango da, ez da kilometro batera ailegatu. Herritar guztiak animatu gura ditugu parte hartzera. Izen-ematea euro bat izango da.



Arrasatetik joandako lagun kuadrilla Ziburun. | ARIZMENDI

Askotariko formazio gosea asetzen segiko du UNED-Bergarak beste ikasturte batez

Egubakoitzean izan zen urte akademiko berria irekitzeko ekitaldia, udaletxean

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA

Egubakoitzean hasi zen ofizialki UNED-Bergarako 2014-2015 ikasturtea. Aurten ere zabala izango da eskaintza: Europako Goi Hezkuntzako espaziora egokitutako 26 gradu, hamazortzi unibertsitate master eta askotariko doktoretza-programak, besteak beste. Ikasketak iaz amaitu zituztenei ziurtagiriak banatu zitzaizkien eta Bergarako Musika Eskolakoek emanaldi labur bat eskaini zuten. Azaroaren 11ra arte matrikulatzeko aukera dago.

Formazioaren garrantziaz

Ekitaldiaren hasieran MUKO errektore ohi Xabier Retegik hitzaldia eskaini zuen, *Gizartea bidegurutzearan* izenburupean.

Esan zuen, besteak beste, erabaki txarrena erabakirik ez hartzea dela, okerrera geldi geratzea dela: "Guk landutako bideak hartu behar ditugu gure herria aurrera ateratzeko. Bertako jendea da herri honen indarra. Izan ere, jendea oso ondo prestatuta dago, baina oso gutxi aprobetxatzen da. Gure proiektuekin munduan lehiakorrek ez bagara, multinazionalak markatzen duten bidetik joango gara. Eta hori ez da gure-



UNED-Bergarako zuzendari Iñaki Esparza diploma bat banatzen. | IMANOL SORIANO

tako bide ona". Bestalde, Gipuzkoako Ahaldu Nagusi eta Patronatuko zuzendari Martin Garitanok nabarmendu zuen "albiste pozgarria" dela "krisi latz" honetan herritarrek formatzeko ilusioa izatea: "Formazioan eta berrikuntzan ez badugu apustu egiten ez gara zulotik aterako. UNED-Bergarak unibertsitate arrunt batera joan ezin direnei formazio pertsonalizatua eskaintzen die, eta hori oso garrantzitsua da". Permuta "guztion onerako" izango dela gaineratu zuen Garitanok.

UNED-Bergarako zuzendari Iñaki Esparzak azpimarratu zuen gizarte eredu hobetzeko behar den "jauzi kualitatiboan" laguntzen jarraitzeko asmoa dutela eta "ezinbesteko" papera jokatzen dutela gizartean: "Batuzendako ez dago beste aukerarik. Edo UNED, edo ez dute ezer".

Horrez gain, permuta ez da "bakarrik" tokiz aldatzea, Esparzaren ustez: "Permutak esan gura du gure eskuetan oso tresna indartsu bat jartzen dela eta ondo kudeatu behar dugula".

Ez dituzte oraindik argitu Candy-ko langileen kaleratze baldintzak

Negoiaziorako egutegia zehaztu zuten aurreko egubakoitzean

ANDER LARRAÑAGA | BERGARA

Ez dira bi aste pasa Bergarako Candy-Hoover enpresak atea betiko itxiko dituela iragarri zutenetik. 152 langile kalean utziko dituen erabaki honek familia debagoiendar askoren kezka eta haserrea eragin du. Beraz, langileek borrokan dihardute, etorkizun beltz hori eragotzi nahian: batetik, enpresa barruko goi karguekin negoziazio bidea egin guran, eta, bestetik, protesta mobilizazioak eginez.

Aurreko egubakoitzean egin zuten enpresa batzordeko ordezkariak eta Candy-ko ugazaben abokatuek bilera, eta oraindik ez dute negoziatorako biderik egin; langileen kaleratze baldintzak zehaztu izango diren ez dute argitu oraindik. Bilera hori etorkizuneko negoziazio bileren data jartzeko baino ez zen izan: eguaztenean, hilaren 12an, delegazioan, dokumentuen entrega izango da, eta 13an, egunean, hasiko litzateke benetako negoziatorako bidea.

Legebiltzarrean ere protestan

Iragan egubakoitzean bertan, Eusko Legebiltzarrean egin zen

pleno monografikoan izan ziren Candy-ko langile batzuk, euren ahotsa erakundeetara iritsarazteko asmoz: "Gu entzuteko zara ta apur bat egitera etorri gara", argitu zuen enpresako langile batek. Hamabost lagun inguru joan ziren Gasteizera, baina Legebiltzarreko areto barrura gutxi batzuk baino ez ziren sartu.

Enplegu eta Gizarte Politikarako sailburu Juan Mari Aburto hizketan zela, barrura sartutako Candy-ko langileen taldeak "Ez, ez, ez, Candy ez itxi" oihukatuz aldarrikapenari ekin zion Eusko Legebiltzarreko aretoan. Lelo bera idatzita zuten kamisetak eta bi pankarta ere atera zituzten, Legebiltzarreko presidente Bakartxo Tejeriak oihuka ari ziren langileak kaleratzeko agindua eman zuen arte.

Mobilizazio gehiago

Hori horrela, orain arteko protestak ez direla horretan geldituko azaldu dute Candy-ko langileek; izan ere, mobilizazioak egiten jarraituko dutela azpimarratu dute, langile moduan euren eskubideak kontuan hartu arte, diotenez.

Aste honetarako, esaterako, elkarretaratze gehiago deitu dituzte enpresa batzordeko ordezkariak: gaur, egubakoitzean eta egunean 10:00etan bilduko dira Candy enpresaren parean, aparkalekuan, protesta egiteko; bihar, aldiz, herriko plazan izango da mobilizazioa, ordu berean.

Behobian ere protesta

Candy-ko langileek Behobia-Donostia lasterketara ere eraman zituzten euren aldarrikapenak domekan, bertan batzen den jende kopuru handia aprobetxatuz. Boulevardeko helmugan protesta egin zuten, eta zenbait langile lasterketa egin eta Candy ez itxi zioten kamisetekin helmugaratu ziren. Horrez gain, Candy-ko zuzendari industrial Sergio Talamazziren etxe inguruan ere erakutsi zituzten euren haserrea eta kezka.



Candyko langileak, Legebiltzarreko protestaren aurretik. | ESTITXU BRENAS



Candy-ren itxiera salatzen, Behobia-Donostian. | JOSETXO ARANTZABAL

Hiru Urrezko Zeledon eman dituen herria bisitatu gura izan dute elkartekoek

kideekin izan ziren Aramaion Velez de Mendizabal, Salaberri eta Mendialduak

JULEN IRIONDO | ARAMAIO

Urrezko Zeledonak elkartearen beraren ekimena izan da Aramaio bisitatu gura izan dute elkartekoek. Ezohikoa, baina herriak hiru Urrezko Zeledon eman dituela kontuan hartuta, erabat justifikatua, elkarteko presidente Javier Camenok adierazi zuen bezala. Eta 1962 urtetik Urrezko Zeledon izendapena jaso duten pertsonak batzen dituen elkarteak Aramaio bisita egitea erabakita, Udalak harreara egin zien zapatu eguerdian.

Gasteizen urtero ematen den herri sari garrantzitsua da Urrezko Zeledona. Hiriari egindako ekarpenagatik ematen dute saria, eta jaso dutenen artean daude Rafael Mendialdua, Sabin Salaberri eta Josemari Velez de Mendizabal -aurten bertan jaso du honek-. Hiru aramaiorrek elkarteko beste hainbat kideekin egon ziren zapatuan Aramaion.

Dantza eta bertsoak

Dantzariak hainbat dantza egin zizkieten, aurrena, udaletxearen aurrean, eta Manex Agirrek bertsoak kantatu ondoren; ongi etorria eman zien Agirrek, eta Urrezko Zeledonei aitortu bakoitzak bere esparruan egiten duen edo egindako "urregorritzko" lana.



Urrezko Zeledonei Aramaioko udaletxe aurrean egindako harrera. | IMANOL SORIANO

Aramaion hiru Urrezko Zeledon izatearen gainean, berriz, esan zuen "herri txikiak jende handia" eman dezakeela.

Osoko bilkuren aretora igo ziren ondoren, eta han zenbait oroigarri eman zizkieten elkarte elkarteak eta Udalak. Egindako hitzalditxoan, Ramon Ajuria alkateak adierazi zuen "ohorea" zela Urrezko Zeledonon bisita jaso izana, eta izendapena duten herriko hiru semei buruz, "ondo merezita" dutela.

Elkarteko presidente Javier Camenok hartu zuen ondoren

hitza, eta azpimarratu zuen zein berezia den Gasteizko saria hiru aramaiorrek jaso izana, Urrezko Zeledon gasteiztarren batentzat izaten da eta normalean. Camenok eskerrak eman zizkion herriari, egindako harreragatik.

Josemari Velez de Mendizabalek ere egin zuen berba, eta goraiatu zuen aramaiorren izaera berezia, eta Aramaio Arabari egiten dion ekarpena nabarmendu. Udaletxeko ekitaldiaren ostean, guztiak batera bazkaltzen geratu ziren herriko elkarte batean.

Arrasateko Harreman dendak boluntarioak behar ditu

ANDONI MUGIKA | ARRASATE

15 urte daramatza Arrasateko Harreman dendak Bidezko Merkataritzako produktuak eskaintzen. Denbora honetan hego hemisferioko ekoizleen duintasuna izan dute helburu. 25 pertsonak eskaintzen diote euren denbora proiektuari musu truk, baina, bajak direla eta, boluntario bila dabilta orain.

Harreman denda edozeini zabaldua dago eta eskatzen duten gauza bakarra da gutxienez hila batean behin joatea. Boluntarioen funtzioak dira txandak egitea eta azokako postuetan egotea. Gorka Martinezek hainbat urte daramatza denda kudeatzen, eta, azaldu duenez, malgutasun osoa eskainiko diete boluntario izateko

prest daudenei, norberaren ordutegia edota egutegia oztupo izan ez daitezen.

Orain arte, elkarlanean lortu dute Arrasateko eta bailarako hainbat denda eta tabernatan Bidezko Merkataritzako produktuak saltzea: kakaoa, azukrea eta kafea, besteak beste. Egindako lanagatik eskerrak eman nahi izan dizkie Martinezek boluntarioei.

Dena den, nabarmendu nahi izan du erosketetan aukera egitean "boterea" kontsumitzaileak duela, eta deia egin die Bidezko Merkataritzaren aldeko Eroskiko dendara joateko

Harreman dendan parte hartu nahi dutenek 628 51 22 78 zenbakira deitu edota dendara bertara joan besterik ez dute.



Gorka Martinez, Harreman dendako koordinatzailea. | MAILEN TORRES

Eskoriatzako Fagor etxetresna txikien lantegian eguenean hasi ziren lanean

Fagor CNAko zuzendaritzak berretsi du asmoa dela asteon Garagartzako ekoizpenarekin hastea

ARANTZAZU EZKIBEL | ESKORIATZA

Fagor CNAko zuzendaritzak baieztatu du dagoeneko hasi direla lanean Eskoriatzako etxetresna txikien lantegian. Hain zuzen, eguenean, jarri zituzten makinak martxan. Oraingoan 15 langile hasi dira lanean, presio-eltzeak ekoizten. Fagor eta Splendid izenarekin ekoiztuko dituzte etxetresnak.

Zuzendaritza pozik dago aurreikusita zegoen epean hasi direlako lanean Eskoriatzan; gainera, gaineratu dute asteon Garagartzan hasiko direla ekoizpenarekin.

Nazioarteko bezeroak

Zuzendaritzak azaldu du presio-eltzeak ekoizteko eskaera handia dutela, batez ere nazioarteko bezeroen aldetik. Alde horretatik, adierazi dute balioan jarri nahi dutela eskoriatzako lantegia; izan ere, Fagor Euskal Herriko eta Espainiako merkatuko liderra izan zen presio-eltzeei dagokienez, %40ko merkatuko kuotarekin. Gainera, mundu mailan erreferente izan da Fagor.

Urrian zehar ekoizpenerako beharrezkoak diren makinak puntuan jartzen ibili dira Esko-



Eskoriatzako lantegia martxan. | ARANTZAZU EZKIBEL

riatzako lantegian. Horrez gain, langileak formatzen eta trebatzen ibili direla azaldu du zuzendaritzak prentsa ohar bidez, bai zuzeneko eskulana eta baita zeharkakoa ere. Lehenengo egunetan ekoizpen maila baxuan egin dute

lan, prozesu guztiak behar bezala daudela ziurtatzeko. Behin hori eginda, poliki-poliki, produkzioa handitzen joango direla esan dute zuzendaritzatik, lantegiaren ohiko produkzioa mailara iritsi arte.

Eroskik 160 saltoki saldu dizkio Diari 146 milioitan

Operazioak ez du eraginik izango enpleguan; izan ere operadore berriak subrogatuko ditu kontratuak

A.E. | ARRASATE

Eroskik 160 supermerkatu propio saldu dizkio Diari 146 milioi euroren truke. Madril eta Andaluzia inguruko supermerkatuak dira gehienak. Salmentak eragin positiboa izango du Taldearen errentagarritasunean, pasiboa txikitzen lagunduko diolako. Taldearen Plan Estrategikoaren barnean dago sartuta operazioa, haren lehentasuneko negozioak indartzeko.

Pasiboa gutxituko dute

Desinbertsioak ez du eraginik izango enpleguan, operadore berriak subrogatu egingo baititu taldeen lan kontratuak. Salmenta akordioa gauzatu ahal izateko, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak ontzat eman behar du akordioa.

Saltoki horiek utzita, Eroskik pasiboa gutxituko du, eta Taldearen errentagarritasun globala hobetu, konpainiaren batz besteko efizientzia ratioen azpitik dauden aktiboetatik bereizi delako.

Elikagaien negozioa

Eroskik Espainiako elikagai negozioaren denda sareari eutsiko dio, 90 hipermerkatuarekin, 831 supermerkatuarekin eta 448 frankizia supermerkatuarekin. Eroskiren sarearen hedapen estrategia, aurtengo 53 irekierekin, frankizien garapenean oinarritzen da, oso eredu lehiakorra erabilia eta frankiziei errentagarritasun erakargarria eskainita; frankizia supermerkatuen sarean bigarrena da Espainian.

Fagor Automazionek aldizkaria argitaratu du

A.E. | ARRASATE

Fagor Automazionek bere aldizkariaren lehenengo zenbakia argitaratu berri du. Modu horretan, bezero guztiakin zuzenean eragiten dieten gaiei buruzko ezagutza eta informazioa partekatzeko asmoa azaldu dute.

Aldizkaria sei hilean behin argitaratuko dute. Lehen zenbakia honetan kooperatibak sektore aeroespazialean duen eragina landu dute. Erreportaje zabala egin dute gai hori aitazki hartuta. Nabarmendu behar da bost atal nagusi izango dituela aldizkariak. Gainera, hainbat ahots, sektore eta albiste interesgarri eman go diete protagonismoa Fagor Automazioneko argitalpen berrian. Kooperatibako atarian ikus daiteke zenbakia.



Jon Emaldi Arrasateko egoitzan. | LABORAL KUTXA

Jon Emaldi | Gaztenpresako arduraduna

"Enpresa gazteei lagundu nahi diegu sortzen eta garatzen"

Laboral Kutxaren Gaztenpresa fundazioaren bitartez 330 enpresa berri jarri dira martxan

A.E. | ARRASATE

Bizkaiko ezker aldean hasi ziren lanean gazteen langabeziari aurre egiteko, 1994ean. Proiektu hartatik sortu zen Gaztenpresa fundazioa. Laboral Kutxak 2002an formalizatu zuen.

Ze helbururekin sortu zen Gaztenpresa fundazioa?

Hasierako helburua gazteendako lanpostuak sortzea izan zen. Baina, gaur egun, egoera aldatu egin da. Hasieran Gaztenpresak gazteek enpresak sortzea zuen helburu; orain, enpresa gazteak laguntzea, sortzeko eta garatzeko.

Lehen bederatzita hilabeteetan 330 enpresa jarri dira martxan. Nolako balorazioa egiten duzue?

Iaz baino mikroenpresa gehiago sortzen lagundu dugu aurten. Aldaketa honen atzean Laboral Kutxak egin duen esfortzua dago, eta baita baliabide gehiago izan ditugula ere. Besteak beste, finantza erreminta berriak jarri ditugu martxan Europako Fondoan laguntzaz, eta gure bulegoetan, eta baita Lanbideko bulegoetan ere, bezeroei informazio gehiago eman diegu programa honi buruz.

Krisiaren eraginez, ekintzaile gehiago daudela esango zenuke? Ez dut hori hain argi ikusten.

Gaztenpresan bi ekintzaile mota daudela esan dezakegu: batzuei aukerakoak deitzen diegu, eta besteak behar daudenak dira. Aukerakoak, noski, momentu zailetan gutxiago izaten dira. Gainera, azkeneko ikerketen arabera, ekintzailetzarako beste leku batzuetan baino grina edo gogo gutxiago dago Gipuzkoan momentu hauetan. Behar dauden ekintzaileek sortutako enpresa kopurua handiagoa da; hala ere, horrek ez du esan nahi errazago denik ekimen berriak merkaturatzea. Iaz, esaterako, jaso genuen 4 eskaeretatik,

bakarra jarri zen martxan. Beste hirurek ez zuten prozesu guztia bukatu, batez ere bideragarritasun faltagatik.

Gaztenpresak nola laguntzen die ekintzaile horiei?

Gaztenpresarena 5 pausuko prozesua da: lehenengo ideia landu behar da, benetako negozio-aukera dela ziurtatzeko; bigarren pausua negozio-plana egitea da, bideragarritasun plana barne; ondoren finantzazioa, aholkularitza, diru laguntzak eta finantzazio kondizio onenak lortzen laguntzen diegu; gero, enpresa berria sortzeko egin behar diren tramiteak egiten ditugu; eta, azkenik, finkapena. Lehenengo bi urteetan jarraitzen ditugu, ekintzailea formatuz, eta aholkularitza eskainiz.

Ekintzaile horiek, gainera, lanpostuak ere sortzen dituzte.

Hasiara, batez beste, 1,8 lanpostu. Aurten, 330 mikroenpresa horietan 580 lanpostu sortu ditugu.

Mentoreen figura sortu duzue. Zer dira mentoreak eta nolako harremana dute ekintzaileekin?

Mentoreak eskarmentu handiko pertsonak dira, eta ekintzaileen problemak aurrean gauza izan behar dira beste ikuspuntu bat emateko, modu horretan arazoak ekintzaileak berak gainditu ditzan. Zeintzuk dira zuen erronkak aurrera begira?

Erronka kuantitatiboa dugu: gazteen inizatibaz enpresa berriak sortzen jarraitu nahi dugu. Bestalde, mikroenpresa berrien sarea sortu nahi dugu.

"Enpresa berriek, batez beste, 1,8 lanpostu sortzen dituzte hasieran"

Paul Rios | Lokarriko koordinatzailea

"Bizi dugun unea ametsa da gehienontzat, eta ez dago aitzakiarik ez aprobetxatzeko"

- Bake prozesuan aurrerapauso handiak egin direla dio, baina akordioak eskatzen ditu
- Martxoan emango du bukatutzat bere bidea Lokarrik; azken zereginetan dabilza kideak

IRATI GOITIA | ARRASATE

Bake prozesuaren egoeraz hitzaldia egingo du Paul Rios Lokarriko koordinatzaileak eguaztenean Bergaran, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

Ze egoeratan dago bake prozesua une honetan?

Azken bi hilabeteetan gertatutakoa bakarrik aztertzen badugu, esan dezakegu apur bat geldituta dagoela. Ez zait gustatzen, ordea, horrelako balorazioak egitea, nahiago nuke epe luzeagoa izatea kontuan. Alderatzia, adibidez, nola geunden 2009an eta nola gauden egun. Uste dut bake prozesua nahiko ondo doala eta aurrerapauso handiak egon direla. Batzuk aipatzearen: ETaren indarkeria bukatu da, alderdi politiko guztiak legalak dira eta biktimen aitortza defendatu da. Orokorrean, elkarbizitza sendotu da. Hala, uste dut ondo doala bake prozesua, baina, dudarik gabe, baditugu hemendik aurrerako erronka garrantzitsuak.

Hirutik, bigarren etapangaudela esan izan duzu. Zeintzuk dira etapa honetako helburuak?

Batetik, ETaren armagabetzea. Hasita dago, baina, dudarik gabe, oztupoak daude, bereziki, Espainiako Gobernuak ez duelako parte hartzen. Bestetik, presoaren egoera aldatu egin behar da. Haien giza eskubideak errespetatuak izan behar dira. Hirugarren helburua da pertsona guztien giza eskubide guztiak errespetatzea. Horretan aurrerapauso handiak egon dira, baina oraindik gauza asko daude egiteko. Amaitzeko, berradiskidetzera sendotu behar da. Horretan ere egin da aurrera. Horiekin bukatutakoan sartuko gara hirugarren etapari, helburua izango da bereziki bizikidetzara sendotzea, etorkizunean ez dadin iraganen gertatutakoa errepikatu. **Horiek dira helburuak, baina zein da hurrengo egin beharreko urratsa?**

Ez nuke aipatuko bereziki bat. Nik uste dut momentu honetan bakoitzak egin behar duela gogoea bat ikusteko zer egin dezakeen bake prozesua sendotzeko. Hainbat aktore daude, ez ETA eta Gobernuak bakarrik; baita alderdi politikoak eta gizarte bere osotasunean.

ETAk edo Gobernuak ezeregin ezean, alderdi politikoen akordioak izan behar dira bideak?

Dudarik gabe. Bake prozesuetan protagonismoa, normalean, izan dute erakunde armatuek -gure kasuan ETAk- eta gobernuek. Nik uste dut hori ez dela eredu izan behar. Protagonismoa euskal gizartearen eskuetan egon behar da.

Hala, ETAk ez du armagabetze prozesua garatu behar, Gobernuak beste zerbaitek egiteko; egin behar du euskal gizarteak behar duela. Eta alderantziz, Gobernuak ez du presoaren estrategia aldatu behar ETAk eskatzen duelako; baizik euskal gizarteak eskatzen duelako. Horregatik uste dut fokua egon behar duela euskal gizartearengan. Eta zentzu horretan proposamen ezberdinak egon behar dira euskal gizartearen nahia betetzeko. Azken inkestean arabera, euskal gizartearen nahia argi dago: %80k nahi du ETaren eta Gobernuaren arteko elkarriketa prozesu bat, %80k nahi du biktima guztien aitortza, espetxe politikan aldaketa... Hori da nahia, eta modua aurkitu behar da hori betetzeko.

Akordioetarako, Iparraldeko eta Hegoaldeko sentsibilitatea ezberdina dela esango zenuke?

Zalantzarik gabe. Hori agerian geratu da orain dela 15 egun aurkeztutako akordioarekin. Alderdi politiko guztietako ordezkariak sinatu zuten hitzarmen bat bake prozesua Iparraldetik bultzatzeko. Akaso, horrekin argi ikusten da zein ezberdina izan den gatazka Hegoaldean eta Iparraldean. Baina nik uste dut akordio hori garrantzitsua izan daitekeela aurrerapauso gehiago egoteko Hegoaldean. Espero dut hemen une honetan geldituta dagoen elkarriketa prozesua mugitzeko akuilu izatea.

Diozu gizarteak izan behar duela motorra eta akordioak akuilu. Hala ere, ez duzu uste armagabetze urrats handiago batek edo Gobernuaren besteren batek aurrera egiteko bultzada emango lukeenik?

Bai, zalantzarik gabe. Une honetan korapiloa bi puntu horietan dago: armagabetze prozesuan eta espetxe politikan. Korapilo hori askatzeko hiru aukera daude: aldebakartasunezko urrats berri bat ETaren aldetik, Espainiako Gobernuaren aldetik aldaketa bat edo hemendik alderdi politiko guztien edo gehien akordio bat. Nik uste dut bide bakoitzak bere abantailak eta oztupoak dituela, baina guk egin dezakeguna da alderdi politikoen arteko elkarriketa prozesu bat martxan jarri. Gogoeta izan behar da: guk zer egin dezakegu? Uste dut ez dagoela aitzakiarik parlamentuetan ez edukitzeko elkarriketarako gunerik.

Hauteskundeak ere bertan dira. Zenbat denbora gelditzen da elkarriketari horiek gauzatzeko?

Hauteskundeek beti sortzen dituzte zailtasunak eta oztupoak. Normala da, lehia guztiz ezberdina da. Alderdi politikoen epe motza-



Paul Rios, Lokarriko koordinatzailea. | LOKARRI

"Azken hilabetei begiratuz gero, bake prozesua apur bat gelditu dago"

"Protagonismoak euskal gizartearen eskuetan egon behar du"

"Lokarri desagertuta, ez da kideen nahia desagertuko"

ri begiratzen diote. Hala ere, ez dut uste baldintza izan behar denik. Guk betidanik proposatu izan dugu Alderdien Mahai bat eratzea. Batzuek horretarako instituzioak edo parlamentuak daudela erantzun izan digute. Une honetan, ETaren indarkeria amaitu denean, eta alderdi politiko guztiak legalak direnean, non dago arazoa? Zergatik ez jarri martxan Parlamentuan bake ponentzia bat? Ez dago benetako arrazoirik hori martxan ez jartzeko. Alderdi politikoen gogoeta eta autokritika bat egon behar da. Guztien aldetik, beste jarrera bat egon behar da. Unea aprobetxatu behar da. Hau ametsa da gehienontzat, eta ez dago aitzakiarik ez aprobetxatzeko. **Presoek damua erakustea beharrezkoa da aurrera egiteko?**

Damua ez. Gainera, betiko eztabaidetan sartzen gara. Nik uste dut presoaren aldetik garrantzitsua dela bizikidetzaren aldeko esfortzua egitea. Ez espetxe onurak

lortzeko; baizik euskal gizartearen elkarbizitza sendotzeko. Damua izan behar da bakoitzaren erabakia eta ez da derrigorrezkoa, baina, dudarik gabe, komenigarria litzateke haien aldetik autokritika egotea, datozen belaunaldiek jakiteko beste modu batzuk daudela gatazka konpontzeko, eta ez bakarrik indarkeria.

Auzitegi Nazionalen aurrera doaz hainbat epaiketa; horiek ere oztupo dira aurrera egiteko?

Dugun egoerarekin ezin ditut ulertu halako prozesuak. Pertsona guztiek askatasuna izan behar dute politikan aritzeko, eta bizikidetzara sendotzeko ezin da onartu horrelako askatasun murrizketarik.

Gaurko Memoriaren Eguna da. Ze garrantzi du iraganak?

Azken urteotan ikusi ditugu eztabaida gogorrak eta desadostasunak. Nik uste dut hori ez dela biktimen oroimena eta memoria gordetzeko bidea. Horretarako, adostasun zabal bat izan behar da, gizarte honek konpromisoa hartzeko eta etorkizunean biktima guztien sufrimendua oroitzeko.

Martxoan amaituko da Lokarriren bidea. Zeintzuk dira azken erronkak?

Martxan ditugun ekimenak amaitu nahi ditugu, eta konpromisoak bete. Bereziki, hiru aipatuko nituzke: batetik, bake prozesua sendotzeko Gizarte Foroa; bestetik, konpromisoa daukagu nazioarteko bitartekariarekin, eta kolaborazioari eutsiko diogu; azkenik, hainbat herritan eta bereziki Gipuzkoan bizikidetzako ekimenak martxan ditugu, eta horretan ere segimendu bat egon behar da. Asmoa da Lokarriren legatua ondo gordetzea, etorkizunean baliagarri izan dadin.

Nork hartuko dizue lekukoa?

Aipatutako Gizarte Foroa izan daiteke bat. Bestetik, hainbat talde eta elkarte lanean ari dira bake prozesuarekin lotutako ekimenean: Sare, Fernando Buesa Fundazioa, Baketik... Uste dut badirela esparru ezberdinak eta gizarte nahiko aktiboa izan dela azken urteotan. Lokarri izan da instrumentu bat gizartearen zati baten nahia bideratzeko, baina, Lokarri desagertuta, ez da kideen nahia desagertuko. Eta, dudarik gabe, dauden elkarrekin toki bat aurki dezakete interesa duten pertsonak. **Zuk non jarraituko duzu?**

Hogei urteren ondoren, nire asmoa ez da bake prozesuan ez parte hartzea. Ez daukat argi, baina, non jarraituko dudun etorkizunean. Orain, helburu nagusia da Lokarriren ibilbidea ondo amaitzea.

ZABALIK

PATXI OLABARRIA IRIZAR
goiena.net/komunitatea/



Sinboloen garrantziaz

Bandera espainiarra gure instituzioetan ikustean asaldatu egin ohi gara, gure herriaren aurkako eraso zuzentzat hartzen baitugu. Erreakzio hori ez da horrenbestekoa sinbologia frankistaren aurrean. Hala ere, memoria historikoa lantzen diharduten taldeei esker errealitate hau ere azaleratu egin da azkenaldian.

Badaude horiez gain ezkutuago dauden sinboloak, eta esango nuke larriagoak direla, ez baikara konturatzen gure begien aurrean ditugula eta gure izaeraren sustraian sartu dizkigutela. Azken hauek erakusten digute espainiarrek martxan jarritako asimilazio prozesua bere fruituak ematen ari dela.

Baieztape honen adibide garbia dira Antzuolako armarrarian orain arte izan ditugun 12 kanoiak, azaroaren 4ko udalbatzarrean zorionez gure armarrari ofizialetik kendu direnak. 12 kanoi hauek Errege Katolikoen alaba zen Juana *la loca*-k ezarri zituen Gipuzkoako armarrarian, gipuzkoarren eta nafarren arteko Belateko sasi-guda gogoratu nahian, euskaldunen arteko zatiketa betikotzeko asmoz. Orduan ere argi ibili ziren espainiarrak *Divide y vencerás* lema aurrera eramanez.

Zatiketa asmo hauen berri bazuen Agirre lehendakariak, eta 1936ko urriaren 19an dekretu bidez "euzkoen anai arteko gudak oroit-erazten dituzten xeetasunak kenduta" gelditu ziren, Eusko Jaurlearitza armarrarian Gipuzkoari zegokion eremutik 12 kanoiak ezabatuz. 1979an Gipuzkoako Batzar Nagusiek ere, Agirren bidea jarraituz, Gipuzkoako armarratik kanoiak kendu zituzten.

Ondoren etorri ziren Lizartza eta Zizurkil; Antzuola zen kanoi hauek zituen azken herria, eta orain antzuolarrok ere eman dugu pausoa. Agirrek hasitako bideari bukaera eman zaio.

Zirkulu bat itxi da, baina oraindik sinbolo arrotz asko ditugu *ezkutuan*; adibidez, konturatzen al gara Errealeko kamiseta janzten dugunean bihotzaren parean Borboien koroia daramagula?

USTEAK USTE

MIRARI ALTUBE | aretxabaleta@goiena.com

Kirola, egunero ordubete

Pediatraren gelan sartu eta gaztetxoek egunero egin behar dutela kirola esatea bat. Egunean ordubete. Ohitura osuntsuak izan ditzaten. Eta pentsatzen jarri naiz futbola ez den zein kirolean zaletu ditzakedan seme-alabak. Eskola kirola da futbolar gain beste kirol batzuk probatzeko ekimen bikaina: saskibaloia, atletismoa, herri kirolak... Eta nireak ere ibili dira eskola kirolean, hainbat urtetan ibili ere. Baina zaletu ez. Eta futboleko lekurik ez dutenean, zer egin? 13, 14, 15 urte... ez dira adin samurrak, eta kirola lagun izatea beti onuragarria. Hortaz, eskola kirolak osagai guztiak ditu gaztetxoak kirolera zaletzeko; ea osagai guztiok ondo nahasten asmatzen duen.

KALE INKESTA

Zer uste dute herritarrek ustelkeria kasuei buruz?



RAMON BARRUTIABENGOA
BERGARA

"Denbora luzean daudenak boterean, azkenean, horrelako gauzetan jausten dira. Eta oraindik kasu asko daude".



MAITE ZUBINAGA
BERGARA

"Ikusten zen, hainbeste diru faltak... nonbait egon behar zuen. Izan ere, mundu horretan anbizio handia dago".



MARIA JESUS PRIETO
BERGARA

"Ustelkeriaren kontrako erakunde eraginkor bat sortu beharko litzateke, horrelako kasu gehiago ez egoteko".



JUANTXO JIMENEZ
BERGARA

"Azken finean, horretaz bizi dira. Eskura daukate lapurtzea, eta, hain zuzen, horrela egiten dute bizimodu hori".

HANDIK ETA HEMENDIK

Athletica ikusteko... irratia nahiko

Luis Aranberri 'Amatiño'
eibar.org/blogak/amatiño

Euskal Irrati-telebistaren sareetako aurrengo teknikari nagusiak esan zigun orain hogeita hamar urte inguru: "Lehen mailako futbola ikusteko hobe telebisiñoa. Bigarren mailakoa jarraitzeko, ostera, irratia be nahikoa". Orduan aldrebeskeria samarra iruditu zitzaigun arren, hartaz gogoratu naiz bart, Athleticen partidaren emanaldia Euskadi Irratian entzuten ari nintzela.

Hogeita hamarren bat urte ETBk ekin ziola futbol-partidak telebistaz emateari eta, eskutan genuen baliabide berriak sortarazten zigun lilura haren inguruan, sarri filosofatu ohi genuen "genero" berriaren (telebista) eta zaharraren (irratia) arteko aldeak zekartzan onuzer eta hobariez. Eztabaida haieran Jon Aurre sare-arduradunak bota zuen bota beharrekoa [...]

Atzo ez nintzen San Mamesen izan [...] Euskadi Irratiari esker, Athleticen hondamendiaren berri jakiteko

abagunea izan nuen, zuzen-zuzenean gero. Baita Jon Aurre on puska zenaz gogoratzeko aukera ere.

Euskal Irrati-telebistaren sareetako lehen arduradunak erabat asmatu zuen, nonbait, Messi eta Ronaldo bezalako izarren jokoaz jabetzeko "ikusit" egin behar dela adierazi zuenean, ez dela nahiko entzutea, alegia. [...]

Athleticek (eta Realak) aspaldiotan erakusten diharduen joko-mailaz konturatzeko, ordea, ez dago irudi beharrik, ez dago telebista beharrik. Horretarako, Haritz Gallastegiren jarria, bihotza eta zirrara aski eta lar ere badira, gehien-gehienetan.

Gizatasuna usaindu nahi dut, besterik ez

Josune Azurmendi
argia.eus/blogak/josune-azurmendi/

Politika isilarazi nahiko nuke, politikoak gezurretan ez ibiltzea, horrenbeste hitz esan gabe egin beharrekoa egitea, ekintzen bidez hitz ustelak isiltzea, herriaren ahotsa kontuan izatea, berdintasunean

oinarrizten den gizarte bat eraikitzea, herriarekin eta herriarentzat lan egitea, ekonomia arloari irtenbide bat ematea, ekonomikoki herritar guztientzat onuragarria den plan bat eraikitzea, animalien tratu txarrak kulturatzat ez hartzea, kulturantzatasuna kulturartekotasunean bilakatzea, arraza orori eskubide berdinak ematea [...] osasun publikoa sustatzea, diruak duen boterea ezabatzea, naturaren ahotsa entzutea, hau kontutan hartzea, buruarekin jokatzeko, herritarrei ideiak ez inposatzea, hauek ez manipulatzeko, libre izaten uztea, kultura guztiak aintzakotzat hartzea, herritar guztiok eskubide berdinak ditugula jabetzea, eskubide hauek ez urratzea, hizkuntza bakoitzari dagokion balioa ematea, guztiak errespetatzea, gizakiak garela jabetzea, politikari duena baina balio gehiago ez ematea, politika burua jakintsua izatea, honen aurpegian faltsua ez den irri bat egotea, herritar guztien azalean jartzeko gai izatea, herritarrei irri egiteko arrazoiak ematea, herritar orori irri bat sortzeko gai izatea ... gehiegi amesten ari naiz ezta?

Hala dirudi!
Gizatasuna usaindu nahi dut, besterik ez.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Altor Izagire

Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Urbane Madera
Sailtako arduradunak Kabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna

Julen Iriondo

Maketaria Inaki Iturbe, Kepa Martelo

Argazkilaria Imanol Soriano

Publizitatea Mireia Larrañaga,

Amaitz Mundiñano, Zortza Martin,

Imanol Elortza

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate

Harpidetza eta banaketa Marta Leturia

Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

publi@goiena.com

HARPIDETZA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-88/2004

ISSN: 2174-369X

Tirada: 20.100 ale

Difusioa: 19.951 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlearitza
diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Goiena Klubako azaroko zozketak!

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



 **EROSKI**

Tableta

9" azbeteko Edertix tableta

Parte hartzeko sariaren izena:
Tableta



www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

Otarra
Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra.
Parte hartzeko sariaren izena:
Otarra



ARRIKRUTZ
o ñ a t i k o k o b a k

Sarrerak
Arrikutz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.
Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikutz



Jokoak
Nairobiarra jokoak, 2 joko ditugu
Parte hartzeko sariaren izena:
Nairobiarra



Jokoak
Kirolaz Badakit jokoak, 2 joko ditugu
Parte hartzeko sariaren izena:
Kirolaz

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

HERRIAK

ARAMAIO

Biomasa proiektuak aramaioarren atxikimendua behar du orain

- ▶ Herritarrak "modu zuzenean" informatzeko bilerak egingo dira azaroan zehar, bihar hasita
- ▶ Sentsibilizazio kanpainaren barruan esku-orriak banatu dira; erakusketa bat ere jarriko da

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaioko Udalaren legealdi honetako proiektu estrategikoa da biomasarena. *District Heating* du izena proiektuak; Aramaioko baso baliabideak aprobetxatuz, bertako egurra baliatuz –ezpala litzateke erregaia–, ur beroa lortzean datza. Proiektua errealitate bihurtzen bada –eta Udaleko ordezkariak sinistuta daude hala izango dela– ezpala Udalak erosiko luke eta etxebizitzaren jabeek aukera izango lukete euren egurra ere erabiltzeko. Gero, enpresa espezializatu batek galdarak instalatuko lituzke eta hura arduratuko litzateke banaketaz. Fakturazioaz, bestalde, Aramaioko Argindar Banatzailea enpresa arduratuko litzateke.

Hori guztia kudeatzen laguntzeko Biomasa Batzordea ere sortu zuten martxoan; Udaleko ingurumen arloko teknikariek, ordezkari politikoez eta gaian interes berezia duten herritarrek osatzen dute. Astero elkartu izan dira basoaren kudeaketa zehazten joateko.

Aramaioarren atxikimendua bila Udaleko ordezkariak aspalditik ari dira lanean erakundeekin diru-laguntzak lortzeko; Euskal Energiaren Erakundearekin harremana ona da, esaterako. Era berean, handia izan da Euskal Herrian zein Estatuan proiektuak piztu duen interesa. Izan ere, Udalak esku artean duen proiektua gauzatzen bada, Aramaio lehen herria izango litzateke herri-gune –hasieran Ibarran jarriko da– oso baterako energia iturria biomasa izaten.

Lan handia egin da orain arte eta heldu da herritarrengana jotzeko ordua: "Proiektua bideragarria izan dadin herritarren inplikazioa eta atxikimendua beharrezkoa izango da. Horregatik sentsibilizazio kanpaina diseinatu genuen, herritarrari proiektua azaldu eta onuren berri emateko. Era berean, aipatzekoa da ziklo guztia Aramaion hasi eta bukatuko dela. Hortaz, energia aldetik menpekotasuna asko murriztuko da eta hori oso garrantzitsua da guretako", adierazi du Ramon Ajuria alkateak.



Jon Toña, Idoia Beitia, Ramon Ajuria eta Xabier Arriolabengoa etxez etxe banatu diren esku-orriekin. | JOKIN BEREZIARTUA

Bilera informatiboak azaroan Sentsibilizazio kanpaina Arteman komunikazio enpresak diseinatu du eta dagoeneko aramaioarrek etxean jaso dituzte proiektuaren oinarriko informazioa azaltzen duten esku-orriak. Erakusketa

bat ere jarriko dute eta herritarrendako bilera informatiboak antolatu dituzte azaroan zehar; bihar egingo da lehena: "Ibarran bizi diren herritar guztiengana jo gura dugu uste dugulako modu zuzenean informatu behar zaiela.

Taldeka antolatu dira bilera horiek eta 50 bat etxebizitzetako bizilagunak daude deituta. Osoko bilkuren aretoan izango dira saioak, euskaraz eta gaztelaraz", dio Udaleko ingurumen teknikari Jon Toñak. Era berean, ingurumen zinegotzi Idoia Beitiak nabarmendu du Aramaiok energetikoki burujabe izateko gaitasuna duela: "Azpimarratzekoa da proiektu honek nolako eragina izango duen baso publikoetan zein pribatuetan. Aukera ematen du gure basoen ustiapen egoki eta neurtu bat egiteko. Behar den erregaia, egur guztia, Aramaioko basoetatik ekarriko da".

Fakturazioa, AAB-ren bitartez Gainera, Aramaioko Argindar Banatzailea enpresaren bidez kudeatuko litzateke energiaren fakturazioa: "Duela 35 urte agintariek erabaki zuten argindarra herrian bertan kudeatzea. Gaur egun berbera egin daiteke biomasarekin, aukera dugu guk geuk kudeatzeko, herrira onurak ekartzeko eta kostuak murrizteko", argitu du enpresako ordezkari Xabier Arriolabengoa Luki-k.

ESANAK

"Bideragarria izan dadin herritarren atxikimendua beharrezkoa da"

RAMON AJURIA | ALKATEA

"Egur guztia gure basoetatik ekarriko da, ustiapen egokia ahalbideratuz"

IDOIA BEITIA | INGURUMEN ZINEGOTZIA

"Bizilagunak taldeetan banatu dira, informazioa modu zuzenean emateko"

JON TOÑA | INGURUMEN TEKNIKARIA

"Aukera dugu guk kudeatu, herrira onurak ekarri eta kostuak murrizteko"

XABIER ARRIOLABENGOA | AAB

OSOKO BILKUREN ARETOAN BILERAK

AZAROAK 11

19:00 Bizente Goikoetxea plazako, Santa Kurtz abadearen plazako, Osteta kaleko, Matxain kaleko, Iturizuriko, Nardeagako (1 eta 7 zenbaki artekoak) eta Ibergoiako (1 eta 7 zenbaki artekoak) bizilagunak.

AZAROAK 12

19:00 Ibergoiako kaleko bizilagunak, 9A, 9B, 11, 13, 15 eta 17 zenbakiak.

AZAROAK 17

19:00 Ibergoiako kaleko bizilagunak: 6, 8, 10, 12, 12A, 14, 16, 18, 20, 22, 24, 26, 28, 30, 19, 21, 23, 25, 27, 29 eta 31 zenbakiak.

AZAROAK 18

19:00 Nardeaga kaleko bizilagunak, 8 eta 48 zenbakien artekoak.

AZAROAK 19

19:00 Aita Gabriel Jauregi kaleko bizilagunak.

AZAROAK 25

19:00 Pedro Inazio Barrutia kaleko bizilagunak: 1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7A zenbakiak.

AZAROAK 26

19:00 Pedro Inazio Barrutia kaleko bizilagunak: 8, 10, 12, 14, 16, 18, 20, 7 eta 9 zenbakiak.



Zapatu arratsaldean egin zuten Miniramp txapelketako argazkia. | IMANOL SORIANO

BERGARA

Maila handia egon da Lainoko skate txapelketan

Kontzertua eta auzoko txikiteroekin batera antolatutako parrillada ere egin dituzte

OIHANA ELORTZA | ARRASATE

Skatean ibiltzen ondo baino hobeto dakitela erakutsi zuten zapatuan Bergaran handik eta hemendik etorritako skaterrak. Bost urte bete ditu Laino skate guneak eta urteurren hori ospatzeko anto-

latu duten txapelketan parte hartzera etorri ziren zapatuan.

Besteak beste, Mallorcatic, Frantziatik, Madriletik, Bilbotik eta Kantabriatik etorritako ia 30 lagun ibili ziren lehia bi kategoriatan banatuta: 16 urtetik

gorakoak, eta azpikoak. "Izugarrizko maila egon da. Gutxitan ikusten da parte-hartzaile guztiak hain maila ona izatea", adierazi du Lainoko Hodei Elexpuruk. Nagusietan David Sanchez madrildarrak irabazi zuen; gaztetxotan, Romain Debauche frantziarrak.

Miniramp txapelketaz gain, baina, kontzertuak eta parrillada ere egin zituzten. "Parrillada antolatzen, esaterako, txikiteoan ibiltzen den auzoko koadrila batek lagundu digu. Ondo ospatu dugu bosgarren urteurrena, bai", adierazi du Elexpuruk.

BERGARA

Ikuskizun berria ekarri dute aurten Poxpolo Eta Konpainiak Osintxuko frontoira

O.E. | BERGARA

Urtero etortzen dira Poxpolo Eta Konpainia Osintxura sasoi honetan, *Azaroa gaztañatan* barruan. Aurten, gainera, ikuskizun berriarekin etorri dira. Ille apaindegia muntatu ordez, jatetxea jarri dute eta bezero militarra izan ordez, mexikarra joan zaie bazkaltzeko gogoz.

Osintxuko frontoia bete egin da beste behin. Horietako asko, gainera, urteroko ikusleak

ziren. Hala, ume askoko galdetu zioten Poxpolori zergatik ez zuten aurten Bixkor txakurra ekarri. Hala ere, kantuan, txaloka eta arretaz jarraitu zuten aurtengo ikuskizuna. Eta eurekin batera baita gurasoek ere. Batzuk, aktore lanean, eta beste batzuk eserita edo zutik. Hori bai, ipurdia ez zaie aurreko urteetan beste hoztu, aurten egurrezko eserlekuak zituzten frontoian-eta.



Poxpolo Eta Konpainia Osintxun domeka arratsaldean. | JOSETXO ARANTZABAL



ALMACENES ARRASATE

MERKATUKO MARKARIK ONENAK. Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



BERME
2
URTE

1000 b/min
6 Kg

A⁺ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA 3TS-853

275 €



BERME
2
URTE

1200 b/min
7 Kg

A⁺ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA VTO-720

330 €



BERME
2
URTE

1200 b/min
7 Kg

A⁺⁺⁺ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA WM12E467EE

360 €



BERME
2
URTE

1200 b/min
8 Kg

A⁺⁺⁺ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA WM12Q468EE

425 €



BERME
2
URTE

1400 b/min
8 Kg

A⁺⁺⁺ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA L-73486FL

435 €



BERME
2
URTE

144
x
55
x
60

A⁺ Saikapen energetikoa

HOZKAILUA SFES-2420

275 €



BERME
2
URTE

187
x
60
x
60

A⁺ Saikapen energetikoa

HOZKAILUA SFCNF 18520

399 €



BERME
2
URTE

A⁺ Saikapen energetikoa

ONTZI-GARBITZAILEA
ESF6521LOW

390 €



BERME
2
URTE

INDUKZIO PLAKA
EHH-6232FOK

360 €



LABE PIROLITIKOA
EEC2400BOX

360 €



BERME
2
URTE

INDUKZIO PLAKA
EH-631BL18E

375 €



LABE PIROLITIKOA
HB74AR521E

460 €

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik. Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3an.

Eskaintza baliagarria akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

OÑATI

Jendea dantzara erakartzeko lehen proba ondo atera da

Txistulariak, musika eskolako ikasleek eta Oñatzekoek hartu dute parte

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatiko txistulariek jendea ikusi gura dute dantzan Foruen plazan. Hala, pentsatu dute dantza egieko moduko piezak ere jotzea. Horixe egin zuten atzo, domeka, iluntzean. "Musika eskolakoak eta Oñatzekoak izan ditugu ondoan eta jende asko gerturatu da. Ordu erdiko saioa izan da eta kalean dantza egiteko moduko piezak jo ditugu. Lehen aldiz egin dugu, proba moduan, baina ikusi dugu jendea gustura egon dela eta litekeena da errepikatzea", dio Lander Diaz de Gereñu txistulariak.



Txistulariak kontzejupean jo dute eta dantzariak plazan jardun dute. | J.A.

Arrasateko txistulariek Gantzagan jo dute aurten ere

Arrasate Musikaleko txistulari talde batek Aramaioko Gantzaga auzoko jaietan jo du aurten ere. Duela hamar urte hasi ziren hango San Milixan jaietan txistu kontzertua eskaintzen, eta ohitura bilakatu da dagoeneko. Lehen urteetan egubakoitz gauetan jotzen zuten baina domeka eguerdira pasa zuten gero, eta halaxe egin dute aurten ere. Gantzagako elizan egin zuten atzo kontzertua auzotarren aurrean.



Domeka goizeko txistu kontzertua. | JONE INUNZIAGA

ARETXABALETA

Ume eta gurasoen laguntza behar izan dute 'Up' ikuskizunean

O.E. | ARETXABALETA

Musikak lagunduta, antzerkia eta zirkua, biak uztartu zituen Xabier Larreak domeka goizean Zaraia aretoan. *Up* ikuskizuna eskaini zien gerturatu zirenei, baina euren laguntza behar izan zuten prestatutako ariketak egiteko.

Malabarismoa

Hala, umeak eta gurasoak izan zituen laguntzaile titiritero arropak soinean jantzita zituen artistak. Oholtza gainean, hala ere, gauza gutxi: mahai itxura

zuen maleta handi bat bakarrik. Haren barruan, baina, baloiak, pilotak, puztu beharra zuten koloretako globo luzeak eta makila tolesgarri luze bat, besteak beste. Baita tximeletak edo arrainak harrapatzeko erabili daitekeen sare bat ere. Horri heltzeko eskatu zion, esaterako, aretoan zegoen mutiko bati eta berak bost pilotekin malabarismoa egiten bukatu ahala pilotak sarearekin jasotzeko esan. Ondo egindakoa txalotuz eta oker irtendakoari txistu eginez, inor ez zen aspertu.



Pilotak jasotzeko laguntzailea behar izan zuen Xabier Larreak. | O.E.

GAZTAINERRE

San Martin Agirre
herri eskola
BERGARA

egun!!!

"Gaztainerre eguna"
Azaroaren 14an ospatuko
dugu eskolan.

Arratsaldeko 15:45ean,
ikasle eta irakasleak
Haur Hezkuntzako patioan
elkartuko gara gaztainak jateko.

Senitartekoak gonbidatuta
zaudete jaiari parte
hartzera 16:30etik aurrera.

"Ohiturez baliatuz, etorkizuna eraikiz"



Vicky Sarries, Kulturaren eman zuen hitzaldia hasi baino lehen. | JOKIN BEREZIARTUA

Vicky Sarries | Moxal okelean aditua den irakaslea

"Kontsumorako haragien artean moxalarena da gozoena eta samurrena"

Moxal okelaren propietate onak eta horren gainean dagoen ezagutza falta nabarmendu ditu Sarriesek

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
Moxal okela jateko "hamaika arrazoi" daudela dio Vicky Sarries (Iruñea, 1972) Nafarroako unibertsitateko irakaslea. Doktore-tesia moxal okelaren gainean egin zuen eta Udala okela horren kontsumoa sustatu guran dabilenez, hitzaldia ematera gonbidatu zuen; e-postaz erantzun ditu GOIENAREN galderak.

Zergatik egin zenuen moxal okelaren gaineko doktore-tesia?
Nafarroan betidanik jan izan da

moxal okela baina ez da oso ezaguna eta, batez ere, ez da batere estimatua kontsumitzaileen artean. Zaldien sektorea esplotazio txikiez dago osatua eta hori erabat jasangarria da ingurumen aldetik. Finean, okela mota hori ezagutu gura nuen eta hortik sortu zitzaidan tesia egiteko nahia.

Zergatik gomendatuko zenuke moxal okela jatea?

Hamaika arrazoi daude. Moxalarena proteina gehien dituen eta gihartsuena den okela mota

da eta balio nutritibo handia dauka: gantz-azidoan oso aberatsa eta, aldi berean, gantz gutxi eta ekarpen kaloriko orekatua du. Era berean, burdina ere aberatsa da oso, 4-5 miligramo artean 100 gramo okelako.

Oso digestiboa da eta horren adierazle da hainbat urtez moxal okela errezetatu izan zaiela anemia nutritiboa zuten pertsonei; B12 bitamina maila ere altua du. Eta noski, zaporea ere kontuan hartu behar da, izan ere, moxal okela zati bat ahoan denbora batez izan ezkerro beste haragiengandik bereizten duen ukitu gozo hori atzeman daiteke. Kontsumorako haragien artean samurrena eta gozoena da.

Horren ona izanda, zergatik uste duzu jaitsi dela nabarmen okela mota horren kontsumoa?

Nire ustez zaldien arrazen hazkundearen egon den ezagutza eza oso handia da eta horrek seguruenik eragingo zuela gainbehera. Era berean, ez dut uste herritarrek ondo ezagutzen dutenik moxal okelaren propietate nutritiboak zenbateraino diren onak.

Hitzaldia eskaini zenuen urrian Kulturaren. Nola gogoratzen duzu?

Hitzaldia ondo egon zen eta bereziki osteko dastatzea izan zen interesgarria, okela oso samurra zegoen-eta. Arrasateko Udalarik eskertu gura diot moxal okelaren propietateak zabaltzen laguntzeko aukera eskaintzearren. Bertaratu zen jendeari eta hitzaldia zein dastatzea posible egin zutenei ere nire eskerrik beroenak eman gura dizkiet.

"Herritarrek ez dakite zenbateraino diren onak okela horren propietateak"

Adostu dira Etxaluze-Musakola bizikleta biderako irizpideak

J.B. | ARRASATE

Bizikleta Mahaia bi irizpide nagusi adostu ditu Etxaluze-Musakola bizikleta biderako. Batek, 30 kilometro orduko bada gehienezko abiadura bizikletek autoekin konpartituko dute errepidea, betiere egoerak, bideak eta espazioak hala egiten uzten badu. Eta, bestetik, bizikleta bidea egiterako orduan oinezkoek ez zaie tokirik kenduko. Ikastetxeek, zikloturisten

eta ingurumen, kirol, osasun eta aisialdi elkarteek zein Udaleko ordezkariak osatu dute Bizikleta Mahaia, 25 bat lagun: "Saiotan oso jarrera positiboa egon da, oso aberatsak eta emankorrak izan dira. Helburua lortu da eta sortu den dinamika aproposa izan da; aurrerantzean mahai egonkor bat izatea gura dugu, bizikletarekin zerikusia duen edozein proiektu lantzeko", adierazi dute Udaletik.

NIRE USTEZ

ANDER ETXEBERRIA



Gertatu aurretik

Erritualez inguratuta gaude, momentu jakinetan funtzio bat betetzen duten ekintza-sortak. Jaiak ospatzerakoan, ezkontzerakoan edo azken agurra ematerakoan, esate baterako, erritualen papera berebizikoa da. Kultura bakoitzak bereak ditu eta denboran zehar alda daitezke.

Hemen, azken garaian, iruditzen zait forma berezi bat zabaltzen ari dela, konturatu gabe-edo: zerbait egitea gure printzipioen aurka badago, eragozpena gaintu daiteke erritual batez; aurretiko omenaldi

bat. Duela gutxi kasu baten zentratu barik, ikurrinarena paradigmatikoa da. Gehiengoaren borondatearen aurka bandera espainiarra eraikin ofizialtan istilurik gabe jartzeko modua asmatuta dago: zintzilikatu aurretik, hemengoari gorazarre egitea besterik ez dago.

Osagai nagusi honen inguruan beste modu batzuk asmatu dira ezinegon baretzeko: eraikinean bertan plaka bat jarri inposizioaren berri emateko, herriaren dauden nazionalitate guztien banderen artean kokatu espainola, kaletik ia ikusten ez den lekuan jarri, eraikinaren inguruan ikurrina handiago bat ipini...

Ez daukagu Urkijo noiz etorriko den zain egon behar gureari gorazarre (errituala) egiteko. Eta munduko edozein herri normalatan gertatzen den bezala, bada garaia hiru kolorekoak bere haga izateko erdi aldean.

Askotariko ekintzak asteon Iturbide egoitzaren 30. urteurrena ospatzeko

J.B. | ARRASATE

Iturbide egoitzak 30 urte betetzen dituela-eta hainbat ekintza izango dira asteon. Gaur hasi eta egubakoitzera bitartean ia egunero egongo da zerbait. Gaur Abaroako erretiratuen abesbatzak emanaldia eskainiko du, 17:30ean. Bihar Diana txapelketa egongo da (10:00) eta etzi,

berriz, merienda berezia egongo da -croissant eta txokolatea- (16:00) eta omenaldia egongo zaie egoiliar beteranoenari eta zaharrenari (17:00); ondoren dantzaldia egongo da denondako. Ospakizun ekitaldiekin amaitzeko, egubakoitzean, hilak 14, bingo berezia egongo dute opariekin (17:00).

Arabako lautadara irteera hilaren 16an, Besaidekoen eskutik

Besaide elkarteak Arabako lautadara egingo duten urteko azken irteera antolatu du domekarako, hilak 16. Ibilbideak 19 kilometro ditu eta tartean, Orbara, Olano eta Albeniz mendiak zeharkatuko dituzte. Izena eman daiteke guar, bihar edo etzi elkartearen egoitzan, 19:30etik 20:30era.

Mahai jokoen txapelketak hilaren 27an, Abaroa elkarteak antolatuta

Abaroa erretiratu elkarteak askotariko mahai jokoen txapelketak antolatu ditu azaroaren 27rako. Parte hartu gura duten elkarteak bazkideek izena eman beharko dute Abaroako bulegoetan azaroaren 13an, 14an, 17an, 18an edo 19an. Bazkide txartela erakutsi beharko dute; txartela eguneratuta izan beharko dute.

Diario Co Latino egunkariko Francisco Valencia bihar Iratin

Francisco Valencia El Salvadorreko Diario Co Latino egunkariko zuzendariak hitzaldia eskainiko du bihar Irati tabernan, 19:30ean hasita. 120 urte baino gehiago dituen egunkari hori herrialdeko "ahots independentea eta kritikoa" da; Valencia 1989a ezkerro da agerkariko zuzendari.

TRANSIT GAMA BERRIA

5.700€-tik aurrera

MUGARRI AUTOAK

Arrasate
Araba etorbidea z/g
tel.: 943790744

Bergara
Amillaga 5
tel.: 670827186

Ford Transit gama; batez besteko kontsumo konbinatua 3,8-8,0 l/100 km. CO2 emisioa 100-184 g/km.
Ford Transit Courier Ambiente 1.0 EcoBoost 100 2P. Eskaintzaren barne dago deskontua FCE Bank PLC SRekin finantzazearren bidez. Ez dugu barne hartzen: BEZA, matrikulazio zerga eta garraioa. Gobernuaren Pive planaren ekarpenaren menpe. Penintsula eta Balear uhartertan baliagarria hilabetea bukatu arte. Ez da bateragarria beste deskontu batzuekin. Irusten den modeloek ez dauka zertan eskaintza izan. **Ford.es**

Jostailuei beste aukera bat eman, eta ia berriak jasotzeko merkatua

Lehen aldiz, eta abenduko jostailu truke merkatuari hasiera emateko, ohiko truke azokaren barruan, jostailuak bilduko dira Azoka plazan

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Gabonen aurretik jasaten dugun iragarki zaparradak gure telebista eta postontziak bete baino lehen, berrerabilera bultzatzeko asmoz, jostailuen bilketa egingo du Txatxilipurdik. Ekimen honekin jostailuekin ematen den gehiegizko kontsumoa murriztu nahi du elkarteak.

Etxeko txikiek erabiltzen ez dituzten, eta egoera onean dauden, jostailuak eramaten dituztenei, txartel bat emango zaie eta ondoren txartel bakoitza beste edozein jostailugatik aldatzeko aukera izango dute.

ElkarTruke azokan baita

Azoka plazan egiten den ElkarTruke Azokak ekimen honekin bat egingo du, eta ohiko postuez gain, jostailuak biltzeko tokia izango da bertan.

ElkarTruke Azoka zapatuan izango da, goizeko 10:30etatik 13:30etara, eta 11:30etatik 13:00etara, jostailuak biltzeko txokoa egongo da. Esan beharrik ez dago,



Mota guzietako jostailuak trukatu daitezke. | GOIENA

baina egoera onean dauden jostailuak besterik ez dira batuko. Gainontzeko tokietan bezala, hemen ere, jostailu truke merkatuan erabiltzeko txartelengatik trukaturiko dira.

Jostailuak nora eraman

Zapatuko ez ohiko trukea ez ezik, azaro eta abenduan zehar, jos-

tailuak txartelegatik trukatzeko data eta toki ugari egongo dira, guztiak 17:30etatik 19:00etara: azaroak 26 (Arimazubi plazan), azaroak 27 (Santa Marinako ludotekan) eta azaroak 28 (Herriko plazan). Abenduan, oster, 3an (San Antolingo parkean), 4an, (Usaetxeko ludotekan), 10ean (Santa Marinako ludotekan), 11n

(Okendoko ludotekan) eta 12an (Arimazubi plazan) izango dira jostailuak jasotzeko egunak. Abenduko jostailu bilketa ere 17:30etatik 19:00etara egingo da.

Bilketak toki guztietan prozedura bera izango du. Gaztetxoek eroaten duten jostailu bakoitzarengatik txartel bat jasoko dute, eta truke merkatuan beste jostailu bategatik aldatzeko beharko du txartel hori. Haurrak jostailu gehiago eroaten baditu, txartel gehiago jasoko ditu.

Jostailuak trukatzeko eguna

Jostailu guztiak batu, eta egoera onean daudela egiaztatu ostean, multzo ezberdinetan sailkatuko dituzte Txatxilipurdiko langileek. Horren ostean, truke egunaren txanda izango da.

Abenduaren 13an egingo dute truke merkatua, eta nola ez, Azoka plaza jostailuz beteko da. Eki-menarekin bat egiten duten haurrek kamioi, mahai jolas edo panpina berriekin bueltatuko dira euren etxeetara.

Tenpora tolosarren doinu lasaiak koolturen

I.G. | ARRASATE

Kooltur ostegunak kontzertu zikloan, musika era ezberdinek entzuteko aukera izaten da. Aste honetan, Tenpora taldea izango da protagonista, folk, pop, jazz eta bestelako estiloak ezberdinak uztartuz.

Tenpora taldea

Tolosan sortutako taldea da Tenpora. Bere doinuetan tempo xamur baina oso barnerakoia eta sentikorra helarazten du. Juantxo Zeberio (teklatuak) musikari eskarmentuduna da berorren bultzatzaile nagusia, eta alboan ditu Hasier Oleaga (bateria), Itsaso Etxebeste (baxua), Beñat Barandiaran (gitarra) eta Elene Arandia (ahotsa), guztiek bagaje eta ibilbide luze zein emankorra dute atzean.

Taldeak naturari, eguraldiari, bihozkaidei erreparatzen dio, eta lehen lanean, Karlos Linazasoro eta Harkaitz Canoren hitzak musikatzen dituzte. Bigarren lan honetan soinua borobilagoa lortu dute.

22:00etan hasiko da kontzertua eta sarrerak bost eurotan eskura daitezke.

NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | blogak.goiena.net/nerearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress



"Herriko pertsonaiarik inportanteena da Juan Carlos Gerra"

Sebero Altuberen lagun haundixe izen zan Jose Antonio Arana Martija; gaiñera, harro euen, Altubek itxiteko postue bete euelako Euskaltzaindian.

Mondrauera etorri zan Arana Martija, Jokin Zaitegiren omenez organizauteko ekintzetan parte hartzeko, eta Mondraueko hiru persona inportanteren gaiñien berba batzuk egin zittuen: Juan Carlos Gerra, Sebero Altube eta Jokin Zaitegi. Hamen, labur, harek esandako batzuk:

"Arrasateko pertsonaiarik garrantzitsuena da Juan Carlos Gerra; Arrasateko historia ezagutzeko, Gerra ezinbesteko gizona da; eta bere garaiko euskaltzale guztiekin harremanak zituen".

"Sebero Altubek proposatzen zuen hizkuntza ikasterakoan sintaxia eta gramatika ikasteaz gain, tonologia ere ikasi behar dela.

"Zaitegik, euskararengatik, euskara defendatzeagatik edo euskara ikasteagatik jesuita

izateari utzi zion".

Zarugaldeko jaixek

San Agustin egune zan, Zarugalde kaleko patroien egune, 1953ko agostuen 28xen; zarugaldeetarak ugarixo-harrapakete organitzau euen.

Gutxi ibilli zien ugarixuek harrapatzen, baiñe jente pillue batu zan, Muxibar ondoko rotandan: argazkixen dauena Aramaio errekie da. 1970eko hamarkada bukaeran tapau euen hor ikusten dana, baitte eskumakaldien ikusten dan presie; presaren azpixen, angilak, zarbuek, ezkailluek, kangrejukek-eta harrapatzen zittuen jentiek.

Ur haundixekin, Muxibarko Esteban Etxabek ezkaillutan urteten euen eta Lagunilla tabernako Baratillo-k kañaberiez harrapatzen zittuen ugarixuek.

'Joxean's Hileben' filma eskainiko dute egubakoitz gauean gaztetxean

I.G. | ARRASATE

Kritika, fantasia eta umorea batzen dira Joxean's Hileben filmean. Zombie eta banpiroei buruz egin den film original hau 22:30ean eskainiko dute doan.

Umorea eta satira

Zumalakarregi berpiztu ondoren, Jon Tomas eta Josu-Jon Tomas

zientzialariek XIX. mendean hildako soldadu karlistak lurpetik atera eta berpizten hasten dira. Zonbi plaga honek Partidu Nazionalista Banpiroko kideen nagusigo politikoa eta biziraupena kolokan jarriko ditu, kinka honetatik ateratzeko modurik onena Agirre lehendakaria esnatzea dela erabakiko dutelarik.



Guipuzcoanoko hesia kendu dute

Azken urteetan zeresan handia sortu duen hesia kentzea erabaki dute Sabadell Guipuzcoanoko arduradunek. Bankutik azaldu dutenez, lan hauek sukurtsala bistartzeko egin dira. Helburu horrekin, kalera ematen zuen hesia kentzeaz gain, sukurtsalaren sarrera zabalduta eta egun dauden loreak kendu ostean, lorategi baxu bat ere egingo dute.

Jon Berasategik hasiko du gaur mendi hamabostaldia

Bost mendizalaren proiektzioak ikusteko aukera egongo da 19ra arte

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Pol-Pol Mendizale Elkarteak eta Gorla Alpinok antolatuta, Mendi Hamabostaldia egongo da gaur, azaroak 10, hasi eta hilaren 19ra arte.

Mendiko jardunaldiotan proiektzioak izango dira oinarria, baina mendi irteera bat ere egongo da. Proiektzioetan, gainera, Bergarako zein kanpoko mendizaleek egindako lana ikusteko aukera egongo da eta protagonistak eurak ere bertan egongo dira, azalpenak emateko eta herritarren galdera eta zalantzak erantzuteko. Parte hartuko duten mendizaleak dira: Jon Berasategi, Mikel Linazisoro, Benito Cantero, Javier Camacho eta Alex Txikon –ondoko taulan ikus daiteke zein egunetan egongo den bakoitza eta landuko duen gaia.

Beteranoen irteera

Irteerari dagokionez, azaroaren 16an izango da, eta egun osoko irteera izango da. Honako ibilbide hau egingo dute Pol-Poleko beterakoek: Buradon-Gatzaga-Tolono-Ribas de Tereso. 08:00etan abiatuko dira Fraiskozuritik eta bidaiaren eta bazkariaren prezioa 35 euro da. Interesatuak izena elkartearen bulegoan eman beharko dute, edo 943-76 48 51 telefono zenbakian.

Bulegoa astelehenetik eguaztentera egoten da zabalik, 19:00etatik 20:00etara.



10 BIDAI, 10 MUNDU

JON BERASATEGI | Bergara

Azaroak 10

Munduan barrena egindako trekkingetan ikusitako mendi, aurpegi, animalia eta paisaiak erakutsiko ditu. Andeak, Sahara, Karakorum eta Himalaia, esaterako.



ELURRA ETA HARKAITZA

MIKEL LINAZISORO | Bergara

Azaroak 13

Pirinioak izan ziren bergararren lehen eskola, bai eskiatzen, baita eskalatzen ere. Hori gaindituta, haren ibilbideak ez du mugarik.



DOLOMITAK

BENITO CANTERO | Bergara

Azaroak 17

Batzuek diote munduko mendirik ederrenak direla, baina Canterok baieztatu egiten du hunkitu egiten dutela, eta, imana balute bezala, erakarri.



MANASLU, ESPIRITUAREN MENDIA

JAVIER CAMACHO | Iruñea

Azaroak 17

Manasluri buruzko zenbait argazki erakutsiko ditu, mendi hori igotzeko egin zuen espedizioaren bideo zati batzuekin batera.

Emanaldi guztiak 19:30ean izango dira, Irizar jauregian



LA GRAN TORRE DEL TRANGO

ALEX TXIKON | Lemoa

Azaroak 19

5.200 metrora zela, munduko pareta bertikal garaiena ez igotzeari zergatik uko egin zion kontatuko du eta Torre Sin Nombrez ere arituko da.

Txapa Irratiak 30 urtez uhin askeak astintzen dihardu eta ospatu egingo dugu

Azaroaren 15ean, zapatua, Txapa jaia egingo dugu gaztetxean

KOMUNITATEA GOIENA | TXAPA IRRATIA | BERGARA

Txapa irratiak 30 urte bete ditu. 262.800 ordu. 15.768.000 minutu. Erraz zenbatzen dira, baina bada marka. 1984 hartan Bergaran komunikazioa beste era batean ulertzen zuen gazte talde bat bildu zenetik asko aldatu dira gauzak, asko aldatu gara gu geu ere. Baina nolabait hasi baginen kalea hartzen, uhinak okupatzen izan zen. 30 urte hauetan kontakizun askoren ahotza izan gara, orain gurea erreparatu eta ospatzeko garaia heldu da. Urtemuga ganoz ospatzeko, ikasturte osoan izango baditugu ere ekintzak, udazkenean fokalizatu ditugu gehienak.

Txapa jaia, gaztetxean

Azaroaren 15ean Txapa Irrati librearen 30 urteak ospatzeko Txapa jaia egingo dugu Bergarako gaztetxean. 12:00etan gaztetxetik abiatuta poteoa egongo da txaranga batez lagunduta. 14:30ean bazkaria eta bazkalostean, The Potes taldearen kontzertua.

Bazkarirako txartelak Pol Pol, Arrano eta Kortazar tabernetan daude salgai 12 eurotan.

The Potesen kontzertua

The Potes taldeak The Pogues talde ezagunaren eta genero bereko beste talde batzuen –The Mahones, Flogging Molly, RIP...– bertsoak egiten ditu. Berezitasunaren

barruan, doinua instrumentu akustikoekin –gitarra akustikoa, akordeoia, banjoa, baxua...– egiten dutela dago, Irlandako eta Ameriketako Estatu Batuetako musika ukituekin. Erritmo bizi eta dantzagarriekin.

Bestetik, esperientzia handiko musikariz osatutako taldea da. Urte askoan oholtza gainean ibilitakoak dira. Eta RIP taldeko Jul da taldeko banjo-jotzailea, Dirty Brothers-eko Salarekin eta beste batzuekin batera.

The Potes musika taldearen kontzertua 97.2 frekuentzian *Mokolo*-ren bitartez entzun ahal izango da, edota www.txapairratia.org webgunean, zuzeneko *streaming* bitartez.

EH Bilduk batzar irekia deitu du hilaren 12rako, eguaztena

Eguaztenean batzar irekia egingo du EH Bilduk, 19:00etan, Miguel Altunan. Maiatzean egingo diren udal eta foru hauteskundeak prestatzen hasteko momentua iritsi dela diote EH Bildutik. "Bergararren ahotza" izan nahi dute Udalean, eta, horregatik, "programa eta hautagaitza zein izango den herritarrek aukeratzeko dute". Izan ere, EH Bilduren konpromisoa da "herritarrek Bergara hobea eraikitzeke erabakitako lehen-tasunak praktikara eramatea".

Gauzak horrela, bi puntu izango dira batzarreko gai nagusiak: hautagaiak proposatzea eta programa egiteko lan taldeak osatu eta metodologia ezagutzea.

EH Bildutik herritar guztiak gonbidatzen dituzte batzarrean parte hartzera.

NIRE USTEZ

IGOR OIARBIDE



Nerabeen arazoak

Nerabezaroon, gizaki ororen garapen etapan, gazteengan aldaketa zailak ematen dira, antsietatea eta depresioa sortzen dizkietenak, askotan, suizidio saiakerara eramaten dituztenak. Saiakera horrek depresioaren arazoa bizipen existenzial bezala planteatzen du eta nerabetzaren benetako krisialdi bezala.

Gaztearengan, heriotzaren ideiarekin manipulazioa sarri gertatzen da. Bereizi behar da, ordea, suizidioan bere desadostasuna adierazteko pentsatzen duen gaztearen artean eta benetan suizidatzen denaren artean.

Nerabeen buru-hiltzea isilpean mantendu ohi da talka egiten duelako eta bizi garen giza eta familia sistema zalantzan jartzen duelako; alabaina, garrantzitsua da ezagutzea eta hausnartzea gazte bat bere burua suntsitzera eramaten duten arrazoiak, baita ekintza honen arrazoia jakin eta aurreikusitu ere.

Gugandik gertu neraberen baten portaerak aditzera ematen badu bere buruaz beste egiten saiatuko dela, jar dezagun arreta seinale horietan, zeren bere arazoa gainditzeko behar duen babesa eman diezaiogegu.

"Nerabezaroon, garapen etapan, aldaketa zailak ematen dira"

Alex Molanoren argazkiak Nahikarin daude ikusgai

Azaroan barrena argazkilaria bergararren 56 lan ikusteko aukera egongo da Nahikari tabernan. *Instante paraleloak* erakusketan, hainbat irteeratan egindako irudiak batu ditu argazkilariak.

Arimen Eguna ospatuko dute gaur osintxuarrek

Azaroa gaztañatan egitarauaren barruan, Arimen Eguna ospatuko dute gaur, astelehena, osintxuarrek. 19:00etan, gaztainak eta sagardoa banatuko dituzte, eta 21:00etan, berriz, afaria egongo da, Txuringin.



Institutuko ordezkariak, Kurasaalean jaso zuten diplomarekin. | IPINTZA INSTITUTUA

Ipintzak Eskola Jasangarria titulua berritzea lortu du

Titulu horrekin, Ipintza IRAES 21 Eskola Jasangarrietako kide izan daiteke

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Eguaztenean lortu zuen Ipintza Institutuak Eskola Jasangarria ziurtagiria berritzea. Institutuko ordezkariak, Kurasaalean, Hezkuntza eta Ingurumen sailak antolatutako Ingurugelaren 25. urteurren ekitaldian jaso zuten.

"Ingurumena eta ikastetxea zaintzeko eta hobetzeko eskola komunitate osoak egindako ahalgintaren fruitua da ziurtagiri

hau", diote Ipintzako ordezkariak. Aitorpen garrantzitsua den arren, Institutuak bide beretik jarraitzeko asmoa dauka.

Komunitatearen konpromisoa Institutuan 2005ean ekin zioten Eskola Agenda 21 proiektuari. Ordutik hona, ingurumenarekin zerikusia duten gaiak jorratu dituzte. Horrez gain, baliabide-kudeaketa hobetzeko jarduerak

garatu eta ingurumenarekiko konpromisoa bultzatu dute ikastetxe zein herri mailan.

Ziurtagiriak norabide onetik doazela erakusten duen arren, Ipintzan ez dute ahaztu ingurumen heziketa "eguneroko erronka" dela. Horregatik, eskola komunitatea osatzen duten guztiek tinko jardungo dutela ziurtatu dute, "ahuleziak gainditu eta hartutako konpromisoa sendotzeko".

Egoiliarrekin ospatuko dute astea Mizpirualden

Urtero moduan, sei egunean ederto pasatu eta gero, zapatuko bazkariarekin amaituko da astea

I.G. | BERGARA

Urteko aste alaiarenari ekingo diote Mizpirualde egoitzan. Gaur hasi eta zapatara arte, egoitzaren astea ospatuko dute, eta, egoiliarren gozamenerako, egunero ekintza bereziak izango dituzte.

Arratsalde animatuak

Bertako egoiliarren erosotasunerako, ekintzak arratsaldeetan egingo dira. Antzinako irudiz osatutako diaporama batekin hasiko dute astea, eta ondoren, musika eskolako hari taldeak kontzertua eskainiko du.

Egoiliarrek musika oso gogoko dutenez, antolatzaileek egunero kontzertu bat antolatu dute. Bada, hari taldea ez ezik, Mizpirualden klarinete, akordeoi eta abesbatzen emanaldiak izango dituzte. Horrez gain, dantza eta antzerki ikuskizunak ere egongo dira. Oroimenak taldeak *Verdi que te quiero Verdi* taularatuko du egubakoitzean. Herriko Candem Town akademiak eta Moises Azpiazu dantza taldeak dantza erakustaldia egingo dute.

Urtero moduan, asteari amaiera emateko, zapatuan mezaren ostean bazkari berezia egongo da egoitzan. Bapo bazkaldu eta gero, Alai taldeak girotuko ditu otordu osteko uneak. Seguruenez, egoiliarrek ez ezik, familiakoak ere animatuko dira proposatutako ekintzetan parte hartzera.

ASTEKO EGITARAUA

AZAROAK 10

17:00 Diapositiba erakustaldia.

18:15 Hari taldearen emanaldia.

AZAROAK 11

18:00 Dantza erakustaldia.

18:30 Abesbatza eta akordeoi emanaldia.

AZAROAK 12

17:00 Oliver magoa.

18:15 Trikitilari eta gitarra emanaldia.

AZAROAK 13

17:00 Salsa, merengea eta kizomba.

18:15 Ganbara musika eta klarinete emanaldia.

AZAROAK 14

17:00 *Verdi que te quiero* antzerkia.

18:15 Dantza emanaldia.

AZAROAK 15

11:45 Meza.

13:00 Bazkaria eta erromeria.



Lapurreta salatzeko egindako prentsaurrekoa. | AMAIA TXINTXURRETA

Lapurretak 4.000 euro inguruko kaltea eragin du gaztetxean

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Gaztetxean eguen goizaldean lapurreta egin zuten. Kartzela zaharreko txoko guztietan ibili ziren, eta musika ekipo bat, argazki kamerak, dirua eta beste hainbat gauza eraman zituzten.

Ekintza hori salatzeko, prentsaurrekoa egin zuten eguen iluntzean Irala kalean, eta bertan, esan zuten gaztetxea eta euren proiektua maite duten

guztien aurkako eraso izan dela lapurreta.

Gazte Asanbladako kideek gaineratu zuten ez dietela lapurtu lanerako gogoia eta ondo pasatzeko grina eta euren ametsak egia bihurtzen jarraituko dutela. Bada, gaztetxea udal eraikin bat denez, Udalak salaketa jarri du. Asanbladako eraso salatzeko ekimenekin jarraitzeko asmoa dauka.

Osintxu, hitzaldiak eta Kafekonpon saioa dira aste honetako agendako protagonista

I.G. | BERGARA

Osintxun, *Azaroa gaztañatan* ekimenaren barruan, Mikel Garizabalen eskutik ardo eta txakolin dastaketa izango dute Txuringo tabernan.

Ospakizunekin lotzen diren ardoaren eta txakolinaren sekretuak ezagutu nahi dituztenek 3 euro ordaindu beharko dituzte.

Eguaztenean bi hitzaldi

Jardunek gonbidatuta, Jon Arretxe idazleak *11 bidaiak*, *11 ipuin* izeneko ikus-entzuzkoa aurkeztuko du eguaztenean, 19:00etan, Irizar jauregiko areto nagusian. Arretxek egindako bidaien errepaso egingo du.

Paul Riosek, Lokarriko koordinatzaileak, 19:00etan, eguazte-

nean, osoko bilkuren aretoan, *Bake prozesuaren egoera* izenburuko berbaldia egingo du.

Kafekonpon saioa

Eguaztenean, berriz, Kafekonpon saioa egingo dute San Joxepe erretiratuen elkarterko lehen solairuan, 16:00etan. Bada, betiko moduan, aukera ezin hobea da elkarrekin kafetxo bat hartuz eta elkarrengandik ikasiz, jendeak etxean hondatuta dituen trasteak konpontzeko.

Eguaztenero beteko da Oxirondo

Hileko lehen eguaztenero azokak izandako arrakastaren ostean, aurrerantzean, eguaztenero egongo dira baserritarak Oxirondon. Azoka txikiagoa izango den arren, gertuko produktuak erosteko aukera egongo da etzi.



ANDONI MUGIKA



Porrotaren alde hitzaldia emango du Iñurategik hilaren 18an. | DESNIVEL.COM

Bihar hasiko da aurtengo mendi hamabostaldia

Argazki lehiaketara aurkeztutako hainbat lanen erakusketa gaur, astelehena, zabalduko dute

KOMUNITATEA GOIENA | OÑATI
ALONIA MENDIKO MENDI SAILA

Bihar, martitzena, izango da aurtengo mendi hamabostaldirako antolatu ditugun ekintzetako lehena. Hitzaldiak, erakusketa eta zine emanaldia antolatu ditugu, besteak beste. Saiatu gara aurten ere intereseko ekintzak antolatzen eta jendearen gustukoak izatea da gure nahia. Denak dira doan, eta denak kultura etxean.

Erakusketa, hori bai, gaur, astelehena, bertan zabalduko dugu kultura etxeko erakusketa gelan. Argazki lehiaketara aurkeztutako lan batzuk egongo dira ikusgai; hilaren 23ra arte egongo da zabalik, egunero. Bestalde, zineklubeko lagunek bat egin dute gurekin aurten ere eta hilaren 20ko filma mendiaren ingurukoa da.

EGITARAUUA

AZAROAK 11

19:30 Segurtasuna mendian hitzaldia.

AZAROAK 14

19:30 Argazki proiektzioa eta sari banaketa.

AZAROAK 18

19:30 Alberto Iñurategiren hitzaldia.

AZAROAK 19

19:30 Ikus-entzunezkoa.

AZAROAK 20

20:00 Zinekluba.

Zoroen Itsasontzia bisitatu dugu Pasaian

Elkar Heziko guraso elkarteak antolatuta, 55 lagun joan gara eta oso ondo pasa dugu

KOMUNITATEA GOIENA | OÑATI
ELKAR HEZIKO IKASTETXEA

Elkar Heziko guraso elkarteak antolatuta, Pasaian atrakaturako dagoen Zoroen Itsasontzira egin genuen bisita 55 laguneko zapatuan, azaroaren 8an.

Bertan, Zorountzia antzerki konpainiak eskainitako

ikuskitunaz gozatzeko parada izan genuen. Haiek zuzendutako musika komedia, ipuin kontalari eta antzerki barregarriaz disfrutatzeko aukera izan genuen, horretarako apropos atondu duten arrantzarako altzairuzko belaontzian.



Zapatu iluntzean izan zen antzezlan Pasaian. | ELKAR HEZI

Mikel Biain, berriz ere hautagai izateko gertu

EH Bilduk prozesu bat jarraitu eta urtarrilean izendatuko du alkategaia

JULEN IRIONDO | OÑATI

Datorren urteko udal hauteskundeetara bitartean EH Bilduk egingo duen bideari buruz jarduteko agerraldia egin, eta bertan adierazi du Josu Lizarralde berriz ere hautagai izateko "babes zabala" duela Mikel Biain egungo alkateak. Biainek berak ere agertu du prestutasuna EH Bilduren proiektua gidatzen jarraitzeko, baina, Lizarralderen arabera, horretarako beharrik egotea aurreikusten ez bada ere, koalizioak barne prozesu bat irekiko luke alkategai izateko asmoarekin beste lagunaren bat agertuko balitz. Urtarrilaren 17an izendatuko dute alkategaia.

Hain justu ere, egun horretan emango dute bukatutzat EH Bilduk udal hauteskundeetara begira egiten diharduen prozesuaren bigarren fasea, martxan jarri berria dutena.

Lau fase denera

Aurreneko fasean 30 lagun inguruk hartu dute parte. Irailean hasita, oinarri ideologikoak zehazten ibili dira, lantaldeetan banatuta. Programaren lanketarekin hasteko, honako lantaldeak sortu zituzten: sozioekonomia, gizarte politika, lurralde antolaketa, aniztasuna, kirola, hizkuntza, hezkuntza, kultura, politika feminista eta gazte politika, horietako zenbait azpi-lantaldeekin.

Orain, bigarren fasearen barruan, zapatuan, hilak 15, lehenengo hauteskunde tailerra egingo dute; tailerra irekia izango da. Lantaldeetan batu eta orain arteko lanketaren balantzea egingo dute. Honez gain, definituta dauden zenbait plan eta azterketa aurkeztuko dituzte, ideia ekaitza egin eta parte-hartzaileen proposamenak jaso. Gero, urtarrilaren 17ko bigarren tailerrera bitarteko denbora izango du lantalde bakoitzak bere alorraren lanketa egiteko. Tarte horretan, edozein herritarrek nahi badu ekarpenen bat egin onati@ehbildu.net helbidea jarri dute eskura. Eta bulegoa zabaltzeko asmoa ere badute, lan bilerak egiteko eta herritarren proposamenak bertan ere jasotzeko.

Bigarren hauteskunde tailerlean, urtarrilekoan, lantalde bakoitzak bere proposamena aur-



EH Bilduk egubakoitzean egindako agerraldia. | IMANOLSORIANO

nengo hauteskunde tailerra egingo dute; tailerra irekia izango da. Lantaldeetan batu eta orain arteko lanketaren balantzea egingo dute. Honez gain, definituta dauden zenbait plan eta azterketa aurkeztuko dituzte, ideia ekaitza egin eta parte-hartzaileen proposamenak jaso. Gero, urtarrilaren 17ko bigarren tailerrera bitarteko denbora izango du lantalde bakoitzak bere alorraren lanketa egiteko. Tarte horretan, edozein herritarrek nahi badu ekarpenen bat egin onati@ehbildu.net helbidea jarri dute eskura. Eta bulegoa zabaltzeko asmoa ere badute, lan bilerak egiteko eta herritarren proposamenak bertan ere jasotzeko.

Bigarren hauteskunde tailerlean, urtarrilekoan, lantalde bakoitzak bere proposamena aur-

keztuko du, eta garrantziaren arabera sailkatuko dituzte guztiak. Proposamenak bozkatu eta hautatuko dituzte hirugarren fasean, eragileekin kontrastatuta programa burutuz, eta hauteskundeetarako zerrenda osatu ere egingo dute. Zerrenda eta programa jendarteratzea izango da laugarren faseko lana.

EH Bilduko kideek egubakoitzean agerraldian adieraz zuten "burujabetzan eta eraldaketa sozialean sakontzeko" eta EH Bildu indartzeko aukera direla hauteskundeok, aurrekoak irabazita hasitako bideari jarraitzeko: "Sinesgarriak garela frogatu dugu; oposizioak iragarri zituen pronostiko txarrak ez dira gauzatu", zioen Lizarralde, hauteskunde berriak "errebalida" izango direla gaineratuz.

Realzaleen taldeak egin du ateratako txartelen zozketa

Hauek dira Txantxiku Txuriurdin lagunarteko zozketaren zenbaki sarituak: lehenengo saritua 2551 zenbakia da eta bigarrena, 1155. Ordezko zenbakiak, hurrenez hurren: 0947 eta 0713. Txartel saritua dutenek Izarraitz tabernan aurkeztu behar dituzte dagokien saria jasotzeko. Hilabeteko epea dute horretarako.

Txantxiku Ikastolak bilera du bihar, 50. urteurrena prestatzeko

Txantxiku Ikastolak 50 urte egingo ditu 2016-2017 ikasturtean eta bihar, martitzena, bilera irekia egingo du ospakizunak prestatzen hasteko. Bilera honetara ikastolako langile, guraso zein lagunak gonbidatuta daude. Bertan, urte horretan egingo diren ekintzak zehaztuko dira, baita ekintza horiek antolatzeko osatuko diren taldeak ere.

Txantxiaren sistemarekin ez datoz bat EAJ eta Bildu

"Konplexua eta garestia" dela uste du alderdi jeltzaleak, Gobernu taldeak, berriz, ez

O.E. | OÑATI

Txantxiaren erabilera "konplexua" dela uste du EAJk eta horixe adierazi zuen urriko osoko bilkuran ere, txantxiaren araudia eztabaidatu zuten puntuan. "Herriko merkatarien alde gaude gu ere, eta eurekin batera egindako proiektua da. Gure errespetu osoa du txantxiak, baina uste dugu erabiltzeko modua ez dela erraza", adierazi zuen orduan jeltzaleen bozeramaileak, Lourdes Idoiak.

Orduan esandakoa berresten duen prentsa oharra atera zuen alderdi jeltzaleak joan den astean eta "eraginkorrak" diren beste sistema batzuen alde egiten dutela adierazi zuten, "hala nola, kultura bonoak, Mankomunitateko bonoak edo Ogerlekoa mone-ta soziala".

Oñatiko EH Bildu, baina, ez dago ados horrekin eta komunikabideetarako bidalitako prentsa oharrean dio EAJk proposatzen dituen sistemak txantxia baino garestiagoak direla. Eraginkortasunari begira, berriz, "merkatariekin egindako ebaluazioan bonoen sistema ez dela batere eraginkorra ikusi" dela dio eta ogerlekoari buruz, "sistema itxia" dela. "Herriko enpresa jakin batzuetan lana egiten dutenek soilik izango dute deskonturako aukera", dio Bilduk oharrean. Herriko enpresak oraindik batu ez izanari buruz, Bilduk erantzun dio EAJri "proiektua planifikatuta zegoenaren arabera" doala eta "EAJk jakin behako" lukeela. Bide batez, herritarrak animatu ditu Bilduk txantxiak erabiltzera.

ESKORIATZA

'Eskoitzara Eguna' dator hilaren 15ean aldarrikapen eta jai giroan

Euskal preso eta iheslarien eskubideen defentsan lehenengoz antolatu dute

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Eskoriatzako hainbat eragile, elkarte eta taldetako ordezkari eta herritar elkartu eta *Eskoitzara Eguna* antolatu dute lehenengoz. Zapatuan izango da, azaroak 15, eta aldarrikapenak eta jai giroak bat egingo dute egun guztian.

Elkarretaratzea kandlekin

Euskal preso eta iheslarien eskubideen defentsan antolatutako jaiak da, helburu birekin: kontzientziazioa, euskal preso politikoaren egoeraren berri eman herritarrei; eta finantziazioa, diruz laguntzea. "Eskoriatzara da Marixol Iparragirre, eta gero dago haren bikotekidea, Mikel Antza. Baina Debagoieneko preso guztien egoeraren berri ere eman gura dugu", argitu du Miriam Isasmendik, antolatzaileetako batek.

Eskoriatzar guztien parte-hartzea bultzatu gura dute, horregatik ekintza asko eta ezberdinak antolatu dituzte zaturako, besteak beste, Atxorrotzera igoera; patata tortilla lehiaketa; trikitalariek kalejira; herri bazkaria; elkarretaratzea; eta kontzertuak. "Egun osoko jaiak izango da, eta herritar asko elkartu gura dugu; horregatik daude kalejira eta herri bazkaria. Iluntzeko elka-

rretaratzea, ostera, jendetsua izatea gura dugu", dio Isasmendik. Elkarretaratze hori 20:00etan izango da, eta kandelaz osatutako mosaiko erraldoia egingo dute gero argazkia ateratzeko. Gainera, plaza inguruan erakusketa ere jarriko dute egunean bertan, presoaren egoeraren berri ematen duten argibideekin.

Herri bazkarirako txartelak

Herri bazkaria, babarrun-jana, Dorleta gastronomi elkartearen egingo dute eta txartelak aurrez hartu behar dira. Inkernu eta Aldatz tabernetan dauzkate, 12 euroren truke. Antolatzaileen asmoa da 50en bat lagun elkarretzea. Eta Isasmendik herritarrei dei egin die: "Ekitaldi guztietara anima daitezen eskatzen diegu, baita patata tortilla lehiaketara ere. Zenbat eta tortilla gehiago askoz hobeto".

ESANAK

"Presoen aldeko elkarretaratze jendetsua gura dugu"

MIRIAM ISASMENDI | ANTOLATZAILEA

Orri-puntu lehiaketa deitu du Eskoriatzako Udal Bibliotekak

M.A. | ESKORIATZA

Datorren urtean Udal Bibliotekan erabiliko den orri-puntua aukeratzeko lehiaketa deitu dute. Lanak bibliotekara eramane behar dira abenduaren 9a baino lehen. Saria 150 xatroki izango da.

Lehiaketan edonork har dezake parte, ez dago inolako baldin-

tzarik. Hona hemen lanek izan behar dituzten ezaugarriak: neurria, 21x5,50 zentimetro; eta teknika eta gaia libreak.

Orri-puntuak egilearen izenik gabe aurkeztuko dira bibliotekan. Alde bat bakarrik landu behar da, eta atzeko aldean lelo bat jarri. Horrekin batera, gutun-azal

itxi batean lelo bera eta egilearen datuak adieraziko dira.

Epaimahaia nortzuek osatu duten esango da erabakia ezagutzera ematen den egunean bertan. Eta haren erabakia aldaezina izango da. Lan saritua Udalaren eskuetan geldituko da. Antolatzaileek egoki ikusiz gero, aurkeztutako lan guztiekin erakusketa egingo dutela iragarri dute.

Argibide gehiago gura duenak Udalaren webgunera jo dezala (*Eskoriatza.net*).

ARETXABALETA

Iraunkortasunaren alde urteotan egindako lanari saria

Kurtzebarri BHIko kideek aitortza jaso dute Urkullu lehendakariaren eskutik

M.A. | ARETXABALETA

Kurtzebarri BH institutuko kideek iraunkortasunaren alde egindako lanaren saria jaso zuten joan den eguaztenean, azaroaren 5ean, Donostian. Eusko Jaurlaritzak antolatutako *25 urte jasangarritasunaren alde* ekitaldian izan ziren, eta Iñigo Urkullu lehendakariak zoriondu egin zituen, autonomia erkidegoko beste hainbat ikastetxe bezala.

2010eko abenduan jaso zuen Herriko Plazan egoitza duen Kurtzebarri BHIk eskola jasangarriaren ziurtagiria. Ingurumenaren alde egindako apustua aitortu zioten orain dela lau urte, eta, ordutik hona egindako lanari eutsita, iaz ziurtagiri hori berri- tzea lortu zuten, auditoria sendo bat gainditu eta gero. Orain, lan horren guztiaren aitortza eta saria etorri dira.



Ikastetxeko ordezkariak Iñigo Urkullu lehendakariarekin. | KURTZEBARRI BHI

Ikastetxeko hainbat ordezkari

Kurtzebarri BHIren izenean hainbat ordezkari izan ziren Donostian. Hona argazkian daudenak: Ibai Alberdi, ikaslea, eta Endika Hortelano, irakaslea, Agenda

21en ikastetxeko arduradunak; Angela Agudo, Kurtzebarri BHIko zuzendaria; Iñigo Urkullu, lehendakaria; eta Uxue Zuntzunegi, Markel Bengoa eta Andoni Parra, ikasleak.

NIRE USTEZ

IÑAKI AGIRIANO



Bularretik mintzora

Bonbolontena, ene laz-tana, ez egin lorik basuan, azeritxuak eruango zau erbixa zarelakuan.

Txikitako ume-kanta politen-takoa dela pentsatu izan dut beti. Umeari, besoetan hartuta, kantatu behar zaion horietako bat. Haur txiki horren behar emozionalei batez ere, aurre egiteko oso baliagarria dena.

Baina, zer da *Bularretik mintzora*? Ba, Eskoriatzako bibliotekak Luis Ezeiza herri eskolarekin eta Arizmendi Jose Arana ikastolarekin batera martxan jarri behar duen egitasmo berria. Haur txikiaren guraso eta hezitzaileei zuzenduta dago. Bere helburu nagu-

sia da 0 eta 6 urte tarteko haurrengan irakurketa ohiturak sustatzea, gurasoekin eta hezitzaileekin lan eginez, beren ingurune naturalean -etxean, eskolan eta bibliotekan- irakurle giroa sor dadin.

Euskal Herrian nahiko berria den egitasmo honetan, bibliotekak eta eskolek jarraitzaileak eta materiala eskainiko dizkiete haur txikiaren guraso eta hezitzaileei. Haurrek jaiotzen direnetik gauza asko behar dituzte modu egokian garatzeko: inguruarekin komunikatu, errealitatea pixkanaka ezagutu eta horretan segurua sentitu. Apurka-apurka joango da haurra, adimena, hizkuntza eta emozioak garatzen. Bide hori lotura afektibo sendo batekin egin dezan altxor preziatu bat daukagu helduok. Eta zein da ba altxor hori? Hitza. Lehen hilabeteetan sehaska kantak abestuz, errima xume eta goxoak xuxurlatuz. Geroago, ipuinak kontatuz, ipuina bera, azkenean, irakurketa bilakatuz. Ez dezagun, beraz, lorik hartu basoan.

OHARRAK

BIGAREN ESKUKO AZOKAKO POSTU ESKAERA

Datorren zapatuan, azaroak 15, egingo dute bigarren eskuko azoka. Plazan izango da 11:00etatik 14:00etara. Postua jarri gura dutenek aurrez eman behar dute izena, kultur etxera joanda. Hona bideak: 943-71 46 88 edo kultura@eskoriatza.net. Azkenengo eguna azaroaren 13a da, eguena.

IZEN-EMATEA NAGUSIEN EGONALDIETARAKO

Zabaldu dute abendurako eta Gabonetarako aldi bateko nagusien egonaldiatarako izen-emate epea. Abenduko lehen hamabostaldirako edo hilabete osorako eskaerendako azken eguna azaroaren 16a da; eta bigarren hamabostaldirako, azaroaren 26a. Gizarte Zerbitzuetara joan behar da: 943-71 31 36.

Datorren urteko bazkidetza eta federazio aukeren berri eman du Murruxok

M.A. | ARETXABALETA

Murruxok mendizale elkartek gutun bidez jakinarazi die bazkideei 2015eko bazkidetza eta federazio aukeren berri. Aldaketaren bat egin gura izanez gero azaroaren 18a arte dute, Murruxokora jota: murruxok@outlook.com edo 943-79 93 74. Egoitzatik ere pasa daiteke martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara. Epe hori baino lehen ez bada

jakinarazpenik jasotzen, datuak ontzat emango dituzte. Gutunarekin batera 2015eko egutegia ere jaso dute bazkideek.

Irteera Hondarribi aldera

Bestalde, datorren domekan, Pasaia eta Hondarribi arteko ibilaldia, 13 kilometro inguruko, egingo dute Murruxokoko kideek. Izena emateko egoitzatik pasatu behar da bihar.



Pirinioetako mendi inguruetan ateratako argazkia. | MURRUXOKO ME



Herri eskolako neska-mutikoak gaztainak jan aurretik dantzan eta kantuan, borobilean. | L.Z.

ELGETA

Eskolako umeez eta erretiratuek gaztaina-erre jana egin zuten barikuan

Haurrak eta irakasleak frontoi zaharrea elkartu ziren gurasoekin; Ozkarbi elkarteko epeltasunean egin zuten urteroko ospakizuna erretiratuek

LARRAIZ ZEBERIO | ELGETA

Lagunartean gaztaina-erreak jateko ohitura aspalditik dator, eta oraindik ere oso sustraituta dagoen ohitura da, Debagoieneko hainbat tokitan.

Elgetan, esaterako, Herri Eskolan eta erretiratuen elkartearen urtero egiten dute gaztaina-erre jana, eta aurten ere egun berdina aukeratu dute ospakizuna egiteko: azaroaren 7a, barikua.

Hildakoen omenez egiten den otordua da gaztaina-erre jana, eta haurrek bertsoak ere abestu zituzten danbolinaren bueltan. Gaztainak erretzeko Enrike Perezen laguntza izan du, aurten ere, Maala guraso elkarteak, eta 20 kilo gaztaina banatu zituzten. Eskolako ikasleak, irakasleak eta gurasoak 15:00etan elkartu ziren frontoi zaharrea.

Erretiratuek, Ozkarbin

Xalbadorpe erretiratuen elkarteak, berriz, Ozkarbi elkartearen egin zuten urteroko ospakizuna.

Epeletan eta mahaiaren bueltan eserita egin zuten gaztaina-erre jana. Gaztaina gozo-gozoak eta bero-beroak jan zituzten. Guztira, 30 kilo gaztaina erre zituen Pedro Mari Uberak.



Enrike Perez danbolinarekin gaztainak erretzen. | L.Z.



Erretiratu taldea Ozkarbin gaztaina-erre jana egiten. | L.Z.

ANTZUOLA

"Biolentzia matxistarik gabeko espazio" baten aldeko adierazpena

Osoko bilkuran onartu zen, Emakumeen Kontrako Biolentziaren Aurkako Nazioarteko Egunarengatik

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

Hilaren 25eko Emakumeen Kontrako Biolentziaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, EH Bilduk adierazpen instituzionala aurkeztu zuten azaroko osoko bilkuran. Hauxe dio: "Euskal Herria Bildutik ezinbestekotzat jotzen dugu esparru politikoan zein herri-tarren artean eman beharreko

adostasuna eta konpromisoa gauzatzeko, biolentzia matxistarik gabeko bizitzaren espazio komunak lortzeko asmoz". Bilduk adierazpenaren alde bozkatu zuen eta EAJ abstenitu egin zen, adierazpen osoko bilkuraren aurretik adostu behar direla argudiatuta. "Zuek ekarri duzuen moztio bat da, ez adierazpen instituzionala.

Adierazpenak aurretik aztertu eta adostu egiten dira", esan zuen Maria Eugenia Arrizabalagak.

Hainbat konpromiso

Adierazpenarekin bat eginez, Antzuolako Udalak hainbat konpromiso hartu zituen. "Udalerrian izan litezkeen ekintza eta jarrera matxisten aurrean, prebentzio eta salaketarako eragile aktibo" izateko eta "emakumeen enpoderamendua bultzatzen duten gune komunak sortu edo indartu, behar adina baliabideekin eta sare lana sustatuz, enpoderamendu eskolako edo emakumeen etxeen modukoak" sortzeko konpromisoak, besteak beste.

ARAMAIO

San Martin txapelketak izandako erantzunarekin erabat konforme gaude

Lehen aldiz antolatu dugu eta 42 bikote aritu dira guztira, 11 etxeko eta 31 kanpoko

KOMUNITATEA GOIENA
PILOTA ELKARTEA | ARAMAIO

Gure pilotariek Euskal Herrian zehar hainbat txapelketatan parte hartu izan dutela-eta, guk ere besteenganako zorra kitatzeko asmoz, aurten Araba mailan bikoteka pilota txapelketa abian jartzea pentsatu dugu. Hori dela eta, Aramaioko zaindariaren eguna azaroaren 11n izanik, herriko elkarte garen heinean, jaien inguruan gure ekarpena era horretara egin genezakeela uste izan dugu, ikusirik herriko 24 gaztek jarduten dutela pilotan. Atzo jokatu ziren finalak.

Lehenengo urtea izanik, bi hilabeteko asteroko jardunaldien ondoren, apuntatu den

bikote kopuruaz, 42 bikote guztira, 11 etxeko eta 31 kanpoko, emandako erantzunaz erabat konforme gaudela esan genezake, betiere hobetuz joateko asmoarekin.

Datorren urtean, bide beretik

Datorren urteari begira, jada antolatuta ditugun entrenamenduekin jarraituko dugu, datorren urteko txapelketan maila hobea emateko helburuarekin.

Azkenik, esan, datorren urtean ere, aurtengo esperientzia baliatuz, bide beretik jarraitzeko gogoia dugula, eta herri-tarren eta Udalaren laguntzarekin, ahal bada txapelketa arrakastatsuagoa antolatzeko animoekin amaitu dugula.



Aramaioko eta Arrasateko pilotari gazteak. | PILOTA ELKARTEA

LEINTZ GATZAGA

Autodefentsa tailerraren bigarren atala, hil honetan

Ikastaroa doakoa da eta izena emateko epea zabalik dago; udaletxera jo behar da horretarako

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Azaroaren 29an (zapatua) egingo dute Autodefentsa Feminista Tailerraren bigarren zatia, Bideberri mankomunitatearen bitartez antolatutakoa. Edo, bestela esanda, iaz egindako ikastaroaren jarraipena izango da tailer hori.

Autodefentsa ikastaroak lau ordu iraungo du, 09:30etik 13:30era bitartera; kultura etxean izango da eta atea zabalik duedu interesa duen edozeinendako. Gainera, doan da ekimena. Hori horrela, komeni da izena ahalik eta lasterren ematea, 943-71 47 46 telefonora deituta edo udaletxera bertara joanda.

Atal fisiko zein emozioak

"Emagin elkarteak dinamizatu duen tailer praktiko honetan, iazko tailerraren kokapen

txiki bat egingo da, parte-hartzaile guztiak oinarri beretik abiatzeko, eta ondoren, espazio bitala eta mugak jartzen jakiteko ariketak egingo dira jarra landuz; atal fisikoaren elementuak, emozioak eta maitasun erromantikoa landuko dira, eta amaitzeko, gorputza, autoestimua eta elkartasuna lantzeko dinamikak egingo dira", esplikatuko dute Udaleko Gizarte Ongizate Sailetik. Hortik ondorioztatzen da, besteak beste, iaz ikastaroa egin ez dutenek ere badutela aurten parte hartzeko aukera.

Autodefentsa tailerra Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira (azaroaren 25a) antolatutakoa da. Bada, Gatzagako emakume guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera.



Programazio berritua

Bertakoa eta sasoikoa, halakoa da Goiena telebista, eta berrituta dator, unean unekoak, bertatik bertara, herritarrekin, kaletik, kontatzeko gertu.



KIROLA

ATLETISMOA



Inoizko jendetsuena

Jose Carlos Hernandez, Vanessa Veiga eta beste milaka txapeldun Behobia-Donostian | 22-25

Jendetza Boulevardeko helmugan. | JOSETXO ARANTZABAL



Jose Carlos Hernandez irabazlea, helmuga zeharkatzen. | JA



Vanessa Veiga, lehenengo emakumezkoa. | JA

Debagoiendarrak

Antzuola	
793 GURUTZ LARREA SORALUZE	01:16:16
2513 IKER LARREA SORALUZE	01:19:39
5304 IBAN HERZOZ RODRIGUEZ	01:25:09
5328 OSCAR VELARDE BERNAL	01:25:25
5520 JOSU ASENSIO IGARZA	01:25:26
2589 ION LEGORBURU UGARTE	01:26:58
5305 LUIS FRANCO FERNANDEZ	01:27:29
4458 GORKA GARITANO ARREGI	01:27:57
5513 AITOR ELKORO SARASUA	01:28:40
25009 IOSU ZUBIKARAI ALBERD	01:28:43
25011 INAKI AGIRRE ANSOLA	01:29:53
31313 MIKEL MATA ETXANIZ	01:32:50
5324 IDOIA ARANGUREN FERNANDEZ	01:34:40
5476 MIGUEL RASILLA DE LA BARRERA	01:34:41
24903 ANDER ITURBE LASKURAIN	01:34:50
24951 GORKA ETEZARRETA	01:35:00
5314 JOSU TOLEDO ARANGURAN	01:36:36
11384 HARRI ARIN FERNANDEZ	01:36:50
5473 ASIER ARANGUREN EZKURRA	01:37:24
25008 ARITZ BERRAONDO ALBERDI	01:37:41
25010 IBAI ZABALO LEGORBURU	01:37:41
11576 LEIRE LARREA SORALUZE	01:40:08
11662 INAKI LINZOAIN ARANGUREN	01:40:47
24900 AMAIA LASKURAIN GIL	01:41:06
11680 SERAFIN TENA LEON	01:41:29
11389 MODESTO CACERES MARTÍN	01:43:09
11561 GURUTZ ZABALO EROSTEGI	01:43:21
11637 UNAI KORTABARRIA BERASATEGI	01:43:28
11601 XABIER IPARRAGIRRE JAUREGI	01:43:28
18965 BITTOR ARBULLU OLABARRIA	01:46:59
18966 MIKEL LIZARAZU ARBULLU	01:46:59
24871 DAVID MARTIN LUCENA	01:49:47
24992 ALAZNE ALBERDI ALVARO	01:51:41
24905 ITASO GARMENDIA EGANA	01:54:31
24913 INIGO ALONSO GUTIERREZ	01:54:50
11554 IZAR URTEAGA MENDIZABAL	01:54:51
11558 IOSU ERRASTI JAUREGI	01:54:51
5489 JAVI PENALBA CACERES	02:03:12
24858 ANA PENALBA CACERES	02:03:12
25041 EIDER GALLASTEGUI EGUREN	02:05:50
25040 ANDONI RODRIGUEZ SALAZAR	02:05:50
2506 ION ARREGI RETOLAZA	02:16:14

ARAMAIO	
651 AITOR KORTAZAR ALKOZ	01:18:24
544 JONATHAN UNZALU RINCON	01:24:00
647 AITOR ARANA AREXOLALEIBA	01:24:26
5322 RAMON ORMAECHEA CECIAGA	01:28:10
5193 CESAR AZKARATE BEITIA	01:28:20
31498 JOSE RAMON URIBE URIARTE	01:38:34
31478 NAIARA GUTIERREZ LASAGA	02:01:37

ARETXABALETA	
104 GARIKOITZ GARCIA ARRIETA	01:18:28
2589 IGOR OLALDE BERASALUZE	01:18:53
2588 GORKA GONZALEZ VICENTE	01:20:56
5610 MARKEL FAMILIAR BAENA	01:25:47
11773 INIGO ARKAUZ MAIZKIARAN	01:27:58
24888 ARITZ URRUTIA VALLINA	01:28:27
25078 ENDIKA MARTIN OROBENGOA	01:28:40
10886 OIER SARASUA MARICHALAR	01:28:13
564 ZUHAITZ ERRASTI GÓTI	01:28:42
24888 IVAN SANCHEZ ESTRELLA	01:27:25
11556 GAIZKA DE MIGUEL BOLIBAR	01:27:45
11888 JAVIER URTUBI FRAILE	01:33:00
11188 MIKEL MARTIN YUSTE	01:33:05
5498 AITOR URIBETXEBARRIA	01:33:11
5474 ROBERTO NEGRO MARTINEZ	01:33:51
30778 IBON ERANA ELKORO	01:34:20
24816 OXEL URZELAI CARABIAS	01:34:20
11881 MIKEL ZUBIZARRETA ERANA	01:35:27
16378 ALAZNE LETURIA	01:36:40
11875 FERNANDO URIBESALGO	01:36:50
11585 JULEN GALIANO AGUIRRE	01:36:15
11888 ION URZAZA AGIRREZABAL	01:36:19
11881 AINHOA MURGOITIO LUELMO	01:37:28
11557 ROBER AZKARATE ZABALO	01:37:30
5498 ANDONI ARKAUZ LAZKANO	01:38:13
24888 JOKIN URTEAGA VIAMONTE	01:38:50
18923 AINHOA CALLEJA ANDONEGI	01:38:07
11847 JUAN RAMON TORRES NÚÑEZ	01:40:07
18976 NAIARA ALTUBE GARCIA	01:40:08
18976 ANABEL ARANZADI MARTIN	01:40:24
11658 JABI GARCIA SAN MARTIN	01:40:24
25001 IBAN VILLAR PEREZ	01:41:52
25026 AITOR URRUTIA YURREBASO	01:42:53
2574 OIHANA ARAGONIES REBOLLO	01:43:00
20827 MARIO LÓPEZ SOLA	01:43:22
31088 MIGUEL ANGEL ANTELO BUJAN	01:43:50
18987 JOSE MARIA ETXEBARRIETA	01:44:50
25081 JAVIER VALLINA FUENTES	01:45:13
11658 JON ZUBILLAGA URCELAY	01:45:16
11827 JORGE SANTIAGO ARROYO	01:46:04
24925 ANE GOIKOETXEA SARASOLA	01:46:14
25018 MIKEL LAGUNILLA AMOZARRAIN	01:46:42
24928 JON ALTUBE LASAGABASTER	01:46:51
24988 AMALUR GARITAONANDIA	01:50:19
24988 RUBEN VARILLA GUTIERREZ	01:51:51
30828 XABIER PAGOAGA OTERO	01:56:50
24987 MIKEL ALVAREZ TABOADA	01:57:20
25023 IBON VITERI ZUBIA	02:00:18
25021 IGOR GOROSARRI BADIOLA	02:00:18
24988 OIHANE ECHEVARRIA ARANA	02:01:07
24987 MAIDER ELKORO ITURBE	02:01:00
25083 ARANTZA ATIENZA BALDEZATE	02:01:44

24957 AMAIA BEREZIBAR GOMEZ	02:02:37
25023 MAITANE RUBIO DE JESUS	02:05:10
25048 PAQUI HERNANDEZ MAJADAS	02:06:40
25027 NEREA ETXEBERRIA URRUTIA	02:07:26
24887 JUAN CRUZ URTAZA GAMBRA	02:08:51
31498 JOSEBA AKIZU URIBE	02:14:07
25028 ANTXON DEL REY GALÁN	02:14:16

ARRASATE	
107 ENDIKA DONNAY OTEGUI	01:07:34
2081 ARATZ GOMEZ LARRANAGA	01:08:08
1543 BENAT ARNAIZ URIBARREN	01:13:27
838 INIGO LABAYEN IRAETA	01:15:50
84 JUANMA MARTINEZ REMEDIOS	01:17:40
2588 INAKI VAZQUEZ JAUSORO	01:18:08
2588 ANDER ANSOATEGI ORUNA	01:18:37
2571 ROBER GIL MARTIN	01:19:02
841 ENEKO URRIZALKI JAUREGI	01:19:40
831 ANGEL DELGADO IGLESIAS	01:19:41
837 GANIX LASA ERLE	01:19:41
5571 ANDER ZURBANO ROMERO	01:19:51
2588 MIKEL LASA ERLE	01:19:55
853 LUIS USATORRE ARANZABAL	01:19:57
2584 INIGO URTUBI EGIDAZU	01:21:00
2578 INAKI JUEZ MARINA	01:21:47
103 NERE ARREGI SAGASTA	01:21:55
2088 ALBERTO OZAETA MENDIARRAZ	01:22:27
2583 JON OSINAGA ASTIGARRAGA	01:22:27
855 PATXI GARCIA OYARZABAL	01:22:28
2587 JURGI LOPEZ DE ARKAUTE GURIDI	01:22:27
2578 MARIO IGLESIAS LOBATO	01:22:27
18988 IKER AGUIRRE AGUINALDE	01:24:10
2585 GARI BARRUTIA MENDIZABAL	01:24:24
5488 UNAI HERNANDEZ CUEVAS	01:24:43
5583 ANDER AREXOLALEIBA IRIA	01:24:55
2588 IBAN ARANGUREN ZUBILLAGA	01:24:56
11874 JON RACIONERO ZABALO	01:26:27
5510 YON TENA BAENA	01:26:50
5542 PREMIN SAMPELORO LARRAÑAÑA	01:27:02
5576 TXUS GOIKOETXEA GARRALDE	01:27:02
2578 AITOR ARNAIZ DE PAZ	01:27:10
5470 MIKEL ZUBILLAGA ATXA	01:27:45
11884 GORKA GUZMAN REGOS	01:27:58
5553 JAVI VIGUERA VAZQUEZ	01:28:00
5524 MIKEL AZKARGORTA VIGUERA	01:28:13
14378 MARKEL SAN MIGUEL MERINO	01:28:40
11228 ANDONI FERNANDEZ GARFIAS	01:28:40
24878 ANDER TORRES SANCHEZ	01:28:41
5558 RAMON GONÍ FARRÁS	01:29:10
25883 JOKIN DIEZ GONZALEZ	01:29:24
11887 AMETZ ELUSTONDO ASTIGARRAGA	01:29:28
11843 DANEL REMIREZ JAUREGI	01:29:28
11838 MARKEL JUARISTI MENDOZOKETA	01:29:31
5485 EGOITZ ERRAZKIN APERIBAI	01:29:30
24887 AITOR ALEGRE LAGE	01:29:30
11863 MIKEL ARENaza OCARANZA	01:29:47
5574 BIXENTE GONZALEZ OZAETA	01:29:48
5527 AITOR ARREGI ELORZA	01:29:51
11887 ANGEL MORALEJA ALCOGER	01:31:52
5527 IBAI ZABALETA PIERRUQUES	01:31:52
2583 IBAN LABAYEN IRAETA	01:32:23
18978 ANDER AGUIRRE AGUINALDE	01:32:44
2581 RAUL MENDIARAZ ATXA	01:33:28
5487 XABIER BERGARETXE ZUBIZARRETA	01:33:41
24888 JUAN MARIA CARMEN SAGASTA ARANA	01:34:10
24878 XABI OTXANDIANO SASIAIN	01:34:37
24841 SERGIO BLAZQUEZ MARTIN	01:34:43
11553 OIER ALIAGA GARCIA	01:34:47
5488 JOSEMI BASTARDO JUAREZ	01:35:02
11878 MIKEL ELORZA ZUBIZARRETA	01:35:25
24881 JOSE ABAD SOLERA	01:35:58
11888 RIKARDO ZUBILLAGA ATXA	01:36:29
11888 MIREN APROAIZ ROMERO	01:36:52
24888 KEPA ARKAUZ ZUBILLAGA	01:36:56
11878 ITZIAR SANPEDRO OLALDE	01:36:46
5488 JOSE LUIS BORBOLLA JIMENEZ	01:36:00
25884 ONINTZA LANGARAN GALDOS	01:36:11
24888 RAUL PERRINO GARCIA	01:36:13
11563 UNAI ALCAIDE GALDOS	01:36:31
18947 AITOR AROSTEGI GALLASTEGI	01:36:32
25874 JON DEL CAMPO URRUTIA	01:36:38
11875 LUKEN AZKARRAGUIRIZAR JAUREGI	01:36:38
11882 ANDONI MURGA ZENARRUZABETIA	01:36:38
11883 MIKEL VIGUERA VAZQUEZ	01:36:26
25877 OSCAR ALONSO MANSO	01:40:20
11882 LUIS RUIZ DE AUSTRI OTADUI	01:40:47
11828 LUIS HERIZ VITORIA	01:41:11
24877 IZADI MONDRAGON ETXANIZ	01:41:23
25888 HARKAITZ JAUREGI	01:41:52
11875 OIER ARZAMENDI UNAMUNO	01:41:53
24878 IBAI BOLINAGA DIAZ	01:41:58
13783 DAVID MARTIN GARCIA	01:42:05
11883 ALEX MARTIARENA ARREGUI	01:42:10
24881 MARKEL IRAZU GARCIA	01:42:10
11881 KEPA ARANBARRI ARREGI	01:42:15
18988 SALVADOR DELGADO SARAIWA	01:42:23
11572 MARIA JESUS VELASCO GARCIA	01:42:40
18988 JON LOITI ORUE	01:42:54
24873 ANDONI ALTUNA LETAMENDI	01:43:02
13743 IORITZ URIARTE URBERUGA	01:43:20
24884 IOSU SAIZ RODRIGUEZ	01:43:21
18977 ALBERTO RAMIREZ FERNANDEZ	01:43:22
11887 MIREN SAGASTA OLALDE	01:44:02
11887 AITOR UNAMUNO GARAI	01:44:02
18988 AITOR IGARZA GARRO	01:44:02
25875 MIKEL LASAGA HERIZ	01:44:20
24888 ANDER PEREZ DE ARENaza LAKUNTZA	01:44:24

11885 MIKEL SAN ARGIMIRO ISASA	01:44:58
24883 MIKEL BAZ PEREZ	01:44:57
18974 MIREN BENGOA AZKOAGA*	01:45:00
5528 UNAI PAROT NABARRO	01:45:28
11581 ARITZ JAUREGI ASTOLA	01:45:30
5525 JOXE MIGEL GAZTELU OTXANDORENA	01:45:30
5558 JAVIER ANSOATEGI ETXEBARRIA	01:45:42
18985 ANDONI ARANZABAL LEIBAR	01:45:57
11881 ANE MIREN AREXOLALEIBA BITERI	01:46:05
18975 KARMEL URIBARREN MUNITXA	01:46:12
11488 XABIER MENDIALDUA AXPE	01:46:14
11588 IGNACIO BELTRAN DE GUEVARA	01:46:40
5548 IHINTZ BENGOA MADINA	01:46:40
24888 ALAITZ PEREZ DE ARENaza ITURBE	01:46:40
11879 EDORTA MORENO ARANBURU	01:46:54
11828 IMANOL DIAZ DE ZERIO SAIZ	01:47:30
11886 NEKANE IRLA REYES	01:47:52
11845 JUAN ANDRES GALLARDO BOLANOS	01:47:53
24888 JON OLABE MARTIN	01:48:33
11588 ALEXANDER BARANANO ASTIGARRAGA	01:48:34
11887 JESUS ALBISTUR MARIN	01:48:30
18984 JON BARANDIARAN ALTUNA	01:48:33
24888 ANDONI ALTUBE LASAGABASTER	01:48:51
25884 MIKEL ATXA ULI	01:48:57
24877 SONIA CANAS DEL POZO	01:50:14
5581 INIGO XABIER AZKARATE MORRAS	01:50:18
18983 SERGIO DE SOUSA RODRIGUES	01:50:20
24888 JORGE MORA ROJAS	01:50:20
24881 NAIARA ZABARTE AJURIA	01:50:20
24886 YOLANDA JIMENEZ SUDUPE	01:50:21
24888 YOLANDA PEREZ DE ARENaza SOGORB	01:50:37
18985 IGOR GORDOBIL AMOZARRAIN	01:50:45
24888 JOSU ARINO LARRAÑAÑA	01:50:48
24877 ALAITZ MARTINEZ MUJICA	01:50:50
24874 JONE BALANZATEGUI GUTIERREZ	01:50:50
24888 DAVID HERNANZ SERRANO	01:50:50
18988 KERMAN CALLEJA ARANA	01:51:11
25885 URTZI URIBETXEBARRIA ANDRES	01:51:13
24887 DABIO BELATEGI BRAGADO	01:51:21
13381 OLAIYA VELASCO UGARTE	01:51:55
11884 YOLANDA EKURRA MAYOR	01:52:02
11574 EDURNE BALZATEGUI JULDAIN	01:52:03
5547 ANDONI OZAETA MENDIARATX	01:52:05
25884 IRATITZ AZKARGORTA VIGUERA	01:52:20
25883 MIREN ARGINONIZ GARAI	01:52:20
11884 ARKAITZ GÓMEZ RUBIO	01:52:00
24884 ENEKO OSINAGA GALDOS	01:52:10
24888 JOSE JURADO MESA	01:52:11
18987 RAFA ARANZABAL GISASOLA	01:52:43
11874 IVAN ALONSO GARCIA	01:54:07
25888 ANABEL DEOGRACIAS GONZÁLEZ	01:54:10
18984 FRANCISCO AGUILAR CASAS	01:54:23
24877 MARI CARMEN SAGASTA ARANA	01:54:24
25888 ARKAITZ ARREGI SAGASTA	01:54:24
24881 JONE VELASCO AGUADO	01:54:25
24888 JOSU UGARTEIXE PASCUAL	01:54:50
25887 JAVIER MARTIN SORIA	01:54:53
24881 ARANTZAZU LAGUNILLA AMOZARRAIN	01:54:58
24878 GORKA GUERRA IRIONDO	01:55:10
24888 JULEN MENDIZABAL ELEZKANO	01:55:10
24885 MAIDER BARRUTIA CABRERO	01:55:10
25885 JOSEFINA MUGICA ELORZA	01:55:14
18988 MAITANE DIAZ ALCELA	01:55:26
25881 DORLETA HERIZ IRIA	01:55:15
24888 AMAIA JIMÉNEZ ROBLEDO	01:55:24
18988 ALICIA CARRASCO AMADO	01:55:28
24878 INMACULADA ELORZA PIE DE HIERRO	01:55:41
24877 MARIA LUISA GONZALEZ MONDRAGON	01:55:41
18988 JUAN MARIA AMILBURU OXINAGA	01:55:41
24875 ANABEL NARBALZA BARRENA	01:55:45
24874 ANGELA AGUADO TAMAYO	01:56:17
25886 ALBERTO CACERES GUILLEN	01:56:44
24887 MIGUEL GAZTANAGA BIDAURRETA	02:25:10

BERGARA	
788 ANDONI GOMEZ GUTIERREZ	01:11:30
101 MIKEL MUGICA BIKUNA	01:13:22
38 KEPA VARELA ARREGI	01:15:50
787 AITOR LARREA SORALUZE	01:17:33
5377 MARKEL FERNANDEZ BELASTEGI	01:19:40
5383 IKER ARAZKONAGA SOTIL	01:20:24
784 JABI IBARRA MUNUX	01:21:34
2578 XABIER LAZKANO BIKENDI	01:22:21
2571 ENEKO LAZKANO BIKENDI	01:22:22
24888 ION RIVERO GUTIERREZ	01:23:07
5475 J.MARCOS ALONSO CASTELLANO	01:23:28
24888 UNAI RETOLAZA UGARTE	01:23:40
18988 ALBERTO URRIOLABEITIA MILIKUA	01:24:04
5327 MARTIN EGANA VILLAR	01:24:10
24878 XABIER AGIRRE REBANAL	01:24:14
837 JOXU ARANA OREGI	01:24:30
3325 JUAN JESUS ALBERDI LANDA	01:24:32
25881 JOSU LETE ARAMBURU	01:27:07
5387 IGOR UNAMUNO ERAÑA	01:27:17
5471 JULEN JORGE GABILONDO	01:28:00
11887 IGOR BASAURI GAMBOA	01:28:20
5375 MANOLO VARELA FERNÁNDEZ	01:28:20
2588 AITOR GARTZIA ARKAUZ	01:28:58
11285 XABIER SABALZA LASKURAIN	01:28:58
5377 JON ORMAZABAL GORRIA	01:29:30
24888 MIKEL AMOROS BECERRA	01:29:30
25881 XABI ZENITAGOIA PILDAIN	01:29:37
5378 JUAN LUIS GALLASTEGI ARRONDO	01:29:38
2588 AITOR ERANA ARROIAIBE	01:29:38
5378 BENAT INARRA LASA	01:29:38
5371 ASIER GARTZIA BERISTAIN	01:31:10
11285 LAURA ITURBE VALVERDE	01:31:45
11587 BASI ARANBURU MUJICA	01:32:00
2572 JOSE MARI ANDUAGA ELIAS	01:32:10
21368 DAVID LOPEZ DE ABETXUKO	01:32:23
2587 TXUS IGLESIAS FERNANDEZ	01:32:26

27218 AITOR MARAURI JAUREGUI	01:32:20
5687 IGOR OYARBIDE ZUBILLAGA	01:32:40
5371 JESUS M. LABAKA ARANDO</	

noizko jendetsuena izan da aurtengoa, izan ere, 50. edizioa ospatzeko, lasterketa herrikoi eta parte hartzailea are eta parte hartzaileago egitea erabaki du Fortuna Kirol Elkarteak. Guztira 30.000 lagunetik gora Behobiatik Donostiarako kilometroetan; lasterketa bukatu dutenetatik 533, debagoiendarrak.

Ibarrekoeen artean azkarrenak izan dira Yeray Varela oñatiarra (1:07:02) eta Nere Arregi arrasatearra (1:21:55). Hain justu ere, hamaseigarren postuan zeharkatu du helmuga Varelak; Arregi, hemezortzigarrena izan da emakumezkoetan.

Gizonezkoetan bigarren debagoiendarra Endika Donnay arrasatearra izan da (1:07:34) eta hirugarrena, Ritxar Fernandez oñatiarra (1:08:59). Emakumezkoetan Edurne Elkoroiribe (1:31:20) eta Saioa Arkonada (1:32:20) izan dira bigarren eta hirugarren, hurrenez hurrez.

Irabazleak

Sailkapen orokorrari begiratuta, Jose Carlos Hernandez kanariarra izan da lasterketako gizonik onena, 1:01:40ko denborarekin. Hamabosgarren kilometrorara arte beste hiru korrikalarirekin egin du Hernandezek lasterketa eta orduan jo du eraso. Hunkituta egin ditu korrikalariak Boulevardeko azken metroak: "Ikaragarria da, publikoak egiten du handi Behobia-Donostia", zioen helmuga pasatuta.

Toledora joan da aurtengoan emakumezkoen txapela: Vanessa Veiga izan da azkarrena, 1:09:58ko denborarekin.

Gurpil gainean ere fin

Lasterketa gurpildun aukietan eta patin gainean egin dutenak izan dira aurtun ere, helmuga pasatzen lehenak. Patinetan egin dutenen artean, Bergarako Hanka Labanka taldeko hainbat kide. Pozik ziren bukaeran, izan ere, eguraldia lagun, errepidea ez da irristakor egon eta ez dute erorikorik izan: "Guretzat helburua hori izaten da, denbora ona egitea baino, erorikorik ez izatea eta denok onik amaitzea", dio taldeko lehendakari Andoni Berraondok.

Argazkiak ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Endika Donnay Kursalera heltzen. | MIKEL GUTIERREZ



Iban Herzog, antzuolarra. | JA

DATUA

533

LASTERKARI

Horiek dira atzo Boulevardeko helmugara heldu ziren atleta debagoiendarrak, iaz baino 27 lagun gehiago.



Korrikalariak Boulevardean. | JA



Hanka Labankako kideak, helmugara heldu berri. | JOSETXO ARANTZABAL



Korrika egin ondoren, masajea jasotzen. | JOSETXO ARANTZABAL



ENDIKA DONNAY
ARRASATE

"Nere marka hobetzea lortu dut, duela bi urte baino lau minutu gutxiago behar izan baititut. Helburua bete dut, beraz. Asko entrenatu dut Behobiarako eta emaitzak ikusi egin dira. Oso pozik nago egindakoarekin".



IÑIGO ZABALETA
OÑATI

"Urduri samar hasi dut eguna izan ere, Behobian parte hartzen dudana lehenengo aldia da. Orain bukatuta, esan dezaket gustura egin dudala. Helmugara iristea ikaragarria da, jendea inguruan txaloka, benetan polita".



AGURTZANE LETE ETA MARIA SANCHEZ
BERGARA

"Elkarrekin egin dugu lasterketa, lasai lasai eta disfrutatzen, egia esan. Hiru aste barru maratoia egingo dugu eta honek balio izan digu horretarako prestaketa lan moduan. Helburua dortsal kolorea mantentzea zen eta lortu dugu, ez gara markak haustera etorri, beraz, pozik gaude egindakoarekin. Aldarrikapenerako ere aprobetxatu dugu aukera, izan ere, Candy ez itxi kamisetarekin heldu gara helmugara. Duela aste batez Bergaran lan barik gelditu diren ehundik gora langileengatik".



SUSANA ARRESE
OÑATI

"Gogorra egin zait aurtengoa. Seigarrena dut hemen, baina, entrenamendu falta igarri egin dut. Ez dut aitzakiarik, izan ere, aldatu duten ibilbide tramua gogorra egin bazait ere, ez da hori izan arrazoia, inondik ere".



Gurpildun aulkiak, azken metroak egiten. | JA



Patinatzaileak helmuga pasatzen. | JA

IKUSPUNTUA

MIREN ARREGI
KAZETARIA

Harrigarria eta sinesgaitza

Harrigarria eta sinesgaitza. Horiek, burura datozkidan lehen hitzak, Behobia-Donostia lasterketako parte hartzearen gainean idazterakoan. Indarra eta adorea, besteak ahaztu barik, gurpildun aulkietan iritsi direnetaz gogoratzen naizenean. Ausardia eta zorakeria, lasterketa patinetan egin dutenak Boulevardean ikusi ditudan unea deskribatzerakoan. Eta zirrarra, lasterketako irabazleak, bigarrena eta hirugarrena helmuga pasatu ahala nola besarkatu dituen gogoratzerakoan. Ondoren hasi da jende uholdea. Sekulakoa. Eta ikusi ditut lagunak, bikoteak, anai-arrebak, aita-alabak, ama-semeak, helmuga zeharkatu eta elkar besarkatzen. Ikusi ditut azkenengo metroak malkoak begietan egin dituztenak. Parte hartzaileen emozioak puri-purian daude; nireek dagoeneko atsedean hartu dute eta pentsatu dut, Behobia-Donostia zer den azaltzeko, derrigorrezkoa dela barratik bizitzea.

Antolatzaileei begira ipini naiz gero eta horrela eman dut tarte bat; haien joan-etorriak, Gurutze Gorriko boluntarioak hara eta hona, anoa postuetakoak laneak jo eta ke... Sekulakoa! Nire zorionik beroena Fortuna Kirol Elkarteari, horrelako ekintza jendetsua aurrera eramateko egindako lan itzelarengatik. Baina, badut, baina bat. Prentsako langileondako gordetako tokiaz dihardut. Inoiz ez bainuen usteko, horrelako lasterketa entzutetsu baten horren toki desegokian egongo ginenik, hain justu ere, hori jendarteratzen dugunok.

YERAY VARELA | LEHENENGO DEBAGOIENDARRA

"Inolako helburu barik etorri naiz eta sorpresa itzela hartu dut, onerako"

Yeray Varela oñatiarra izan da Behobia-Donostia lasterketan denborarik onena egin duen debagoiendarra.

Pozik, ezta?

Bai, egia esan. Entrenamendu saio moduan hartu dut aurtengoa, inolako helburu barik etorri naiz eta sorpresa hartu dut, onerako. **Iazko arantzaxoa kenduta, beraz?** laz aurten baino askos ere hobeto aurkitzen nintzen eta helbu-



Yeray Varela | M.A

ruak ere halakoxeak ziren. Haize handia egin zuen, baina, eta denbora txarra egin nuen. Gaurkoa, berriz, uste baino askoz hobeto joan da.

Nola egin duzu lasterketa?

Talde baten babestu naiz eta eurekin egin ditut kilometro gehienak. Mirakruz gaina baino lehenago heldu diot neureari eta atzean utzi ditut besteak. Eguraldiak ere lagundu du eta oso pozik nago egindakoarekin.

NERE ARREGI | DEBAGOIENENGO LEHEN EMAKUMEA

"Gogorra egin zait lasterketa; baina pozik nago egindako denborarekin"

Nere Arregi arrasatearrak "esperotako" denboran bukatu du lasterketa. Gogorra egin zaio, ordea.

Pozik egindakoarekin?

Pozik nago bai, baina gogorra egin zait lasterketa.

Zer dela eta?

Zati berria, Erreterria barrukoa, oso gogorra egin zait, ez dakit zergatik baina horrela sentitu dut. Bestetik, gaur lehenengoz dortsal horiarekin atera naiz, hasiera hasieran eta atzetik atera diren



Nere Arregi | GOIENA

gizonezkoek jango nindutela sentitu dut. Hasiera ere oso gogorra izan da.

Helburuabete duzu, ordea.

Hemendik hiru aste-tera maratonia egingo dut eta horretarako dihardut prestatzen.

Gaur aurreikusten nuen denboran egin dut lasterketa eta hori ondo dago. Asmoa nuen maratonia 3:10:00 inguruan egiteko, baina gaurkoa ikusita, marka hori hobetu dezakedala uste dut.



AITOR ERAÑA
BERGARA

"Maratoia prestatzen dihardut eta gaurkoaren ondoren deskantsua hartu beharko dut, izan ere, ukituta bukatu dut lasterketa. Lehenengo hamar kilometroak ondo egin ditut baina gero minak sentitu ditut eta lasai hartzea erabaki dut".



KEPA ARANBARRI ETA AITOR AROZTEGI
ARRASATE

"Oso pozik gaude, helmuga pasatu berri eta oraindik ere asnas estuka. Elkarrekin egin dugu dena, hasieran berrikerian eta gero isilik. Eguraldia primerakoa izan da gainera, fresko samar, korrika egiteko ezin hobea. Badira lauzpabost urte lasterketa egiten hasi ginenetik eta ordutik urtero egin dugu. Egia esan proba berezia da, horrenbeste jende korrika eta horrenbeste begira... Azken finean motibazio bat da, kirola egitera bultzatzen zaituen zerbait".



IZARO ELORZA
OÑATI

"Bikotekidearekin egin dut bidea, primeran, sekulako giroarekin. Eguraldia ere ezin hobeto; euria egingo zuela uste izan dugu baina azkenean ezer ez. Ibilbidean egin duten aldaketa ere hoberako izan dela iruditu zait".



ANDONI BERRAONDO
BERGARA

"Patin gainean egin dugu lasterketa, gustura. Errepidea nahiko txukun egon da eta polita izan da. Aldapan gora izan ditugu lanak, baina esandakoa, orokorrean ondo. Helburua ez jaustea zen eta lortu dugu, gainera".

ERREGIONAL PREFERENTEA

Ondo izerditutako hiru puntu, eta gora begira dago Mondra

Hirugarren garaipena jarraian lortu zuten atzo Gotzon Urzelairen mutilek

EMAITZA	
MONDRA	2-1
ZESTOA	

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hirugarren garaipena jarraian atzo Mondrarendako. Kostata eta denbora eskatzen amaitu ostean, baina hiru puntu. Ondo hasi ziren Gotzon Urzelairen mutilek, gogotsu eta partiduaren bila. Lehen minutuetan aukera bat baino gehiago izan zuten etxekoek eta 13. minuturako 1-0 ziren aurretik, Jon Ander Ormaetxearen golari esker. Hegaleko sake baten ostean are barruan erori zitzaion aldaratze bat aprobetxatu zuen Ormaetxeak gola egiteko.

1-0koa egin eta berehala bigarrena egiteko aukera garbia izan zuten etxekoek; Gorka Erañaren barneraldi eder baten ostean, Zestoako atzelari batek zutoinera desbideratu zuen erdilari arrasatearraren erdiraketa.

Zestoaren erreakzioa

Hortik aurrera esnatu egin ziren zestoarrak eta parekatu egin zen norgehiagoka. Kanpokoek gora egiten zuten arriskua sortzen zuten, etxeko gabeziak agerian



Aitor Azkarate Aiti erdilari baloiarekin, atzoko partiduko jokaldi baten. | JOSETXO ARANTZABAL

utziz. Izan ere, Mondrak asko hobetu beharko du defentsan denboraldi honetarako jarri duen helburua, mailaz igotzea, lortu gura badu. Mondra aurretik joan zen atsedenaldira baina bigarren zatiko lehen minutuan berdintzea lortu zuen Zestoak. Gol ederra; hegaletik egindako urrutiko erdiraketa baten osteko bigarren baloia bolea ikusgarri batekin sarera bidali zuen Zestoako jokalarirekin. Banakoak min egin zion Mondrari eta orduan pasa

zituena norgehiagokako minuturik txarrenak. Urzelairen mutilek baloia zutenean ez ziren gai jokaldiak lotzeko eta hainbat minututan bazirudien ez zegoela zelai erdirik. Baloi luzeak nagusi eta jabetzarik ez; Beñat Corcuera aurrelariak lan handia egin behar izan zuen goitik heltzen zitzaizkion baloiak jaitsi eta taldekideen bati emateko.

Partidua azken txanpan sartzeraz zihola eta Mondrak arrisku handirik sortu barik, bigarren

zatiko 33. minutuan heldu zen garaipenaren gola. Gorka Erañak hegaletik ateratako falta baten osteko aldaratzea aprobetxatu zuten sarrailagileek 2-1koa egiteko. Beste askotan kontra izan duen zorrea aldeko izan zuen atzo Mondrak garaipena eskuratzeko. Zalegoak -aurreko urteekin alderatuz jende askotxo- epailearen hainbat erabaki kritikatu zituen.

Seigarren postuan dago orain Mondra, 14 punturekin. Liderra, Urola, bost puntura dago.

GORKA ERAÑA
MONDRAKO JOKALARIA

"Konfiantza apur bat hartu dugu eta bagoaz aurrera, poliki-poliki"

Pozik zegoen Gorka Eraña erdilari arrasatearra lehiaren amaieran.



Hirugarren garaipena jarraian. Kosta, hori bai.

Bai, asko kosta zaigu hiru puntuak lortzea. Ondo hasi gara baina gero berdindu egingo digute eta eskerrak amaieran lortu dugun, aldaratze baten bidez izan bada ere, gola egitea. Garrantzitsuena garaipena zen eta helburua lortu dugu.

Puntu bakoitza ondo izerditu beharra dago, ezta?

Bai, guri asko kostatzen zaigu partiduak irabaztea. Orain bolada ona hartu dugu eta honi eutsi behar diogu.

Bigarren zatia hasi eta berehala berdindu dute.

Lo irten gara eta lehen jokaldian berdindu egin digute. Heltzen zirenean arriskua sortzen zuten; talde osoak defendatzen du, ez atzelariak bakarrik. Jokalari guztiona da ardura eta guztiok hobetu behar dugu defentsan. Poliki-poliki, baina bagoaz aurrera.

Igoera da taldearen helburua.

Possible ikusten duzue?

Konfiantza apur bat hartu dugu; lehen postuetatik nahiko hurbil gaude. Orain, hurrengo irabaztera.

OHOREZKO ERREGIONALA



IMANOL SORIANO

Husnako berdinketa Bergarak

Ikuslearendako nahiko partidu asperrak jokatu zuten Bergarak eta Hernanik zapatuan Agorrosinen. Ez zen golik egon eta ezta aukerarik ere apenas. Etxeko entrenatzaile Aitor Arrateren arabera partidu "orekatua" izan zen eta zelai erdiko lehia izan zen nagusi: "Hernanik talde serioa dauka eta atzean oso sendoak dira. Guk hiru edo lau jokalarik min hartuta ditugu eta igarri dugu. Hala ere, pozik nago egin dugun lanarekin eta gaurko [zapatuko] puntua ona izango datorren jardunaldian garaipena eskuratzeko badugu".

Beste garaipen bat UDAk, "oso talde ona" duen Real Unionen aurka

EMAITZA	
ARETXABALETA	2-0
REAL UNION	

Oraingoz ez dago aurtengo UDA menderatu duen talderik, 27 puntutik 23 lortu dituzte Gorka Valleren mutilek. Atzo Real Union etorri zen Ibarra eta esku hutsik bueltatu ziren Irun aldera: "Oso talde ona dute, oso jokalarik onekin. Ez dute aukera garbirik sortu baina partidua oso lehiatua izan da, zabal", adierazi du entrenatzaile aretxabaletarrek. Urtzi Lopez eta Aitor Perezek egin zituzten golak atzo.

Bederatzi partidutan lau gol jaso dituzte kontrari eta aurkariak ez du oraindik Ibarako atea zulatatu. Konfiantzaz beteta daude, Hirugarren Mailara bidean.

Ordiziak gertuago izan du garaipena Aloñak baino; puntu ona oñatiarrendako

EMAITZA	
ALOÑA MENDI	1-1
ORDIZIA	

Aloña Mendik berdindu egin zuen atzo Ordiziaren aurka (1-1). Partiduko lehen minutuak ordiziarrenak izan ziren, batez ere gogor jokatu zutelako. Gero, baina, gora egin zuten oñatiarrek eta partidua orekatu zuten. Bigarren zatia hasi eta berehala iritsi zen Aloña Mendiren lehen gola, Josu Juaristiren eskutik. Etxekoek 2-0koa lortzeko aukerak izan zituzten arren Ordiziakoek ez zuten partidua galdutzat eman eta berdinketaren gola lortu zuten 62. minutuan, buruz egindako erremate bat esker.

Banakoaren ostean hurbilago ikusten 1-2koa 2-1koa baino eta beraz, oñatiarrek pozik egon daitezke lortutako puntuarekin.

Atezaina egotzi ostean aukera barik geratu da Antzuola, eta azkena da

EMAITZA	
TOURING	6-1
ANTZUOLA	

Jipoi galanta jaso zuen zapatuan Antzuolak Erreterian (6-1). Irabazten hasi ziren Jon Muruamendiaraz eta Ekain Garinen mutilek eta 35. minutura arte ondo ari ziren, baina lehen zatien amaieran egindako bi akatsen ondorioz etxekoek buelta eman zioten markagailuari. Gero, bigarren zatien hasieran kanpoko atezainak area kanpoan baloia eskuaz ukitu ostean, hamar jokalariren geratu ziren antzuolarrak. Hor amaitu zen partidua. Ordezko atezain barik, jokalarik bat jarri zen atezain lanetan eta golak bata besteari atzean heldu ziren. Antzuola azken sailkatua da.

SASKIBALOA

Zonakako defentsari aurre eginez bigarren garaipena lortu du MUK

- ▶ Askartzakoen aurka norgehiagoka gogorra jokatu dute arrasatearrek
- ▶ Hiruko marratik haratago bederatzi saskiratze egin dituzte etxeok

EMAITZA
MU
77-68
ASKARTZA

FITXA TEKNIKO

MU: Ceciaga (12), A.Atxa (12), Arejolaleiba (11), Saez de Cortazar (4), Balanzategi, Arantzabal (11), Barrena, Barbero (9), Kintana (16), M.Atxa (2).

Askartza: Murua (10), Montero (8), Mc Loughlin (6), Fernandez (16), Garrastatxu, Goti (2), Sainz de la Maza (7), Vela (5), Albisu, Tudela (10), Sistiaga (4).



Barbero taula azpian erasoan. | IMANOL SORIANO

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Partidu gogorra irabazi zuten Larreategiren mutilek. 5-0eko partzialarekin hasi ziren arren, Askartzakoen azkar berdindu zuten zonakako defentsari esker. Norgehiagoka osoan zehar zonakako defentsa erabili zuten, joko antolatzaileari presio handia eginenez. Larreategik baina, horri aurre egiteko hiru joko antolatzaile kantxaratu zituen; Ceciaga, Arantzabal eta Arejolaleiba. Horrela baloia azkarrago mugitu zuten eta atsedendira irabazten joan ziren etxeok; 37-31.

14 puntu sei minutuan

Hasiera paregabea izan zuen hirugarren laurdenak; bi minutu eta erdian 8-0eko partziala lortu zuten, Kintanaren bi hiruko eta Atxaren saskiratze batekin. Defentsan ere

hobeto ibili ziren etxeok eta Kintanak errezitaldia eman zuen 6,75eko marratik haratago; sei minututan lau hirukotik lau sartu zituen eta biko beste saskiratze bat. Hori eta Atxak taula azpian egindako beste bi saskiratzeei

esker, markagailuan 21 puntuko aldea lortu zuten etxeok; 56-36.

Lehia apurtzeko aukera paregabea izan zen, baina laurdeneko azken hiru minutu txarrak egin ostean, Askartzakoen markagailuan gerturatu ziren eta aldea

JOSU LARREATEGI
ENTRENATZAILEA

"Defentsan aurreko astean baino askoz ere hobeto ibili gara gaurkoan"

Denboraldiko bigarren garaipena lortu ostean pozik zen Larreategi.



Sufrituta baina garaipena etxean geratu da.

Bai, argi dago EBA mailan ez dagoela partidu errazik eta gaurkoan ere hala izan da. Defentsan pasa den astean baino askoz ere hobeto ibili gara, baina atzean errebote asko galdu ditugu. Aurrean ordean oso fin ibili gara hiruko marratik.

Iza ere, Askartzakoen zonakako defentsa erabili dute.

Partidu osoan zonakako defentsa erabili dute eta hori gehiago landu beharko dugu. Egia esan, aurtun aurkari askok defentsa hori erabiltzen dute gure aurka. Oraindik ere fisikoki ehuneko ehuneko egoteko falta zaigu, baina oso pozik gaude gaur garaipena lortu ostean, partidu gogorra izan da benetan.

bederatzi puntura jaitsi zuten; 58-49. Defentsan errebote larregi galtzeaz gain, falta asko egin zituzten eta erasoan kaosa zen nagusi. Azken laurdenean Askartzakoen defentsa oso agresiboa egin zuten eta norgehiagoka osoan zehar joko antolatzaileari presio handia egiteaz gain, beste jokalariek guztiei ere presioa egin zieten eta etxeok balaioa igotzea zaila egin zitzaizen. Hala ere, pixkanaka joko lasaitzea lortu zuten eta ikusleei sufritu arazi zieten arren, garaipena Iturripen geratu zen, denboraldiko bigarrena.

ESKUBALOA

Sailkapenean hirugarren daude Ford Mugarriko mutilek

Denboraldiko seigarren garaipena lortu zuten Pablo Gartziairen mutilek asteburua Beti Onak taldeari Atarrabian 29-34 irabazi ostean. Ekipo gogorra da nafarra, handiak eta beteranoak, hala ere, arrasatearrek bigarren zatian defentsan ondo estututa irabazi zuten norgehiagoka. Datorren astean Santoñaren aurka jokatu dute, laugarren sailkatua, eta sentsazio onekin eta ilusioz joango dira Kantabria aldera.

ESKUBALOA

Soraluze BKEko mutilek azken txanpara arte borrokatu dute, 29-28

Azken minututan galdutako partiduek min handia egiten dute, eta Soraluze BKE taldekoek ala sufritu dute asteburuan. Gasteiztarren aurka azken segundotan galdu zuten, Corazonistas taldekoek 30 segundoren faltan estrategiazko jokaldia ondo egin ostean bi goleko abantaila lortu zuten eta Muniategirenek ezin izan zuten irabazi. Hala ere, pixkanaka taldea konfiantza hartuaz doa eta sailkapenean gora egiteko aminos daude.

ESKUBALOA

Sailkapenean gora egiteko urratsa eman dute txantxikuek

Zumaiara joan eta garaipena ekarri zuten etxera Osinagak gidatutako neskek. Asador Basusta Pulpo KE taldearen aurka bi puntuko aldeetatik irabazi zuten Aloña Mendikoek; 26-28. Denboraldiko hirugarren garaipena lortu zuten oñatiarrek eta datorren astean Zubikoan jokatu dute Ereintza eskubaloia taldearen aurka, sailkapenean Aloñakoak baino postu bat beharago dagoen taldea,

PILOTA

Barriola eta Retegi Bi jaun eta jabe Eskoriatzan

Oñatin jokatu da egubakoitzean Xala eta Retegi Biren arteko Lau T'erdiko Txapelketako partidu

J.D. | ESKORIATZA

Joseba Inurrategi pilotalekua dotore jantzi zen atzo lehen mailako pilotariak jasotzeko; 400 ikusle inguruk arrasalde pasa polita egin zuten.

Barriola eta Retegi Bi bikoteak irabazi zuten arrasaldeko bigarren lehia Mtz. de Irujo eta Cecilioaren aurka; 22-12. Barriola k oso ondo jokatu zuen, ez zuen pilota bat bera ere galdu eta Retegi Bik ondo aprobetxatu zuen bikotekidearen jokoak. Mtz. de Irujo ere jokaldi ikusgarriak utzi zituen ikusleen-

tzako, baina Cecilio presaz jokatu zuen eta ezin izan zuten askorik egin. Lehenengo partidu Rezusta eta Jaunarena bikoteak irabazi zuten 22-5 Altuna III eta Merinoren aurka. Rezustak ez zion atsedenek ema Merinori eta partidu azkarra izan zen.

Sasoi onean dago taldea

Atzo Xala eta Retegi Biren artean jokatu beharreko Lau T'erdiko txapelketako lehia Oñatiko Zubikoa kiroldegia jokatu da, 22:00etan.



Xala eta Retegi Bi pilota hautaketa egiten. | IMANOL BELOKI

Arkaitz Ribera | Aretxabaletako areto-futbol taldeko entrenatzailea

"Euskal ligarako igoera fasea jokatu gurako genuke hamargarren urteurrena borobiltzeko"

- ▶ Aretxabaletako taldeak Gipuzkoako Lehen Mailako liga txapelketa jokatzen du
- ▶ 20 bat lagunek dihardute taldean lanean: tartean 16 jokalaria eta bi arduradun

MIREIA BIKUÑA | ARETXABALETA

Aretxabaletako areto-futbol taldeak 10 urte bete ditu. Gipuzkoako Lehenengo Mailan lehiatzen da egun eta taldearen asmoa igoera fasea jokatzeke txartela lortzea da. Arkaitz Ribera (Eskoriatza, 1983) zortzi urte darama taldean: hasierako seiak jokalaria moduan eta azken biak entrenatzaile lanetan.

10 urte bete ditu Aretxabaletako areto-futbol taldeak. Nolako bilakaera izan du?

Sei urte egin nituen jokalaria moduan eta azken bietan entrenatzaile gisa dihardut. Taldeak izan duen bilakaera itzela izan du. Lagun talde moduan hasi ginen. Jokalarietako baten aita UDAko presidentea zen eta jokatzen hasi ginen. Gipuzkoako Hirugarren Mailan hasi eta urtez urte, esperientzia hartu eta lana gogo handiz eginez, Lehen Mailaraino heldu gara. Taldea lau urte egon zen Hirugarren mailan; Bigarrenen beste bi eta azken laurak Lehen Mailan.

Emaitza aldetik bilakaera handia dudu barik. Baina, zenbat lan egin behar izan duzue taldeak biziraun zedin?

Lan handia. Hasieratik jokalaria ibili ginen taldearendako dirua topatzen: babesletzak, errifak eta bufandak saldu... Proiektua hazten zihoala ikusi genuenean, UDARI laguntza eskatu genion eta eskuzabal hartu gintuzten: taldearen inskripzioa, jokalarien fitxak ordaindu, partiduetarako arropak erosi...

UDAK laguntza ematen digu, baina areto-futboleko jokatzekoak kostua du guretzat: partiduetarako joan-etorriak gure poltsikotik ordaintzen ditugu, eta Aretxabaletako kiroldegian entrenatzeko bazkide izan behar dugu derrigorrez. Kantxa erreserbatuta izaten dugu, baina bazkide garela. Dena den, aurrera egingo dugu.

Eta kiroldegian ez bada, ez dago entrenatzeko beste lekurik?

Kiroldegia libre ez dagoenean Almenen entrenatu izan dugu, baina hango kantxak ez ditu Lehenengo Mailan jokatzeke baldintzak betetzen.

Nolakoa da areto-futboleko Gipuzkoako Lehen Maila?

Taldeak bi multzotan sartuko nituzke: esperientzia izan eta ondo entrenatzen duten taldeak, eta ondo pasatzeko elkartzen diren lagun koadrilak. Guk, bietatik daukagula esango nuke: serio eta gogotsu entrenatzen duen lagun talde bat gara.



Arkaitz Ribera, Aretxabaletako areto-futboleko entrenatzailea, eguneko entrenamendua hasi aurretik | MIRARI ALTUBE

Ze helburu duzue aurtengorako?

Euskal Ligarako igoera fasea jokatu gurako genuke. Horretarako, lehen lauren artean bukatu beharko dugu liga.

Aldaketa handia dago Lehen Mailatik Euskal Ligara?

Bai: joko aldetik eta arlo ekonomiko aldetik. Igoera lortzen badugu, ondo aztertu beharko dugu. Egun, gertuen jokatzen dugun partidua Tolosan da. Euskal Ligan Bizkaira eta Arabara joan beharko dugu eta horrek gastu ekonomiko handiagoa suposatuko digu.

"Taldeak aurrera egiteko lan handia egin dugu, batez ere arlo ekonomikoan"

"Baloia ondo jotzea eta ondo kontrolatzea inportantea da"

Zer moduz doa denboraldia?

Oso ondo. Lehenengo lekuan gaude. Bost partidutatik lau irabazi eta bat berdindu dugu. Dena den, denboraldia oso luzea da. 14 talde gara. Hortaz, 26 jardunaldi jokatu beharko ditugu.

Nolako taldea daukazu?

Jokalaria gazteak izan arren, esperientzia duen taldea garela esango nuke. Iaz jokalaria berri batzuk etorri ziren futboletik. Hutsetik hasi ziren, baina entrenamenduetan gogotsu ibili ostean, aurre maila ona ematen dabilta.

Adin tarte zabaleko jokalaria ditugu. Talde sendoa da.

Zein talde dira igoera fasean egoteko hautagai nagusienak?

Ez ditugu talde guztiak ezagutzen, baina Zaldibi eta Oiartzun aurrean egongo dira.

Aretxabaletarrek badakit areto-futbol taldea dagoela herrian?

Bai, badakite. Etxean jokatzen ditugun partiduetara zaleak joaten dira. Badaude koadrila batzuk ez dutela hutsik egiten.

Zer moduz doa denboraldia?

Oso ondo. Lehenengo lekuan gaude. Bost partidutatik lau irabazi eta bat berdindu dugu. Dena den, denboraldia oso luzea da. 14 talde gara. Hortaz, 26 jardunaldi jokatu beharko ditugu.

Aretxabaletarrek badakit areto-futbol taldea dagoela herrian?

Bai, badakite. Etxean jokatzen ditugun partiduetara zaleak joaten dira. Badaude koadrila batzuk ez dutela hutsik egiten.

Teknika ona izatea ezinbestekoa da areto-futboleko jokatzeko?

Baloia ondo jotzea eta ondo kontrolatzea ezinbestekoa da. Fisikoki ondo egotea ere beharrezkoa da. Aretxabaletako kirol esplosiboa da. Korrika asko egin behar da etengabe eta indartsu egotea beharrezkoa da. Atezain onak izatea ere oso inportantea da, eta guk bi oso onak ditugu.



Goian, ezkerretik eskuinera: Iker de Teso (presidentea), Iker Zugasti, Asier Manso, Julen Lozano, Andoni Gomez, Aitor Beloki, Joseba Errasti eta Jon Gurutzeaga.

Eserita: Joseba Fraile, Iker Barandiaran, Mikel Vicente, Unai Calzon, Arkaitz Ribera (entrenatzailea), Igor Olalde, Jon Kortazar eta Joseba Church. Argazkian, Adrian Gorostiza eta Igor Etxenagusia falta dira.

Jose Mari Goenaga | 'Loreak' filmeko zuzendaria

"Garrantzitsua da guretako 'Loreak' ikusi duenak gero beste bati gomendatzea"

- ▶ Aste bukaeran heldu da Debagoienara film ospetsua
- ▶ Estreinaldi batzuetan pelikulako egileak egon dira

JOKIN BEREZIARTUA | OÑATI

Oñatiko zapatu gaueko emanaldian egon zen Jose Mari Goenaga (Ordizia, 1976) *Loreak* filmeko zuzendaria. Estreinaldiekin hara eta hona dabilta orain: "Oso gustura gaude egiten ari den bidearekin". Gurera aste bukaeran heldu da eta asko izan dira filmaz gozatu duten herritarrak. **Loreak-eko parte zaretenok herriz herri ari zarete filma aurkezten. Nola doaz estreinaldiak?**

Oso ondo. Egia da nahiko apustu indartsua egin dugula lantaldetik estreinaldietara begira. Urriaren 31n estreinatu zen komertzialki eta ordutik, hara eta hona gabiltza. Bi zuzendari izatearen beste abantailak bat ere bada hori; batera joan ezin dugunean Jon [Garaño] alde batera doa eta ni bestera.

Azalpenak in situ emateko asmoz hartutako erabakia al da beste barik? Bai. Uste dugu jendea zinemara erakartzeko beste zerbait ere eskaini behar zaiola. Plus bat. Ez dakit hori nahikoa den, baina bai da zerbait ezberdina eta uste dut ikusleak eskertzen duela filmaren egileekin solasaldi bat izateko aukera.

Zapatuan, esaterako, Oñatiko kultura etxean egon zinen. Zer moduz? Oso ondo. Oñatin berezia izan da, bi aurkezpen egon direlako. Egubakoitzean Aitor Arregi egon zen filma aurkezten eta osteko galderei erantzuten eta zapatuan

biok egon ginen. Egia esan, zapatuko ez zen egunik errazena izan Oñatin bertan film laburren emanaldiak ere bazeudelako. Orokorrean oso gustura gaude filma egiten ari den bidearekin. Zinematan lurreratze indartsua egin dugu eta aste bukaera honetan bertan, adibidez, hainbat emanaldi egon dira. Herri askotan bost emanaldi izan ditugu. **Kritika onak nagusi eta harrera oso ona Donostiako Zinemaldian. Zer suposatuz dizue horrek?**

Ate asko ireki dizkigu. Arlo komertzialek, ikusleengana modu indartsuago baten heltzea ahalbidetu digu, ospea edo prestigioa eman digu. Baina industriaren ikuspegitik ere bultzada handia izan da guretako. Izan ere, publiko egiterik ez bagenuen ere, urtarilerako bagenekien Zinemaldiko Sail Ofizialean egongo ginela. Horrek industria barruan banatzaile bat eta salmenta agente bat lortzeko aukera eman zigun. Eta beste jaialdietarako ere Zinemal-

diko Sail Ofizialean egon izanak atek irekitzen dizkizu. *80 egunean* filmarekin alderatuta, alde nabarmenak igarri ditugu. Kasu gehiago egin digute, argi dago.

Horrez gain, ahoz-ahoko zabalkunde dago, garrantzitsua zuendako. Erabat. Guk ez dugu gaitasun handirik publizitatean inbertitzeke. *Loreak*-en aurrekoetan baino gehiago inbertitu dugu, baina argi dago ezin duzula, esaterako, Hollywood-eko produktuekin lehiatu. *Loreak* ez da masiboki kontsumitzeko produktu bat baina bai interesatzen zaigula kritika adituak gure alde izatea, besteak beste, ikusleari ahalik eta informazio gehien heltzea ahalbideratzen digulako. Hala ere, guretako oso garrantzitsua da *Loreak* zinematik ikusi duen horrek gero beste bati gomendatzea. Ea lortzen dugun. **Bi zuzendari. Nola egiten duzue lan?** Guztian bezala bere abantailak eta desabantailak ditu. Abantaila moduan ikusten dut, adibidez, norberaren ideiak kontrastatzeko aukera dugula. Hau da, ideia bakoitza bi burutatik pasatzen da eta epe luzera batez ere produktua depuratuagoa edo politagoa geratzen dela uste dut.

Baina,aldi berean, zerbait zure modura egin gura duzunean eta bestea ez duzunean konbentzitzen erdibideko zerbait egin behar izaten da. Hala ere, %90ean Jon eta biok ados egongo gara. Lan egiteko orduan, gidoiaren



Jose Mari Goenaga Oñatin, zapatuko emanaldia amaitu ondoren. | IMANOL SORIANO

erreprodukzioan batera egoten gara normalean. Gero errodatean, dena ondo zehaztuta dagoenean, Jon ekipo teknikoarekin egoten da bereziki eta ni gehiago aritzen naiz aktoreekin. Muntatzerako orduan berriro biok egoten gara. Horrek ez du esan nahi une jakin baten paperak trukatzeko ez ditugunik. Baina lanak banatu behar dituzu; errodatean dena oso azkar doa eta prozedura sistematizatu behar da.

Gizonezko zuzendariak hiru emakumeren gai intimoak jorratzen. 80 egunean-en ere emakumeak protagonista... Arrazoi berezirik badago? Bai, ez zara lehena hori galdetzen, ea nondik datorren gure interes hori. Guri iruditzen zaigu kasualitatea izan dela. Bi proiektuen

iturriak ezberdinak izan dira; *80 egunean* Jonen burutik atera zen, berea izan zen lehen ideia, gidoiaren lehen bertsioa. *Loreak*-en, ordea, alderantziz izan da, nirea izan zen lehen bertsioa. Bietan argumentutik argi zegoen emakumeen istorioak zirela oinarrian, baina horrek ez du esan nahi etorkizunean gizonezkoak ez direnik izango protagonista. Bi film luze horien aurreko film laburretan denetarik egin dugu.

Euskaraz ekoiztea, muga ala aukera? *Loreak* euskaraz egitea oso modu naturalean irten da. *80 egunean* erabat euskaraz egin genuen, nahiz eta hasieran elebitan egitea zen asmoa. Oraingoan, berriz, hasieratik garbi genuen euskaraz izango zela. Ez diogu buelta larregi eman; EAEn diru laguntza gehiago jaso ahal dira euskaraz egiteagatik eta Estatuan zailtasun gehiago dituzu, baina lortu ditugu batzuk. Komertzialki ez dago alde handirik; abantailak eta desabantailak daude.

Pozik zaudete bikoizketarekin? Bikoizketa lana ez da txarra, baina bikoizketa da. Egin beharreko zerbait zen, baina guretako beti izango da arraroa.

"Ikusleak eskertzen du filma ikusi ostean egileekin solasaldi bat izateko aukera edukitzea"

"Filma euskaraz egitea oso modu naturalean irten da, hori garbi izan dugu hasieratik"

Ibarrondoren omenaldian, Santa Ana goraino beteta

Antonino Ibarondo zenaren omenez hiru kontzertu antolatuta dituzte azarorako eta atzokoa izan zen lehena. Bere piezak ez ezik, Felix Ibarondo semearen lanak ere entzun zituzten Santa Ana antzokia bete zuten herritarrek. Hurrengo bi emanaldiak hilaren 16an eta 23an izango dira San Migel parrokian, 19:00etan.



JOSETXO ARANTZABAL



Egubakoitzean Zariaen egindako bertso emanaldi musikatuak. | I. SORIANO

Osoa, gozoa eta betea

Aretoa lepo eta jendea sartu ezinik gelditu zen 'Ez da kasualitatea' bertso musikatuaren emanaldirako

KOMUNITATEA GOIENA | LEKAIKOKA
BEÑAT ZAMALLOA AKIZUJ | ARETXABALETAKO

Aurrez jakinarazi zuten osagaiak ez zituztela kasualitatez aukeratu Aretxabaletako Lekai-koka bertso-eskolako kideek, eta saio gozagarria iragarri zuten ostiral iluntzerako. Eta bete zen iragarpena. Amaia Agirrek gidaturik eta Iker Laurobaren gitarrak eta Eneko Sierraren saxofoiak lagundurik, bertso musikatuaren emanaldi osoa eta gozoa osatu zuten Miren Amurizak, Jone Uriak, Onintza Enbeitak eta Beñat Gaztelumendik.

Osoa, gozoa eta baita betea ere. Izan ere, Arkupe kultur etxeko Zariaen aretoa lepo bete zen, eta sartu ezinik ere gelditu ziren hainbat. Herriko kultur emanaldietan inoiz gutxitan gertatzen den bezala, adinari dagokionez oso publi-

ko zabala izan zen: haur, gaztetxo, gazte zein helduek bete zuten aretoa.

Horren saio emankorrerako gakoak Amaia Agirrerren gaiak izan ziren. Gaietako asko tematikari dagokionez gaurkotasunezko eta ohiko gaiak izanagatik, planteamendu berezia eman zien gaiei Agirrek. Hargatik ia gai denek utzi zuten bertso gogoangarri bat baino gehiago. Hargatik eta bertso-lariengatik.

Agurren aurretik, entzuleen artean egin zuten azken bertsoaldia. Bakoitzari bina objektu eman zien Agirrek publikoan oparitu zituzten. Ariketarik umoretsuena eta entzuleak erabat piztu zituen izan zen hura. Hala, barrez eta gozatu- ta utzi zuten aretoa haur, gaztetxo, gazte eta helduek. Ez kasualitatez.

LPM Produccions taldeak sari bikoitza irabazi du Oñatiko laburmetraien rallyan

Jon Astigarragak eta Ainhoa Igartzabalek jaso dute lehen aldiz eman diren aktore onenen sariak

OIHANA ELORTZA | OÑATI
Bosgarren aldiz antolatuta dute Oñatiko Laburmetrai Rallya eta beste behin Santa Ana antzokia txiki gelditu da aurkeztu diren lanak ikusteko.

Hamalau taldek eman dute izena eta LPM Produccions taldeak irabazi ditu bai epaimahaia-

ren lehen saria (300 euro) eta bai publikoaren saria (100 euro). Bigarren saria Gero Pentzauku Produccions taldearendako izan da (150 euro) eta hirugarrena Kalabaza taldearendako (100 euro).

Aktore onenen sariak ere eman dituzte aurten lehenengo aldiz eta horiek Jon Astigarraga eta

Ainhoa Igartzabalendako izan dira. Bestalde, Soraluze ostaturaren saria Haizea Etxeberriaren-dako izan da. Parte-hartzaileen-dako gordeta zeuden eserleku baten azpian gorde dute bi lagunendako afaria gordetzen zuen saria eta eserleku horretan eseri denarendako izan da.

Sarean ikusgai

Aurkeztutako talde guztiak oñatiarrak izan dira aurten, antolatzailerak eta epaimahaiko kideak bezalaxe. Aurreko lau rallyetan bezala, aurten ere film laburren generoa eta agertu beharreko objektua zapatu goizean jakin zuten parte-hartzaileak, 08:00etan. Erotikofestiboa eta bonbilla, hain zuzen ere. Lanak 19:00etarako entregatu behar izan zituzten eta 21:30ean izan zen emanaldia. Lan horiek euren webgunean eskegi-ko dituzte antolatzailerak: olrallya.wix.com/olrallya.



Txantxiwood taldekoak kontzejupean grabatzen. | O.E.



Marimotots taldea grabazioa ikusten Lagun Lekun. | O.E.



LPM Produccions taldeak bi sari irabazi ditu: epaimahaia- ren lehena eta ikusleena. | IMANOL SORIANO

Gipuzkoa Pedalka

Gipuzkoan, bizikletaz eta bizikletagatik

Julen Iriandok aurkeztuta

► Eguaztena, 22:00

BABESLEA:



SAIO BERRIA

GOIENA TELEBISTA
Bertakoa eta sasoikoa



'Geure kolkotik' aurkeztu du Euskal Herriko Trikitilarien Elkartek Bergaran

- ▶ Proiektuan parte hartu duten bost trikitilarietako bat Aritz Alustiza bergararra da
- ▶ Diskoan jasotzen diren estilo ezberdinetako piezak entzun ahal izan ziren Zabalotegin

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Euskal Herriko Trikitilarien Elkartek urtero kaleratzen duen *Geure kolkotik* diskoaren aurten-go alea aurkeztu zuten atzo, domeka, Bergaran. Aurten ere bost trikitilari hartu dute parte; horietako bat Aritz Alustiza bergararra. "Kontzertu ona izan dela uste dut. Ni, egia esan, pixka bat arraro ere sentitu naiz entzuleak eserita ikusita, normalean ez baititut horrela ikusten, baina gustura egon naiz, bai", aitortu zuen Alustizak kontzertua bukatu ostean.

eta bakoitzak sortutako hiru pieza sartzen dira. Hala, nik reggae doinuak dituen abesti bat egin dudan moduan beste batek beste estilo batekoak sartu ditu", azaldu du Aritz Alustizak.

Lehen aldiz hartu du parte Alustizak horrelako proiektu batean eta erronka moduan hartu duela dio: "Normalean taldearekin eta kaleko giroan jo izan dut nik eta niretako berria izan da dena neuk sortzea eta horrelako emanaldi batean egotea".



Mikel Markez kantuan kontzertuaren lehen minutuetan. | JOSETXO ARANTZABAL

Maddi Elortzarekin

Domeka arratsaldean egin zuten kontzertua Bergarako Zabalotegi aretoan. Ordu eta erdiz jo zuten proiektuan parte hartu duten bost trikitilarietako lauk. Abeslaria ere ezin izan da etorri eta Maddi Elortza ikaslea izan du ondoan Aritz Alustizak. "Polita izan da kontzertua. Estilo ezberdinak entzun dira eta alde horretatik oso aberatsa izan da. Gustatu zait", adierazi zuen trikitilari bergararrak. Izan ere, norberak sortutako piezak osatzen dute diskoa. "Bost trikitilari ezberdinek hartzen dute parte urtero



Neskak panderoa eta esku-soinua astintzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Mutilak trikiti doinuak jotzen. | JOSETXO ARANTZABAL

Ikusi Makusikoeak barrez jarri dute publikoa, istorio xelebrearekin

- ▶ Pake Lekuko taldeak hamargarren lana taularatu zuen egubakoitzean
- ▶ Erretiratuendako zen saioa, eta Oñatiko Santa Ana hiru laurden bete zen



Aktoreetako bi, *Novedades en Villa Titiritaina* obrako une batean. | IMANOL SORIANO

JULEN IRIONDO | OÑATI

Oñatiko Pake Leku erretiratuen elkarteak Ikusi Makusi antzerki taldearen lanak arrakastatsu izan ohi dira, eta oraingoa ere ez da salbuespena izan. Asun Arzuagak zuzendutako hamargarren lana ikusteko itxura polita hartu zuen egubakoitz arratsaldean Santa Ana aretoak, eta bertaratutakoek ederki pasa zuten *Novedades en Villa Titiritaina* obrarekin, nahikoa barre eginez.

Aurrez taularatuak *Vivir en Villa Titiritaina* lanaren jarraipena da oraingoa, eta hartako lagun kuadrilla bera da protagonista. Oraingo istorioaren ardatza, baina, da adinean aurrera doan kuadrillako kideetako bik, bikote batek, guraso izan nahi duela. Umeak adoptatzeko ahalginean hasi eta mafia baten atzaparretan erortzen dira: hila-beteetako bi haur txiki beharrez 14 urteko bi mutiko pakistandar iristen zaizkie, eta zalaparta eragiten du horrek bikotean eta lagun taldean.

Une barregarri asko ditu lanak, eta publikoak algaraka erantzun zuen gidoiko hamaika pasarte bitxitan, erretiratu elkarteko

lagunak –Ikusi Makusi antzerki taldeko aktoreak– egoera xelebreotan interpretatzen ikusita.

Taldeko kideak gustura


"Gustura, oso gustura gaude. Aurten bagenuen beldurra ez zitzaigula oso ondo aterako, denbora gutxi izan dugulako gertatzeko; baina, azkenean, nik uste emaitza ona izan dela. Behintzat jendeari gustatu zaio, eta txalo egin digute", zioen saioaren amaieran Asun Arzuaga zuzendari eta gidoigileak; aktoreak ondo ikusi zituela ere bazioen.

Lan berria erretiratuei aurkeztuta, Ikusi Makusikoeak publiko orokorrari erakutsiko diote datozen asteetan, bai herrian bertan eta baita kanpoan ere. Izan ere, Gabonak baino lehen egingo dute Oñatin beste saio bat, baina aurretik, adibidez, Zegamara joatekoak dira. Horrez gain, hitzartuta dituzten emanaldien artean daude Santa Ana eta Benediktina komentuetan egingo dituztenak: "Oso pozik geratzen dira mojak". Erresidentziara ere joango dira, eta Gabon ostean beste herri batzuetara; ohi duten bezala, Gernikara, adibidez.

GURE MUSIKA TALDEAK



Lagash seikotea, gaur egun. | LAGASH



Diskoaren azala. | LAGASH

"Ondoan izan ditugun eta jarraitzen duten laguneiei eskainitako diskoa da hau"

- ▶ Hainbat urtetako isilaldia 'XX' bildumarekin apurtu du Oñatiko seikoteak
- ▶ '20 años' eta 'Amen' berriez gain, abesti zaharrak berriz grabatu dituzte

JAGOBA DOMINGO | OÑATI

Oñatira stonerra heldu aurretik, heavya ere existitzen zen, eta horren erakusle onena Lagash da. Hainbat urte oholtzatik kanpo eman ondoren, hogeigarren urteurrena ospatzeko lan berria kaleratu berri du seikoteak.

Zergatik XX?

Musikaren mundua agur esan barik utzi genuen, eta, gure ustez, beharrezkoa zen gure ondoan izan ditugun eta ondoan jarraitzen duten lagun eta jarraitzaileei esker ematea. Hori izan da diskoa

kaleratzeko arrazoi nagusia.

Azken urteotan nork bere ibilbidearekin jarraitu du; nolatan eta noiz elkartu zineten berriz, esku artean dugun bilduma egiteko?

Duela urtebete inguru, berriz ere harremanetan jarri ginen. Denok elkartu, eta hogeigarren urteurrena ospatzeko hainbat aukera aztertu genituen, eta, azkenean, lan berri bat kaleratzea erabaki genuen: *Lagash XX*. Diskoa bilduma bat den arren, ez da ohiko bilduma. Hogei kantuetatik bi berriak dira, *20 años* eta *Amen*,

eta aurreko diskoetan grabatuta dauden abestiak berriz ere grabatu ditugu. Uda aurretik, Interneten, aurrerapen bezala diskoan dauden lau abesti argitaratu genituen *XIX* izenpean; nolabait, orain heldu denari oihartzun handiagoa emateko egin genuen.

Kantu zaharrak berriz ere grabatu dituzue; alde handia dago?

Aukeraketa egitea ez da erraza izan, baina lan berrian dauden kantu guztiek Lagash bezala definitzen gaituztela uste dugu. Urte asko pasatu dira, eta, musikari

bezala aurrerapauso bat eman dugunez, kantuak berriz ere grabatzea erabaki genuen, abestiak hobetzeko esperantzarekin. Hori bai, argi geneukan abestien esentziak hor jarraitu beharko zuela. *20 años* eta *Amen* kantuek, adibidez, gure zigilua daramate, estilo bera, baina eboluzioa nabaria da.

Nolakoa izan da grabaketa?

Jorge Sanchez Lagasheko gitarra-ristaren etxean grabatu dugu. Denok egon garen arren, Sanchezek eta Angelek, beste gitarristak, egin dute lan gogorrena. Ordu asko eman dituzte bilduma kaleratzeko, batez ere Sanchezek. Urte honetan zehar prestatu dugu diskoa; izan ere, bakoitzak beste proiektu batzuk ditu, eta horri lana eta familia batuta... zaila da denbora ateratzea.

Urtebete hau lokalean eman duzue?

Ez, kantuak ez ditugu lokalean prestatu. Zuzenean estudioa jo genuen; esan bezala, bakoitzak beste proiektu batzuk ditu eta norberak etxean egin du lan.

Diskoa aurkezteko asmorik?

Hasiera baten, ez; hala ere, nork daki... Nahiko harrera ona izan du lagun artean. Diskoa nahi izanez gero, Internet bidez gurekin kontaktuan jartzeko aukeraz gain, Oñatin, Arrasaten eta Bergaran egongo da salgai; baita Amazonen eta Itunesen ere.

Hogei urtean asko aldatu da eszena?

Asko, eta txarrera. Talde askok oso esfortzu handia egiten dute eta ez dute erantzunik izaten; baina instrumentuak, amplifikadoreak, gasolinak... gastu asko daude. Orain, aisialdirako aukera asko daude; gure garaian, poteoa eta musika besterik ez zegoen!

Umeak hizkuntza arazoak dituela detektatzeko pistak

Maidar Eginogin logopedak eman ditu, gurasoen kezkei erantzuteko asmoz

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Silaben ahoskera desegokia, hitz toteltasuna, hizkuntza garapeneren atzerapena... Arazo horiek izan ohi dira gurasoak logopeden kabinetara kontsulta egiteko bideratzen dituzten arazoietako batzuk. Edozein arazo azkar detektatzeko, garrantzitsua izaten da horiei buruzko oinarritzko ezagutza bat izatea, eta, helburu horre-

kin, hainbat pista eman ditu Maidar Eginogin logopedak *Guraso.com* atarian.

Arazo ohikoenak

Badira haurtzaroan ohikoagoak diren hizkuntza arazoak. Eginoginok dislalia aipatzen du lehenengo eta behin. Azaltzen du doinu isolatu baten artikulazio desegokian datzala. Arruntenak *s* eta *r* doinuena

da. Haurrengan hizkuntza arazoak ohikoena eta identifikatzen errazena dela dio logopedak, eta funtzionala dela, ez organikoa.

Hizkuntza atzerapenaz hitz egin daiteke haurrengan adinerako ebolutiboki heldugabea den hizkuntza maila gertatzen denean. Garrantzitsua da lehenbailehen detektatzea.

Hizkuntzaren desoreka zehatza beste arazo bat da. Hizkuntza atzerapena duten haurrekin alderatuta, kasu honetan hizkuntza semantikoa eta pragmatikoa ere arazoak nabarmentzen zaizkie inongo arazo neurologikorik eta entzumen galerarik izan gabe.

Hitz toteltasunak soinu edo silaben errepikapena eragiten du. 2-5 urte bitartean ez da askorik kezkatu behar; hortik aurrera, baina, komeni da profesional baten iritzia eskatzea.

Disfonia, azkenik, gero eta arruntagoa da, batez ere eskola garaian. Haurrek garrasi egiten dutelako, katarroak dituztelako, negar egiten dutelako... Sarriegi gertatzen bada, komeni da adituarengana jotzea.



Mutikoa letrak ikasten. | CHRIS YARZAB

Hiperaktibitatea, gaitz asmatuen zerrendan

Jarrera arazoak gaixotasun mental bihurtu ote ditugun... iritzi kontrajarriak daude adituen artean

L.Z. | ARRASATE

Argia aldizkarian sakon landu dute gaia, eta deigarria da Arreta Gabeziaren Hiperaktibitate Nahasmendua delakoak adituen artean eragiten dituen iritzi kontrajarriak.

Hiperaktibitatea gaitz asmatuen zerrendan sartu dute Iñaki Berazaluzek eta Daniel Civantosek. Teoria berekoak dira *Volviendo a la normalidad* liburuararen egile Fernando Garcia, Hector Gonzalez eta Marino Perez.

Badira, aldiz, diagnostiko oker ugari egiten direla sinistuta dauden sendagileak. Allen Frances doktoreak, esaterako, onartu du sindrome eta patologia gehiegi izendatzearen erruz, ia gizarte osoa bihurtu dugula gaixo mental. Kontua da 1997a ezkerko 40 aldiz biderkatu direla diagnostikatutako kasuak. Horren ondorioz, beharrik gabe medikatutako haur asko dagoela diote adituek.

Hiperaktibo 'izan' edo 'egon'

Gabriela Dueñas piskopedagoak uste du estimuluz betetako, arrakasta errazera ohitutako eta gurasoen antsietateaz kutsatutako haurrak sortu ditugula egungo gizartearen. "Inguruak ez du lasaitasuna bultzatzen. Hamabi ordu-

ko jardunaldiak dituzten seme-alabak ditugu. Eta hori ez da hiperaktibitatearekin nahastu behar". Hala, defendatzen du gaixotasun mental edo buruko gaitz bihurtu ditugula berez jarrera problematikoak direnak.

Konplexua da bereizketa egitea. Hiperaktiboa denak arazo neurobiologikoa du burmuineko lobulo frontalean. Hiperaktibo dagoenak, ordea, gehiegizko estres edo antsietatea, muga falta, arazoak autoritatearekin... Eta garrantzitsua da ondo bereiztea ze "botikak hartu beharko ez lituzkeen haur asko dago hiperaktibotzat jo eta medikatua".



Haurra buruz behera jolasean. | TONY TRAN

Euskararen erabilera areagotzeko irizpide bila, Elgoibarren

L.Z. | ARRASATE

Euskararen ezagutzaren eta erabilerearen artean desoreka handia dagoela jabetuta, Elgoibarko Izarra euskara elkarteak bost orduko jardunaldia antolatu du azaroaren 28rako. Helburua da haurren eta nerabeen euskararen erabilera areagotzeko klabeak aztertzea eta hizkuntza-ohituretan eragiteko estrategia argiak finkatzea.

Elgoibarko Udalaren eta herriko hainbat eragileren laguntzarekin Euskal Herri mailako adituak izango dira jardunaldian: Kike Amonarriz, Iñaki Eizmendi, Koikili Lertxundi, Jose Mari Agirretxe *Porrotx*, Lorea Agirre, Iñaki Arruti, Naiara Martin...

Jardunaldian, eskola orduz kanpoko jardueretan zentratuko dira, eta haurrekin eta nerabeekin lotura zuzena duten sektoreak hartuko dituzte aintzat; kirola, aisialdia, familia, Udala... Sektore bakoitzari aditu batek helduko dio.

Izen-ematea zabalik

Jardunaldia ez dute soilik adituendako edo teknikariendako prestatu. Haurrekin eta nerabeekin harremanetan dauden agente eta eragile guztiak daude bertan parte hartzera gonbidatuta. Jardunaldia 09:00etatik 14:00etara egingo dute Elgoibarko IMH ikastetxean. Izen-ematea zabalik dute azaroaren 17ra arte.



Gazteen kale dantzak, Elgoibarren. | DONOSTIA SAN SEBASTIAN 2016

ARGITALPENA

'Munstro bat edukiontzian' 8-10 urteko gazteendako

L.Z. | ARRASATE

Maribel Aiertza idazle bizkaitarrak idatzi du *Munstro bat edukiontzian*. Ilustrazioa Mikel Santosena da, eta Elkar argitaletxeak kaleratu du eleberria, aurten. 8-10 urte bitarteko neska-mutikoendako gomen datzen dute.

Gorka da protagonista, eta mutikoa oso harriz dago auzoko edukiontzi barrutik irteten diren hots misterioetsuekin. Izan ere, zaborra eramatera joaten den bakoitzean izugarri beldurtzen dute hots horiek.

Mutiko ausarta da Gorka, eta azkenean erabakitzen du beldurra gainditzeko modurik onena eta zuzenena edukiontzia iren muntroa ezagutzea dela. Misterioa argitzea, ordea, ez da gauza erraza izango. Ausardia handia eta irudimena beharko ditu Gorkak. *Munstro bat edukiontzian* 48 orriko argitalpena da.

IRTEERA

Betoñuko urmaela Salburuako parkean, Gasteizen

L.Z. | ARRASATE

Bi kilometro eta erdiko luzera duen ibilbidea Betoñuko aintzira inguratzen du, eta 40 bat minutu beharko ditugu egiteko. Bidean hegaztiak ikusteko aukera izango dugu. Sarreratik gertu zuhaitz baten ondokigaitzen den bidea hartuko dugu. Erdibidean, ezkerretara biratuko dugu, eta zurezko hainbat pasabide erabiliz Durantzarreko aintzira zeharkatuko dugu. Hiritar eramatera joaten den bakoitzean izugarri beldurtzen dute hots horiek.



1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arretxabaleta. Etxebizitza salgai Andra Marin. Erabat berttua, bizitzera sartzeko moduan. Bi logela, egongela, sukaldia, komuna eta trasteleku. Berokuntza individuala, gasarekin. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 605743439 (M. Carmen) edo 645 00 90 03 (Ramiro)

Arrasate. Feliziano Aranzabalen, bi logelako etxebizitza salgai. 69,38 metro koadro. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 627 59 75 38

Bergara. Etxebizitza saltzen da Matxiategi 10ean. Bigarren solairua. 115 metro koadro. Eguzkitsua. Hiru logela. Berriztua dago eta igogailua jartzen ari dira. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 650 60 26 55

103. ERRENTAN EMAN

Arretxabaleta. Etxebizitza jantzia ematen da errentan. Egoera onean. Bi logela, egongela, sukaldia, komuna eta trasteleku. Berokuntza individuala, gasarekin. Andra Marin. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 605 74 34 39 (M. Carmen)

Elgeta. Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, jangela-egongela, sukaldia, komuna eta bainugela. Berokuntza eta igogailua. Egoera oso onean, eraikin nahiko berria. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 606 08 39 92 edo 679 56 84 78

Oñati. Etxebizitza berria ematen da errentan Kurtzebide kalean. Hiru logela eta bi bainugela. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 652 76 50 90

104. ERRENTAN HARTU

Baseri bila Debagoienan. Bikote arrasatearra Debagoienan edo inguruan errentan hartzeko baseri bila dabil. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 680 34 29 60 edo 699 28 99 06

Bergara. Hiru logelako etxebizitza hartu nahi dut errentan. Gehienez 500 euro ordain ditzaizket. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 602 03 33 56 (Carmelo)

Bergara. Bergaran logelabakarrak edo biko etxe bat errentan hartu nahi dut. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 616 39 49 91

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza errentan hartuko genukeen bi bergarar gazte gara. Ezinbestekoa errenta kontratua. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 608 78 77 71 edo 606 83 82 15

Oñati. Logela bakarreko edo biko etxebizitza hartu nahi nuke errentan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 647 24 40 54

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Erdigunean, Juan Carlos Gerra 5ean, logela ematen da errentan. 250 euro hilean, gastuak barne. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 699 78 87 36

Arrasate. Erdigunetik gertu etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dut. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 678 82 69 77

Arrasate. Etxea osatzeko pertsona bat behar dut edo, besteala, logela bat hartuko nuke errentan prezio onean. Neska arduratsua naiz. Maider. 634 43 31 79 edo 654 92 57 92

Bergara. Logela ematen da errentan Zabalotegi 11n. 602 07 12 06

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat beharko genukeen bi langile gara. Interesaturik egonez gero deitu mesedez 18:00etatik aurrera zerbaki honetara: 653 74 87 51

106. BESTELAKOAK

Etxebizitza aldatuko nuke. Gasteizen dagoen etxebizitza bat aldatuko nuke Aramaion antzekoa den beste baten truke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 672 28 30 38

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Mutil euskalduna behar da zaintza lanetarako. Bazkariak prestatu, paseatzera irten... Astelehenetik ostiralera, goizeko ordutegian. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 64970 23 90

Arrasate. Gizonezko euskalduna behar da astelehenetik ostiralera pertsona nagusi bati laguntzeko, 16:00etatik 9:00etara bitartean. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 619 18 12 81 edo 629 42 19 79

Emakume euskalduna behar da. Emakume euskalduna behar da Elgetako baserri batean etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 678 32 44 36

402. ESKAERAK

Arrasate eta inguruak. Neska euskaldun gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko gertu, arratsaldetan eta asteburuetan. Autoa daukat. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 639 44 86 30

Arrasate. 36 urteko neska astelehenetik ostiralera etxeko laguntzaile moduan aritzeko gertu. Egun osoz, orduka, gauz edota etxean bertan bizi izaten ere bai. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 678 80 96 01

Arrasate. Mutila goizetan nagusielaguntzeko prest. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 673 71 80 93

Arrasate. Neska gertu asteburuetan, orduka, nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 632 54 45 25

Bergara. Emakumea lanerako prest. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 658 31 06 20

Bergara. Adin ertaineko emakumea umeak eta nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 610 34 97 88

Bergara. Garbiketaren eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 688 65 10 22

Debagoiena. 56 urteko emakume euskalduna, geriatra laguntzaile tituluduna eskarmentuduna, orduka nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Nati. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 676 78 22 35

Debagoiena. 56 urteko emakumea lanerako gertu. Eskarmentua dut umeak zaintzen, etxe zein lantegien garbiketan zein tailerlean. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 647 10 58 72 edo 943 79 96 25

Debagoiena. Arratsalde edo orduka nagusiak zaintzen eta garbitasunean lan egingo nuke. Asteburuetan, etxean bertan bizi izaten ere bai. 622 05 30 57

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.eus/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAN ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Debagoiena. Dendari, sukaldia laguntzaile edo zaintza lanetan arituko nintzateke. Eskarmentua dut nagusiak zaintzen. Erreferentzia onak eta lege paperak ditut. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 666 92 49 27 (Sarina)

Debagoiena. Gizona lan bila, orduka nagusiak zaintzeko. Asteburuetan ere bai. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 602 07 12 06

Debagoiena. Haur hezkuntzako ikasle euskalduna goizetan umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 688 61 11 01

Debagoiena. Mutila etxeko lanak egin, nagusiak zaindu edo

ta sukaldia laguntzaile jarduteko gertu. Esperientzia daukat nagusien zaintzan eta lege paperak ditut. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 658 74 94 63 edo 632 26 01 84

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: eraikuntzan, gidari, sukaldia laguntzaile edota nagusiak zaintzen. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 636 60 48 51

Debagoiena. Mutila orduka zaintza lanak egiteko gertu. Eskarmentua eta erreferentziak daukat. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 662 43 08 54

Debagoiena. Nagusi edo umeak zaintzen eta garbiketaren lan egingo nuke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 678 84 35 81

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta etxeko garbiketaren lan egingo nituzke, orduka edo jardun osoz. Sukaldia laguntzaile eta zerbizari ere bai. Nahiago dut Arrasaten bada. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 658 31 06 20

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta paseoa laguntzeko, etxeko lanak egin, garbiketaren eta abarretan aritzeko gertu nago. Sukaldia laguntzaile ere bai. Josten, brodatzen eta arropak egiten ere badakit. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 631 10 76 99

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke eta garbitasun lanak egin ere bai. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 632 08 57 69

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Ez daukat gidabaimenik. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 677 83 37 23

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 678 84 45 28

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketaren egiten zein sukaldia pintxo eta abarrik gertatzen lan egingo nuke. Baita baserrietan ere. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Autoa daukat. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 697 20 00 86

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko, orduka garbiketaren edota sukaldia laguntzaile moduan lan egingo nuke. Hotelak garbitzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 695 73 87 95

Debagoiena. Urte askoan nagusiak zaintzen aritutako neska lanerako gertu. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 631 88 01 58 (Marlene)

Lan bila. Mutil gaztea lan desberdinak egiteko prest: adineko jendea zaindu, sukaldia laguntzaile, zerbizari. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 685 73 25 35

Oñati. Etxean bertan bizi izaten edo egunez lan egingo nuke. Etxe garbiketaren eta umeak zaintzen ere arituko nintzateke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 685 79 80 81

Oñati. Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest: orduka, asteburuetan, egun osoz, gauz edota egun soltetan. Ikasketak eta urtetako esperientzia. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 651 70 85 13

Sukaldaria. Esperientziadun sukaldaria lanerako gertu: menuak, pintxoak, ogitartekoak eta abar egiten urtetan aritutakoa. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 666 83 21 95

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Etxean eskola partikularrak jaso nahi ditut. Lehen Hezkuntzako 6. maila. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 629 62 60 15

Fisikako partikularrak. Fisikako ikasle ohia behar da larunbat goizetan Fisika graduko mekanika eta elektromagnetismoko partikularrak emateko. Iluntzetan deitu. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 673 21 62 83 edo 607 33 96 85

Kontabilitatea. Goi mailako ikasketak egiten ari den ikasle batek kontabilitateko laguntza eskolara jasoko lituzke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 688 63 68 43

Marrazketa eta materialak. Goi mailako Mekatronika ikasketak egiten dabilen ikasle batek marrazketa eta "materialak" arloetan laguntza jasoko luke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 696 14 88 95

Marrazketa tekniko. Batxilergoko lehenengo mailako marrazketa tekniko eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut, Arrasaten. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 669 87 24 54

502. EMAN

Eskoriatza eta Arretxabaleta. Lehen Hezkuntzako edozein gaitako eskola partikularrak ematen ditut. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 618 77 35 83

Debagoiena. Neska prest lan egiteko. Geriatriako ikasketak ditut. Ospitalean gaua pasatu edo etxean bertan gauak zaintzen. Autoa daukat. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 600 00 51 60

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke, 10:00ak eta 16:00ak artean, garbiketaren edo nagusiak zaintzen. Lan baimena eta lege agiriak daukat. 677 39 70 48

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke gauetan. Ana. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 695 96 98 74

Debagoiena. Pertsonak zaintzen, garbiketaren edota sukaldia laguntzaile moduan lan egingo nuke. Hotelak garbitzen lan egingo nuke. Autoa daukat. 636 11 23 40

8. DENETARIK

801. SALDU

Fagor sukaldia. Fagor sukaldia saltzen dut: 7 modulu goikoak eta 9 modulu behekoak, granitozko bi entzimerak eta bitrozamika. 1.200 euro. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 666 24 17 65

Logelako altzariak. Estilo klasikoko logelarako altzariak salgai. Sei ateko armairua (lau, ispiluekin), bikotearendako ohea, gau-mahaiak, komoda, eta ispilua bat. Egoera oso onean. Prezioa negoziatzeko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 655 93 98 76

802. EROSI

Mendirako eskiak. Mendiko eskiak erosiko nituzke. Baita botak ere. Saltzeko asmoa izanez gero, deitu hurrengo telefonora: 675 70 58 54

805. TRUKATU

Hizkuntza truke. Nik frantsesa erakutsiko nituzke, modu praktikoan, eta trukean ingelesez ikasi gura nuke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 630 05 91 98

Hizkuntza trukea. Alemana praktikatu nahiko nuke, C1 maila ikasten nago. Euskaraz, gaztelaz edo ingelesez hitz egin dezaket. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 657 72 51 65

806. GALDU

Belarritako Bergaran. Urriaren 24an, ostiralera, belarritako bat galdu zitzaidan. Aro bat da, bi zentimetro ingurukoa, eta brillanteak dauzka. Balio sentimental handia dauka. Norbaitek aurkituko balu eskertuko nuke nirekin harremanetan jartzeko. Eskerrik asko. 660 64 95 50

807. AURKITU

Patinetea Arretxabaletan. Santa Kurtz kaleko Briko-Lan denda parean patinete bat agertu zen urriaren 1aren bueltan. Denda galdetu. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 943 79 68 58

808. BESTELAKOAK

Arrasate-Elgoibar joan etorria. Arrasateetik Elgoibarrera eta alderantziz joaten naiz autoan egunerok, autobidetik. Arratsalde sartzan nahi eta iluntzetan Arrasatera bueltan. Norbait interesatuta balego eta gure ordutegiek bat egingo balute, gastuak partekatuko prest egongo nintzateke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 600 77 05 56 telefonora. 600 77 05 56

Leioara autoz. Leioako kanpusera Arrasateetik autoz, eta arratsalde, joaten garen bilagun gara. Autoa konpartitzeko interesak duenak zerbaki honetara dei dezake: 696 44 43 99

Oñati-Lasarte joan-etorria. Astelehenetik ostiralera Oñati-Lasarte, edo inguruko herriren batera, joan-etorria egiten baduzu, bidai-gastuak konpartitu ditzakegu. Goizez joan eta arratsalde bueltatzen naiz. Interesatuta bazaude, deitu telefono-zerbaki honetara. Eskerrik asko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 663 33 95 69

ETXKO SUKALDERAINO

Markel Uriarte | Orbea Meribel Enduro Crew-ko txirrindularia

- Bizikleta da aretxabaletarraren pasio handienetako bat
- Sukaldea edo etxea baino, nahiago du pedalak zapaldu

"Iaz Coloradora egindako bidaia gustura asko errepikatuko nuke"

ANDER LARRAÑAGA | ARETXABALETA
Ezaguna da Markel Uriarte (Aretxabaleta, 1991), Orbea Meribel Enduro Crew-ko txirrindularia izateagatik eta Tourmalet mendatea gurgil bakarrean behin baino gehiagotan igotzeagatik, hain zuzen ere.

Zelakoa da Markel Uriarte?

Nahiko pertsona lasaia da. Bizikleta hartuta da bizitza gehien gozatzen duen momentua. Momentu honetan nahiko lanpetuta bizi den pertsona da: lana, ikasketak eta maila honetako zaletasun bat ez da erraza bateratzea. Baina libre dituen momentu guztiak bizikleta gainean aprobetxatzea gustatzen zaion horietakoa; deskonektatzeko, batik bat.

Zein harreman daukazu sukaldearekin?

Egia esan, aitortu beharra daukat sukaldean oso txarra naizela. Nire eginbeharrengatik etxean egoteko oso denbora libre laburra dudanez, ia ez naiz sartu ere egiten.

Zertara gonbidatuko zenuke lagun onena?

Bazkari on batera, etxean eta lagun giroan.

Zeinek gustatuko litzaizuke mahaiaren bueltan eseri?

Bizikletan ibiltzen naizen lagu-

nak gonbidatuko nituzke bazkaltzera, esaterako, edo Alberto Contador bezalako txirrindulari batekin ere gustura egingo nituzke berba batzuk mahaiaren bueltan, hura hobeto ezagutzeko.

Zergatik txirrindulari?

Esan beharra daukat txirrindularitza ez dela nire ogibidea gaur egun; zaletasun bat besterik ez da, ez naizelako horretatik bizi. Txikitan hasi nintzen bizikleta-

ren gurgipen gainean ibiltzen, 8 urterekin, hain zuzen ere. Momentu honetan gehien gustatzen zaidana bizikletan ibiltzea da, asko gozatzen dut-eta: saiatzen naiz ahalik eta gehien ibiltzen, teknika hobetzeko asmoz.

Enduroaren munduan miresten duzun inor?

Ez dut idolo zehatzik. Norbait esatearren, momentu honetan, erreferentetzat Jerome Clementz enduroko txirrindulari frantsesa dudala esango nuke.

Txirrindularia ez bazina...

Nahiko zaila da esatea. Orain arte, nire bizitza txirrindularitzari eskaini diot, baina, zerbait esatekotan, korrika edo motor zale izango nintzatekeela uste dut.

Iratxoek hiru desio betetzeko aukera eman dizute.

Batetik, pairatzen ari garen krisi honetatik ateratzea; bestetik, osasuna niretzat eta nire familiako guztientzat; eta amaitzeko, ahalik eta hoberen bizi izatea, bai ni eta baita nire inguruko guztiak ere.

Damu zara...

Ez naiz ezertaz damutzen.

Anekdotarik?

Behin, Asturiasera joan nintzen lasterketa bat zela-eta. Aurreko



Markel Uriarte, eskaiera mekanikoak bizikletan jaisten. | IBEROBIKE

"Ezer ez da ezinezkoa, eta, saiatuz gero, nahi dena lor daiteke"

egunean mendian ibili nintzen, hurrengo eguneko zirkuituko ibilbidea ikusteko, oinez. Ordu laurden inguru falta zenean guztiz iluntzeko, hiruzpalau txakur agertu ziren, animalia baten atzetik. Hori ikusita, despistatu, eta ezagutzen ez nuen mendi batean hamabost kilometro ibili behar izan nuen maldan gora eta behe-ra, autora iritsi arte. Susto galanta izan zen hura.

Zer errepikatuko zenuke?

Iaz egindako bidaia, Coloradora, Freeride Festival de Winterpark-eko munduko kopako karreran parte hartzeko; duda barik, gustura asko errepikatuko nuke.

Lanetik etxera iritsi berri, sofan eseri eta...

Nahiko zaila izaten da ni etxean ezer egin gabe gelditzea. Normalean, ikasten jartzen naiz edo lagunekin elkartzten naiz bizikletan ibiltzeko.

Nora ospa egingo zenuke gustura?

Munduko txoko asko ditut gogoko. Pare bat aukeratzen jarrita, Alpeetara edo Kanadara joango nintzateke.

Ze esaldi konpartituko zenuke?

Ezer ez da ezinezkoa; saiatuz gero, nahi dena lor daiteke.



Lehen platera: Edozein motatako pasta.

Bigarrena: Txahal-txuleta patata errekin.

Postrea: Gazta-tarta.

Edatekoa: Ura.

PATRIZIAREN GUTZIA



Patrizia Vitelli

OILASKO MARINATU BURRUNTZIAK 'CHERRY' TOMATEAREKIN



Oilasko-burruntzia. | THE COOK ROCKER

Oraingo honetan, egiteko benetan erraza den errezeta ekarriko dizuet: soja-saltsan egindako oilasko-bularki burruntziak, cherry tomateekin lagunduta eta jogurt saltsarekin osatuta. Soja-saltsak ketutako ukitu nahastezina ematen die errezetei, eta nik, behintzat, oso atsegin dut. Batez ere, erabiltzen dut entsaladak, arroza, pasta, plantan egindako barazkiak... ontzeko.

Oilasko-bularkia marinatzera koan, gozo ukitua ematen dio soja-saltsak; oilaskoa Coca-Cola erara egiten denean hartzen duen zaporea gogorarazten dit. Eta zaporea ez ezik, bistarako ere oso erakargarria da soja-saltsak jakiei ematen dien kolorea.

Kaloria gutxi, mineral asko

Errezetak duen beste osagaiari dagokionez, berriz, atal honetan kontatu izan dugu tomatea Ameriketatik ekarri zutela Europara konkistatzaile espainolek XVI. mendean.

Dituen ezaugarrien artean, deigarria da tomateak duen kaloria kopuru txikia: 100 gramo tomatek 18 kilokaloria bakarrik ditu.

Fitxa

- Denbora: 45 minutu.
- Zailtasuna: ★★★★★

OSAGAIK

- Oilasko bularki bat.
- Cherry tomateak, 12.
- Olio.
- Gatza.
- Soja-saltsa (saltokietan saltzen dutena).
- Jogurt-saltsa egiteko: jogurt greko bat; olio; limoi erdiren zukua eta belar finak.

Duen pisuaren zatirik handiena urak ematen dio, adibidez.

Bestalde, zapore gozo samarra ematen diete dituzten azukre simpleek. Eta azido samarra, berriz, dituzten azido organiko batzuek. Esan beharra dago, baita ere, zenbait mineraletan aberatsa ere bade-

Prestaketa

1. Ontzi batean (tuper bat izan daiteke) olio txorrota bat jarri, kopuru bereko soja-saltsa txorrota, ondo txikitutako berakatz buruak eta oilasko-bularkia laukitan zatituta. Marinatzen utziko dugu hori guztia hiruzpalau orduz, oilaskoak zapore guztiak har ditzan. Noizean behin, nahasketari buelta eman.
2. Jogurt-saltsa egin, osagai guztiak nahastuta: jogurt natural kremaduna, limoi erdiaren zukua eta belar finak. Hozkailuan gordeko dugu, erabili behar dugun unera arte.
3. Oilasko marinatua zartaginean frijituko dugu, olio tanta batekin; eta albo bietatik gorritzen utziko dugu. Burruntzi-makilatxo batzuetan jarriko dugu lehenengo tomatetxo bat, gero okela zati bat, gero tomatetxo bat... Eta horrela, makilatxo bete arte.
3. Burruntziak aterako ditugu letxuga-hostoen gainean jarrita, eta jogurt-saltsa gainetik botata. Gozo-gozoa dela esatea gutxi da.

la; adibidez, potasio eta magnesio ugari ditu. Eta bitaminetan ere aberatsa da tomatea. Besteak beste, B1, B2, B5 eta C bitaminak ditu. Udako jakien artean, C bitamina gehien duena da.

Eta bitxikeria bat: likopenoa ere badu, tomateari kolore gorria

ematen dion pigmentua, alegia. Bada, hori eta C bitamina giza organismoa babesten duten antioxidatzaile garrantzitsuak dira. Likopenoaren kasuan, tomatea eta hortik eratorritako jakiak eta sandia kontsumituta sartzen dugu gure dietan.

Twitterri 900 milioiko audientzia kalkulatu diote

Konpainiak dio irabazialdian sartuko dela laster

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Trailerako, 284 milioi erabiltzaile zituen erregistratuta sare sozia- lak. Hedabide eta ohiko elkarrizketetan ere, hizpide da jada Twitter baina sarearen benetako inpaktuaren datuak beti lausoak izan dira. Konpainiak berak, orain, audientzia ikertu eta datuak eman ditu jakitera. Twitterren arabera, 600 eta 900 milioi erabiltzaile artean koka daiteke audientzia globala. Kopururik handiena kalkulatzeko, sare sozialeko erabiltzaileak bakarrik ez, *logeatu* barik irakurtzen dutenak eta bestelako webguneetako txertaketen bidez ere irakurtzen duten erabiltzaile kopurua hartu dute

kontuan, izan ere, hedabide askotan jasotzen dira zuzenean Twitterren esandakoak. Dick Costolo zuzendari nagusiak emandako datuak dira eta audientziarekin batera, konpainiak egiten duen diruaren berri ere eman du Costolok. Hala, aurtengo hirugarren hiruhilekoan galerak izan dituzte, 175 milioi dolar uztaila eta iraila bitartean baina zehaztu gura izan dute iaz baino %115 salmenta handiagoak izan dituzte eta iragarri dute laster irabazi epean sartuko direla. Twitterren irabazien %88 zuzenean publizitatetik sartzen da eta gainontzeko %12a jasotzen dituzten datuen salmenta ala lizentziarengatik

eskuratzen dute. Guztira, urtean 1.200 milioi dolarreko negozioa egiten du Twitterrek eta azken hilabeteetan sarrerek oso gora egin dute.

Datuen gerra

Datuen norgehiagoka erabatekoan dira Twitter eta Facebook. Biek gura dituzte euren buruak aurkeztu iragarleentzako ahalik eta erakargarrien, baina benetako inpaktua adierazteko metrika adosturik ez dago eta sare sozial bakoitzak bere onurarako publizitate datuak erakusteko metrika propioak garatu dituzte. Kopuruak kopuru, inpaktu objektiboa oraindik neurtzeko dago.

Mezua irakurri dela erakusten du WhatsApp-ek ikur bikoitz urdinarekin

J.B. | ARRASATE

Asmoen berri aspaldi jakin zen eta frogak egin eta gero, WhatsApp aplikazioak jada jakinarazten du, hartzaileak bidalitako mezua jasotzeaz gain, irakurri egin ote duen. Horretarako uve itxurako ikur bikoitz urdina erabiltzen du aplikazioak. Honela, hiru dira aplikazioak mezua erabiltzean emateko darabiltzan ikurrak: berde bakarria mezua bidali dela esateko, berde bikoitza bidalia bai, eta hartzaileak jaso egin duela adierazteko eta, hirugarrenik, berria, urdin bikoitza, jasoa eta irakurria izan dela erakusten duena. Hain zuzen, mezua erabiltzean emateko modu ezber-

din horiek txarto-ulertu bat baino gehiago eragin izan dute erabiltzaileen artean, askok ulertzen baitzuten ikur berde bikoitzarekin mezua irakurri egin zela adierazten zela. Ikur urdinarekin, orain argi berezitu gura izan dituzte mezua banatu egin dela batetik, eta, bestetik, hartzaileak irakurri egin duen ala ez.

Pribatutasuna kolokan

Berrikuntza ezarri bezain laster erabiltzaile askok haserrea erakutsi dute uste dutelako zalantza jartzen duela pribatutasuna, hartzaileak mezua irakurri egin duela jakinda, nabarmen gera baitaiteke.

Foursquare-en gainbehera azkarra baieztatu dute datu berriek

J.B. | ARRASATE

Estrategia berriarekin – bi aplikaziotan banatzea eta *check-in* ezagunak jatorrizko aplikaziotik kanpo lagatzea –, zalantza ugari piztu zituen Foursquare-ek. Azken hilabeteetan, kritika txarrekin eta Swarm aplikazio berriaren zabalkunde urria tarteko, aurreikuspen txarrak baieztatzen zebiltzala argi geratu da.

Abuztuan biziagotu zen beheranzko malda. Bi aplikazioen deskarga kopurua oso nabarmenki murriztu eta *check-in*-en kopuruak ere aurrekaririk gabeko beherakada jasan zuen.

2010 urtean, Foursquare abiatu zutenetik ez da halako murrizketarik egon. Bai Googlen Play dendan eta baita AppStorean ere, deskargatuenen zerrendaren goiko aldetik zerrenda bertan galtzera igaro dira bi aplikazioak azken 12 hilabeteetan.

Erabilera

Alorrean Yelp aplikazioa gailendu zaio, askoz ere planteamendu sinpleagoarekin eta gomendioetan ardatzuta. Hala ere, Foursquare-ekin azaldu dute erabilpen datuak onak direla eta heren batek jada bi aplikazioak erabiltzen dituela.



Twitter irudikatzen duen marrazkia. | UPLIFTED.NET

Mugarik gabeko tarifa laua ezarri du Amazonek Kindle-etarako

J.B. | ARRASATE

Kindle Unlimited zerbitzua aurkutu du Amazonek, bere irakurgailu digitalentzako. Hilean 9,99 euroren truke, 700.000 obra jarri ditu harpidedunentzako mugarik gabe eskuragarri. Kindle gailuetan eta iPhone, iPad, Android, Windows Phone, Blackberry, PC Mac eta Windows 8 sistemetako doako aplikazioetan erabili ahal da zerbitzu berria.

Garaikideak eta klasikoak

Zerbitzuan eskainiko diren liburu eta testuak *Kindle Unlimited* idatzita daraman logotxo izango dute alboan. Literatura garaikideko lan ugari eta baita klasikoak ere aurki daitezke zerbitziaren zerrendan. Oraingo gehienak ingelesez daude baina Amazonetik agindu dute zerrenda handitzen joango direla.

iMessage da mezularitza aplikaziorik seguruena

J.B. | ARRASATE

Electronic Frontier Foundationen ikerketa batek dio Applen iMessage eta Facetime direla komunikazio aplikazioei dagokienetako seguruena. WhatApps, Googlen Hangouts ala Facebooken Messengerrekin alderatuta. Segurtasuna neurtzeko arretaz begiratu dituzte zifratze kodea eta segurtasuneko ezabaketan. Applen aplikazioen kasuan, ikertzaileek diote igorleak bidali eta hartzaileak jaso bitartean, kodetutako informazioa, kudeaketa tarte horretan, zerbitzuaren hornitzaileek ez ulertzeko moduko zifratze baten bitartez egiten dela. Halere, ikerketak berak ohar-tarazten du Applek ez duela bere zerbitzu guztietan jokatibide hori bera aplikatzen.

Gmail berriak kontu bat baino gehiago hartuko du aldi berean

Gmail posta elektronikoko kudeatzailearen 5.0 bertsioak aldi berean kontu bat baino gehiago kudeatzeko aukera ekarriko du, erabiltzailez aldatzen ibili beharrik gabe. Googlenak ez diren kontuak ere onartuko ditu Gmail berriak. Gainera, Androiden banaketa berriarekin batera diseinatu ukitu eta itxura berria dakar aplikazioak.

Apple Watch berria otsailaren 14an ipiniko dute salgai

Frantziako webgune batek jakin eta hala zabaldu dutenez, San Balentin egunez nahiko luke Apple-ek bere gailu berria merkaturatu jarri. Apple-ek azaldutako asmoen barruan sartzen da hori, erlojuaren aurkezpen egunean iragarri zuten, udaberriarekin bat merkaturatzeko asmoa agertu baitzuten.



WWW.HAT'S NEW

Anbulantzia-dronea, laster

Desfibriladore bat, ekipamendu medikoa, webcam bat eta komunikazio tresnak dauzkan drone baten lanean dihardute. Hiri bateko kokapen estrategikoetan ipini eta asmoa litzateke istripua geratu eta berehala iristea droneak, berehala artatzeko. Webcam baten bitartez ospitalearekin harremanetan jarri eta argibideak jaso ahalko liriteke, gainera, istripuaren tokian bertan. Merkaturatu 5 urte barru egotea da asmoa.

TELE-BEGI

OIHAN VEGA



Buenafuente, 10. urteurrena

Eskerrak Buenafuente-
ren umore argia agor-
tezina den, telebistan
azkenaldian ikusten
ari garen zabor guztiaren
artean arnas apur bat hartzen
baitugu artista kataluniar
horrek.

Egia da geroz eta beran-
duago egiten duela bere ager-
pena telebistako pantailan;
prime time-etik aldendu eta
late night ordutegian eroso
kokatu baita, gaueko lehen
orduak dakarren audientzien
gudatik urrun.

10 urte daramatza dago-
neko gure bizitzan (20 urte
Katalunian) eta egia da, aka-
so, bere umorea zertxobait
zaharkitua edo desfasatua
geratu dela, baina oso ondo
eman dio buelta gabezia horri
Berto Romero bezalako ezku-
tari fidela alboan ezarriz.

Romero saiatu zen Bue-
nafuentez mozorrotu eta Para-
mount Channel katean bere
saio propioa izaten, baina
futboleant gertatzen den beza-
la, batzuetan, aurrelari onenak
ez dira ezer bere alboan
gol pasea ematen dion erdi-
lari gabe. Hori dela eta,
bien arteko indarra ongi bai-
no hobeto baliatzen jakin dute,
originaltasuna eta entretenim-
endu osasuntsu eta adimen-
tsua aldarrikatuz. Eskerrik
asko, Buenafuente.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 10



Behobia-Donostia

Atzo, domeka, egin zen
Behobia-Donostia
lasterketaren laburpe-
na eskainiko da kirol
saioan. | 22:00

MARTITZENA, 11



Erreportajeak

Txomin Madinak aur-
keztutako *Debagoiena*
zuzenean saioan bi
erreportaje ikusi ahal
izango dira. | 20:00

EGUAZTENA, 12



Sare sozialak

MUko irakasle Amaia
Pavonek sare soziale-
tan dauden berrien
gainean berba egingo
du. | 20:00

EGUENA, 13



'Amaia DJ'

Whatsapp, Twitter eta
Tuenti bitartez gaz-
teek eskatutako
bideoklipak jarriko dira
musika saioan. | 22:00

EGUBAKOITZA, 14



'Berriak'

Egunean zehar Deba-
goiengan gertatutako
albiste esanguratsue-
nak jasoko dira albis-
tegien saioan. | 14:30

12:00 Debagoiena zuzenean

13:00 Pausoan

13:25 Zorion Agurrak

13:30 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 Erreportajea

15:30 Onein

16:00 Debagoiena zuzenean

16:30 Berriak

17:00 Kulturizketak

17:30 Pausoan

18:00 Ur eta lur

18:25 Zorion Agurrak

18:30 Berriak

19:00 Amaia DJ

19:30 Kulturizketak

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 Harmailatik

22:30 Debagoiena zuzenean

23:00 Berriak

23:30 Kulturizketak

00:00 Debagoiena zuzenean

00:30 Berriak

12:00 Debagoiena zuzenean

12:30 Harmailatik

13:00 Sasoi betean

13:25 Zorion Agurrak

14:00 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 Harmailatik

15:30 Onein

15:55 Zorion Agurrak

16:00 Debagoiena zuzenean

16:30 Berriak

17:00 Amaia DJ

17:30 Bertso saioa

18:15 Ikusmira

18:25 Zorion Agurrak

18:30 Berriak

19:00 Idemtitateak

19:30 Harmailatik

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 Harira

22:30 Debagoiena zuzenean

23:00 Berriak

00:00 Debagoiena zuzenean

00:30 Berriak

12:00 Debagoiena zuzenean

12:30 Harira

13:00 Euskal egitura

13:30 Bertso saioa

13:55 Zorion Agurrak

14:00 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 Sasoi betean

15:30 Onein

16:00 Debagoiena zuzenean

16:30 Berriak

17:00 Harmailatik

17:30 Kontzertua

18:25 Zorion Agurrak

18:30 Berriak

19:00 Harmailatik

19:30 Harira

19:55 Zorion Agurrak

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 Gipuzkoa Pedalka

22:30 Debagoiena zuzenean

23:00 Berriak

00:00 Debagoiena zuzenean

00:30 Berriak

12:00 Debagoiena zuzenean

12:30 Gipuzkoa Pedalka

13:00 Idemtitateak

13:30 Ur eta lur

13:55 Zorion Agurrak

14:00 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 Bertso saioa

15:25 Zorion Agurrak

15:30 Onein

16:00 Debagoiena zuzenean

16:30 Berriak

17:00 Harira

17:30 Erreportajea

18:00 Ikusmira

18:25 Zorion Agurrak

18:30 Berriak

19:00 Sasoi betean

19:30 Gipuzkoa Pedalka

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 Amaia DJ

22:30 Debagoiena zuzenean

23:00 Berriak

00:00 Debagoiena zuzenean

00:30 Berriak

12:00 Debagoiena zuzenean

12:30 Amaia DJ

13:00 Ikusi irratia

13:55 Zorion Agurrak

14:00 Debagoiena zuzenean

14:30 Berriak

15:00 Amaia DJ

15:30 Onein

16:00 Debagoiena zuzenean

16:30 Berriak

17:00 Gipuzkoa Pedalka

17:30 Ikusi irratia

18:15 Ikusmira

18:25 Zorion Agurrak

18:30 Berriak

19:00 Ur eta lur

19:30 Amaia DJ

20:00 Debagoiena zuzenean

20:30 Berriak

21:00 Debagoiena zuzenean

21:30 Berriak

22:00 Kulturizketak

22:30 Debagoiena zuzenean

23:00 Berriak

23:30 Amaia DJ

00:00 Debagoiena zuzenean

00:30 Berriak

ARRASATE IRRATIA

Pirritx eta Porrotxen ikuskizun berrirako sarrerak zozketan

Eskoriatzan hilaren 22an eskai-
niko dute Pirritx eta Porrotxen
Txo, mikmak txikia ikuskizun
berria. Bertara joateko sarre-
rak lortu nahi badituzu parte
hartu zozketan [irratia@goie-
na.com](mailto:irratia@goie-
na.com) helbidera idatzita, edo
bestela, 943 25 05 05 telefo-
na deituta. Animatu eta parte
hartu aste honetako zozketan!

Kataluniako kontsulta berbeta gai gaur, astelehena, 11:00etan

Arrasateko Gure Esku Dago-
ko kide den Jon Etxebarriak
Kataluniatik jarraitu du ber-
tako kontsultaren kontua eta
hark kontaktuko du nola bizi
izan zuten atzoko eguna. Gaur,
astelehena, 11:00etan entzun
ahal izango da elkarrizketa
Arrasate Irratiko *Igo autobu-
sera!* irratsaioan.

Zapatuko baseritarren azokaren nondik norakoak, eguaztenean

Hileko hirugarren zapatuan,
hilak 15, baseritarren azoka
egingo da Arrasaten ohi
moduan eta azokari buruzko
xehetasunak kontatzen izan-
go da Arrasate Irratiko 107.7ko
uhinetan Enplegu eta Garapen
teknikaria den Marga Gar-
mendia. Eguaztenean, hilak
12, *Igo autobusera!* irratsaioan
izango da 11:00etan.

TELE-ALBISTEAK

Hesian taldeko Fran Urias egubakoitzeko 'Kulturizketak' saioan

'Hegalak astinduz' izeneko disko berriari buruz hitz egingo du Larraitx Zeberio aurkeztutako saioan



Fran Urias, Hesian taldeko gitarrista eta abeslaria. | JAGOBA DOMINGO

AMAI TXINTXURRETA | ARRASATE

Joan den asteko egubakoitzean
estreinatu zen Goiena telebistan
askotariko arte edo kultura adie-
razpenetako sortzaileak elkarriz-
ketatuko diren *Kulturizketak*
izeneko saioa. Estreinaldian, Berri
Txarrak taldeko Gorka Urbizu
izan zen gonbidatua, eta aste
honetan, berri, Hesian taldeko
gitarrista eta abeslari Fran Urias
taldekidea izango da Larraitx
Zeberio aurkeztutako saioko
protagonista.

Udan grabatzen izan diren
eta kaleratu berri duten *Hegalak*
astinduz diskoari buruz hitz egin-
go du Hesianekoak. Urtebete
inguru diskoa lantzen ibili ostean,
azaroaren 28an itzuliko dira ager-
tokietara, Bilborock jaialdian.
Kantu landuagoz eta lasaiagoz
osatutako lana kaleratu dute
oraingoan, eta Durangoko Azokan
ere izango dira euren lana aur-
kezten; abenduaren 5ean, eguba-
koitza, Plateruenan eskainiko
duten kontzertuan. Gaur egungo
musika sorkuntzari buruz ere
emango du bere iritzia Hesiane-
koak egubakoitzeko saioan.

Xabier Bengoetxea 'Harira'-n

A.T. | ARRASATE

CNA taldeak erosi duen Fagor
Etxetresnetako enpresa berri-
ko presidentea Xabier Bengoe-
txea izango da *Harira* saioko
gonbidatua bihar, martitzena,
22:00etan.

Enpresa berriaren Gara-
gartzako eta Eskoriatzako
lantokien gainean jardungo
du, baita Bergarako zein Ede-
sako enegoeraren gainean
ere. Enpresa berriaren asmoak,
aurreikuspenak e.a. izango
ditu berbeta gai eta, bestalde,
Fagor Etxetresnak itxi eta
urtebetara, epe horretan bizi
izan dituen gainean ere
hausnartuko du Bengoetxea.
Kontu horiei eta gehiagori
buruz jardungo du Bengoe-
txeak, Eneko Azkaratek aur-
kezten duen *Harira* saioan.

Usurbildik Azkoitira bizikletaz

A.T. | ARRASATE

Gipuzkoa pedalka saioaren
eguztenean atalean (22:00),
Julen Iriondo kazetariak Usur-
bildik Azkoitirako bidea egin-
go du bizikletaz.

Tartean, Zarautzen hitzor-
dua egingo du *Pedalka*-k
Ainhoa Murua triatletarekin.
Bizikletarekin batetik beste-
ra mugitzeko bere herria ondo
prestatua dagoela zioen
Murua, eta hori baieztatze-
ko Zarautzko Udaleria ere joko
du *Pedalka*-k, zehazki bizikle-
ta bidezko mugikortasunaren
ikuspegitik zertan ari diren
ezagutzeko. Zarautzik Zumaia-
ra itsasoaren aldamenetik
joango da gero Iriondo bizi-
kletaz eta eguaztenean egin
beharreko ibilbidea Azkoitian
amaituko du.

ZORION AGURRAK



OÑATI
Kimetz Korta Iñarra
Azaroaren 15ean, 5 urte.
Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi bat etxeko guztion partetik.



ESKORIATZA
Auritz Iñurrieta
Azaroaren 3an, 18 urte.
Zorionak, artista! Oso ondo pasatu zure egunien Bilbo aldetik eta ganoraz ospatu, 18ak behin bakarrik betetzen die-eta! Guk be asteburu ospatukou.



ARRASATE
Arrate Bergaretxe Astigarraga
Azaroaren 14an, 6 urte.
Zorionak, Arrate! Muxu potolo bat guztion partetik, bereziki Saioak.



BERGARA
Amets Urbina Olaso
Azaroaren 14an, 8 urte. Zorionak, polit hori! Etxeko danon partetik, jarraitu oin arte bezela poz-pozik bizitzen!



ARRASATE
Naroa Kortabarría Maskariano
Azaroaren 13an, 8 urte.
Zorionak, printzesa! Ondo pasatu eguna. Muxu handi bana: Uxue, amatxo eta aitatxo.



LEINTZ GATZAGA
Maren Urrutia Fernandez
Azaroaren 11n, 7 urte. Zorionak, printzesa, aitatxoren eta amatxoren partetik. Ondo pasatu. Mila muxu eta besarkada.



BERGARA
Aner Larrea Gantxegi
Azaroaren 10ean, 6 urte.
Zorionak, txapeldun! Iritsi da azkenean zure urtebetetzea. Primeran pasatu eguna! Mila muxu etxekoen eta, batez ere, Norar eta Unaxen partetik! Askok maite zaitugu!



OÑATI
Aiur Biain Ezkibel
Azaroaren 11n, urtebete. Zorionak, bihotza! Akordatu orduko pasatu da urtia. Etxeko danon partetik patxo goxo bat, zarata eta guzti, zuk emuten dozun moduan! Pa.



ARETXABALETA
Pello Jauregi Unzueta
Azaroaren 10ean, 2 urte.
Zorionak, maittia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunien eta patxo potolo pila etxeko guztien partetik. Aupa, txapeldun, segi horrela!



OÑATI
Izadi Garcia Aramburu
Azaroaren 9an, 2 urte.
Zorionak, *prexioki!* Bi urtetxo beteta. Patxo handi bat aitatxo, amatxo eta familixa danaren partetik.



OÑATI
Hodei Iriondo Ugarte
Azaroaren 8an, urtebete. Zuk urtebete gurekin, Hodei; eta guk, urtebete laino baten! Zorionak, txiki! Eta patxo asko, bat tia Oihanaren eta tio Marcoren partetik!



OÑATI
Beñat Oleaga Mugarza
Azaroaren 8an, 5 urte.
Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat danon partetik, goxuenak Anttonen eta Marenen partetik.



BERGARA
Naia Ibarzabal Aranzabal
Azaroaren 5ean, 2 urte.
Zorionak, Naia, polit hori! Egun ona pasatu lagun eta familia artean, etxekoen partetik. Muxuak.



ARETXABALETA
Mikel Crespo
Azaroaren 4an, 18 urte.
Zorion beroenak zure unibertsitateko lagunaren partetik! Muxu bat!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaituz Goiena.eus atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko
11:00ak arte
jasotako zorion agurra
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak
hurrengo astean
argitaratuko ditugu.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

Goiena: irakurriena Debagoiengan.**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea**Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*maribi 617 44 21 55
BERGARA

ESKER ONA

**Jose Luis Uralde Ugarte**

Aretxabaletan hil zen 2014ko azaroaren 7an, 68 urte zituela.

Emaztea: Kontxi Lasagabaster. Seme-alabak: Unai, Ainara eta Ibon Arriola. Biloba: Magali. Anai-arrebak, ezkon-anai arrebak, ilobak eta gainerako senideak.

Haren aldeko hileta zapatuan izan zen, azaroaren 8an, 19:00etan, Aretxabaletako Jasokundeko amaren parrokian.

Bertara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenei, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2014ko azaroaren 10ean.**JAIOTAKOAK****Ibai Fernandez Plumed**

Bergara 3,120 Kilo. Azaroaren 7a. Gurasoak: Susana eta Jose Miguel. Argazkian, Ibai jaioberria gurasoekin.

**Lizar Zumarraga Gomez**

Elorrio 3,680 Kilo. Azaroaren 5a. Gurasoak: Itxaso eta Karlos. Argazkian, Lizar, amaren besoetan.

**Malen Isasi Conchas**

Eibar 3,060 Kilo. Azaroaren 3a. Gurasoak: Mirian eta Iker. Argazkian, Malen, amaren besoetan.

**Andrea Toledo Arnaiz**

Aretxabaleta 3 Kilo. Azaroaren 3a. Gurasoak: Eli eta Oskar. Argazkian, Andrea, aitarekin.

**Aaron Fernandez Jimenez**

Arrasate 2,830 Kilo. Azaroaren 2a. Gurasoak: M. Jose eta Fran. Argazkian, Aaron txikia amarekin.

**Danel Alvarez Luceño**

Bergara 2,750 Kilo. Azaroaren 1a. Gurasoak: Montse eta Jose. Argazkian, Danel, ama eta aita.

Jaio da!**Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.**Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AI, ENE!

Gauza handi edo luzeetarako, C-3PO

Nork ez du gogoratzen *Star Wars* pelikuletako R2-D2? Maleta horri bere itxura eman diote. Haren soinua ere izango du? www.nopuedocreer.com



ASTEKO DATUA

46.000

MILIOI EURO

Hori da Amancio Ortegaren, *Forbes* aldizkariaren esanetan Espainiako pertsonarik aberatsenaren, ondarea. Espainiarren urteko batez

besteko soldata 26.027 euro izanda, 1.767.395 urte egin behar dira lan Ortega bezain aberatsa izateko. www.forbes.es

EGURALDIA



Max. 16°

Min. 4°

Goizean eguzkia espero da eta arratsaldea aurrera joan ahala zerua hodeitsu geratuko da. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2014-11-10

HAMARREKOA

Adela Ucar '21 días' saioarekin egin zen ezagun Bilboko kazetaria; orain, ama izan ostean, famatuek familia bateko iruzurtia nor den asmatu behar duten ETBko 'El impostor' aurkezten du | TXOMIN MADINA

"Uste dut oraindik ere asko dudala kazetaritzaz ikasteko"

1. Saio berrian, formatua guztiz aldatu duzu. Nola daroazu?

Oso ondo; harro nago emaitzaz. Erregistro berri bat lantzen nabil, aurkezlearena, eta gidoiarekin lan egiten dudan lehen aldia da. Ikasten nabil, eta oso pozik nago.

2. Erraza da halako saio baterako euskal familiak aurkitzea?

Orain arte ez, *reality* aldeak atzera botatzen zituen-eta. Baina emititzen hastean, esperientzia berri eta dibertigarria dela ikusi dute, eta askoz eskari gehiago ditugu.

3. Saioan, famatuek oso behar izan behar dute. Halakoa zara zu?


Bai, nire lanerako garrantzitsua da; baina saioan, ez da nahikoa. Nik neuk, grabazioan aurrera egin arte, ez dut gidioa osorik irakurtzen, eta ez dakit nor den iruzurtia. Gertu ibiltzen naiz, baina ez dut beti asmatzen.

4. Faltan igartzen duzu 21 días?

Faltan igarri ez; konbentziturata utzi nuen, lau urtean oso lan exigentea izan zen-eta. Badut gogoia gogor lan egin eta erreportajeak egiteko, baina ez 21 días-en bezalako prozesu pertsonal gogorrek.

5. Zein 21 egun izan ziren luzeenak? Eta zeintzuk gozagarrienak?

Lehen saioa, zaborteagan, oso gogorra izan zen; baita edaten, lo egin gabe edo kartzelan emandakoak ere. Surfa egiten ederki pasatu nuen, eta, esperientziagatik, menonitekin emandakoekin geratzen naiz.



MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Munduko emakumeen egoera aldatuko nuke; berehala aldatuko litzateke umeen egoera, baita gizonena ere".

AGM

6. Ikus-entzunezko munduan lehen urratsak Asia eta Ozeania aldean egin zenituen. Hori pagotxa!

Dokumentalgile gazteendako Discovery Channelen lehiaketa baten Europatik ni aukeratu; eta sei aste eman nituen Filipinetan: astero herrialde ezberdin baten egiten genituen minidokumentalak. Esperientzia itzela izan zen eta neure buruagan konfiantza eman zidan.

7. Imajinatzen zure burua informatiboetako erredakzioan?

Bai, uste dut oraindik ere kazetaritzaz asko dudala ikasteko. Praktikak erredakzio baten egin nituen, eta asko gustatu zitzaidan giroa, albistea unean bizitzea, azkartasuna; 21 días-en kontrakoa da hori.

8. 21 egun baino gehiago dira ama zarela. Nolakoa ari da izaten?

Gogorrena hasiera izan zen, orain oso ondo daroat. Etapa lasaiago baten nago; Olivia handitzean itzuliko naiz lanera dedikazio handiagoarekin. Pribilegiatua naiz.

9. Familia izateak zein kazetari mugatzen du gehien, gizona ala emakumea?

Saio batzuetarako, emakumea; baina uste dut amatasuna eta kazetaritza konbina daitezkeela. Akats bat da muga bezala ikustea amatasuna: pertsona moduan aberasten zaitu, eta, horrek, lanean lagundu.

10. Lanak eta amatasunak uzten dizute denborarik surfa egiteko?

Ez lehen beste, baina bai. Eguneko kargendako ihesbidea da niretzat.

BIHARAMUNA

AINHOA LARRAÑAGA



Lan(ez)a eta duintasuna

Krisiaren astinduek lanik eza ekarri du Euskal Herrira, eta lanik eza da independentzia ekonomikorik eza, duintasun eza, autonomia eza, bizi baldintza gutxiengoak ezin bermatu ahal izatea... Egoera honek eragin zuzena dauka norbanakoaren ongizate psikologikoan eta honek, ondorioz, dakar bikote, famili eta gizartearen ondoeza. Garbi dago lanean jarduteak ez duela kontrakoa bermatzen beti; baldintza prekarioetan lan egiteak ez dakar-eta independentzia ekonomikoa eta autonomia, eta ezta ongizate psikologikoa ere.

Fagor Etxetresnak kooperatiba itxi zela urtea bete denean, albiste laggarriak izan ditugu berriz ere bailaran, eta familia askoren egoera modu erradikalean aldatu da egun batetik bestera. Bergaran, jakin berri dugu Candy-Hoover itxiko dutela. Hipoteka, seme-alabak eta hainbat zor bizkarrean izanik, zaila da lanik ezak eragiten duen larritasuna gainditzea, eta erraza egoerak gain hartu eta norbera zulora erortzea. Tamalez, egoera oso gogorrean geratzen ari dira hainbat eta hainbat herritar gure herrian, eta hori gutxi balitz, elkarrekiko elkartasuna erasanda dago. Arazo batek beste ekarri du, ez dakit zein den larriagoa.



ADITUAK IGOGAILUAK INSTALATZEN ETA ZERO KOTARA JAISTEN

ERAIKUNTZAK ETA BIRGAITZE-LANAK PROIEKTUAK, BARNE DISEINUA, ITE, CEE...

LOKAL ETA ETXEBIZITZEN ZAHARBERRITZEA FATXADAK ETA ESTALKIAK

ENERGIA ERAGINKORTASUNERAKO SOLUZIOAK GILTZA ESKURA ERAKO PROIEKTUAK AURRETIAZKO AZTERKETAK KOSTURIK GABE



ERAIKIN PROJECTS

www.igosl.com

943798864

696159959

ELKANO kalea, 3 20500 ARRASATE